Anafora eta erreferentziakidetasuna: izen-kohesiorako baliabideak

Ines M. Garcia Azkoaga



ueu

Anafora eta erreferentzia-kidetasuna: izen-kohesiorako baliabideak

Ines M. Garcia Azkoaga

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2016

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Ines M. Garcia Azkoaga

ISBN: 978-84-8438-610-0
Lege-gordailua: BI-1692-2016

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko bi adituk ebaluatu dute jatorrizkoa, peer review erako ebaluazioan, horietako bik egilearen daturik ezagutu gabe (double-blind).

Aurkibidea

AURKEZPENA 5

1. KOHESIOAZ..... 11

2. ERREFERENTZIA, ERREFERENTEA, ERREFERITUA, ERREFERENTZIATZAILEA 17

3. ANAFORA ETA KATAFORA..... 27

4. IZENORDAINA, ERREFERENTZIAKIDETASUNA ETA ANAFORA..... 31

5. ERAKUSLEEN ANAFORIKOTASUNA..... 39
5.1. Erabilera bikoitzeko erakusleak..... 42

6. LEKU- ETA DENBORA-ADBERBIOAK, ERREFERENTZIAKIDETASUNA ETA ANAFORA..... 45

7. ADIERAZPIDE KATAFORIKO ZENBAIT..... 51

8. IZEN-SINTAGMA, ERREFERENTZIAKIDETASUNA ETA ANAFORA 57

9. ZENBAIT AZPISAIL IZEN-SINTAGMA ANAFORIKOEN BARRUAN 69

10. TEORIATIK PRAKTIKARA: TESTU BATEN AZTERKETA..... 87

ERREFERENTZIAK 93

Aurkezpena

Testua abiapuntutzat hartzen badugu, hiru geruza hauek aurkituko ditugu haren barne-osaeran: azpiegiturarena, testualizazio-mekanismoena (konexio- eta kohesio-mekanismoak) eta enuntziazio-ardurako mekanismoena. Liburu honek bigarren geruzan jartzen du arreta, zehazkiago, kohesio-mekanismoen barruan saretzen diren anafora-harremanetan. Testuaren kohesioak ibilbide gurutzatuak saretzen ditu hizkuntza-unitateen kateak edo serie isotopikoak baliatuta, hau da, nolabait, «distantzia luzera» harremana duten elementuen segidak baliatzen ditu, baina elementu horiek berezitasun bat dute: banan-banan aztertuz gero, soilik hizkuntza-kategoria jakin bat duten elementuak dira, ez zaie berez testuaren antolaketan eragiteko baliorik antzematen, haatik, elementu horiek guztiak multzo moduan hartuta, nabarmena da testuan duten antolatze-eragina eta informazioa behar bezala garatzeko ahalmena. Kohesioa bi eratako mekanismoen bidez lor daiteke: izen-kohesioaren mekanismoen bidez eta aditz-kohesioaren mekanismoen bidez. Lehendabizikoen ezaugarria da propietate erreferentzial bat edo gehiago partekatzen duten unitateen artean dauden solidaritate-harremanak esplizitatzen dituztela; aditz-kohesioaren mekanismoek, aldiz, aditzen bidez adierazitako esanahien artean dauden jarraitutasun-, apurketa- eta kontraste-harremanak esplizitatzen dituzte. Lehenengo saileko mekanismoak dira liburu honetan hizpide hartzen direnak, eta hor kokatzen dira, hain zuzen, anaforaren eta erreferentziakidetasunaren kontzeptuak. Abiapuntu eta helburu ezberdinekin baldin bada ere, erreferentziaren eta anaforaren inguruan ez da kezkarik eta ahaleginik falta, ikusi besterik ez dago beste hizkuntzetan egin diren azterketen ugaritasuna, esate baterako, Lyons (1980), Karttunen (1976), (1991, 1992, 1994…). Azalpenak, sarritan, gramatikaren eta semantikaren bidetik bilatu dira, baina Hymesen (1971) ekarpenari esker, hizkuntzalaritzak arreta jartzen du hizkuntzaren xede komunikatiboan eta hizkuntzari ikuspegi funtzionaletik behatzeko beharra azpimarratzen da, kontuan harturik, besteak beste, hizkuntzaren erabileraren testuingurua.

Ikuspegi horretatik, ezinbestekoa da hizkuntzaren alderdi pragmatiko eta diskurtsiboa kontuan hartzea. Beste hizkuntzei dagokienez, azterketa ugari aurkitzen dugu hurbilbide horretatik eginak (Moirand, 1975; Cornish, 1986; Reichler-Béguelin, 1989; Charolles, 1990, 1997...). Euskarari gagozkiolarik, anaforaren funtzionamenduari egiten zaizkion erreferentziak gehienbat izenordain elkarkariekin, bihurkariekin eta erakusleekin lotuta daude (EGLU I, 1988; Garzia Garmendia, 1997; Zabala, 1996). Horretaz gain, anaforaren aipamen zabalagoa

aurkitzen dugu Alberdiren eta Sarasolaren (2001) eta Garcia-Azkoagaren (2004) lanetan. Hala eta guztiz ere, badago gaiaren azterketa sakonagoa egiteko premia, alde batetik, izenordainen funtzionamenduaz kanpo oraindik ere oso gutxi dakigulako euskaraz gertatzen denari buruz, eta, bestetik, gaia ez dagokiolako hizkuntzari edo hizkuntzalaritzari soilik, beste diziplina batzuetan ere ekarpenak behar baitira.

HELBURUA

Erreferentzia eta anaforarena oso aztergai oparoa izan da azken urteotako bibliografian eta horregatik, hain zuzen, aski ezaguna dela pentsa dezakegu. Diziplina ezberdinetatik heldu zaio azterketari eta helburuaren arabera, bide bat edo beste aukeratu da ikerketari ekiteko. Ugariak dira beste hizkuntza batzuetan egindako azterketak, eta gaztelaniaren eta euskararen kasuan ere baditugu gaia zuzenean edo zeharka tratatu dituzten lanak. Helburuak ez dira beti berdinak izan eta interpretazioak ere hartu den abiapuntuaren araberakoak izan dira. Sarritan, ez dago irizpide bateraturik eta agian, ez du zertan egon; nolanahi ere, azterketa egiteko orduan gaiaren inguruan sortzen diren zalantzek garbi erakusten dute haren konplexutasuna eta hura tratatzeko beharra. Zalantza horietatik abiatutako liburua da hau eta bere ekarpenarekin azken urteotan egindako ikerketatik ikasitakoa modu erabilgarrian antolatzea eta eskaintzea da helburu.

Bestalde, kontuan izanik hizpide dugun gaia ez dela soilik filologia edo hizkuntzalaritzaren esparrukoa eta hizkuntzalaritzarekin eremua partekatzen duten beste diziplina batzuetan ere langai dela, ezinbestekoa dirudi kontzeptuok modu eraginkor eta erabilgarrian aurkezteko, deskribatzeko eta argitzeko ahalegina egitea. Alde horretatik, beraz, azterketa edozein ikuspegitatik egiten delarik ere, ahalik eta modu sistematikoenean egitea ahalbidetzen duen oinarrizko abiapuntu bat izatea askorentzat lagungarria izan daitekeelakoan nago. Erreferentzia, anafora, kohesioa… bezalako kontzeptuak aztergai dira oso sarri hizkuntzaren jabekuntza, garapena eta erabilera aztertzen dihardutenen adituen artean. Psikolinguistikan, adibidez, aspaldi hasitakoak eta ugariak dira erreferentziaren edo anaforaren jabekuntzari buruz egin izan diren lanak, esate baterako, Chipman (1974), Kail (1976), Karmiloff-Smith (1979), Bamberg (1986), Carreiras eta Alonso (1999), González, Cevera eta Miralles (1998), edo euskararen kasuan Idiazabal (1994) umeen ekoizpenetan konexioa eta kohesioa aztertzen dituenean, Iraola (2015) euskarazko izenordainen jabekuntza aztertzen duenean, batzuk aipatzeagatik. Testua oinarri izan duten azterketetan ere landu da anaforaren gaia: De Weck (1987), De Weck eta Schneuwly (1994), Marmy-Cusin (2012), esate baterako, edo Garcia Azkoaga (2004) euskararako. Didaktikaren inguruan ere anafora hitza edo terminoa erabat errotuta agertzen zaigu testuaren gaineko diskurtsoa erabiltzen denean. Hizkuntzaren azterketa konputazionalaren esparrura jotzen dugunean ere ez dira falta erreferentziaren eta anaforaren anotazioa aztergai duten lanak, esate baterako Mitkov (2002), Recasens eta Martí (2010) edo euskararen kasua hizpide dutenak: Ceberio *et al.* (2008), Soraluze *et al.* (2015),

batzuk aipatzearren. Gaiaren inguruko lanak aurkituko ditugu zeinu-hizkuntzari gagozkiolarik ere, adibidez, Meurant (2008).

Nolanahi ere, azpimarratu nahi nuke liburuak ez duela borondate arauemailerik. Ez da araurik emateko asmoarekin jaio, tresna lagungarri bat izateko baizik. Hemen esaten direnak beste era batera interpretatu beharra sentituko duenik ere egongo da eta haren ekarpena ere ongi etorria izango da. Esan bezala, beraz, helburua da anafora-harremanen izaera konplexua agerian jartzea eta, ahal dela, nozioak eta harreman horien izaera modu erabilgarri eta ulergarrian formulatzea, batez ere diziplinarteko lanari ekiteko orduan gauzak hobeto ulertzeko eta gaiari buruzko informazioa bilduta eta eskura izateko.

Hala eta guztiz ere, liburu honen ekarpena xumea da, ezin baita bertan bildu gaur egun erreferentziari buruz eta anaforari buruz idazten ari den guztia. Hemen gauza asko faltan aurkituko ditu seguruenik irakurle adituak, eta beste iturri batzuetara jo beharko du informazio zehatzagoa eskuratzeko, baina era berean, bidea egiten hasi nahi duenarentzat gaira gerturatzeko abiapuntu ona izatea espero dut.

LIBURUAREN EDUKIA

Anaforari buruz hitz egiterakoan ezinbestean egiten dugu topo erreferentzia-kidetasunaren kontzeptuarekin. Interpretazioa ezberdina izan daiteke aintzat hartzen dugun egilearen arabera. Zenbaitentzat gauza bera da bataz zein besteaz hitz egitea, beste batzuentzat, ordea, erreferentziakidetasuna eta anafora elkarren osagarriak dira; beste hainbatentzat badago, berriz, nolabaiteko menpekotasuna fenomeno bien artean. Nolanahi ere, garbi dago biek ala biek eragiten diotela enuntziatuen ulermen eta interpretazio egokiari. Ez dira gutxi gai honen inguruan egin diren gogoeta teorikoak. Hamaika erpineko aztergaia dugu hizkuntzalarientzat, eta erabiltzen dugun hurbilbidearen arabera (gramatikala, semantikoa, pragmatikoa…), hamaika dira fenomeno horien inguruan egin ditzakegun interpretazioak.

Konplexutasun hori kontuan harturik eta ikerketa teoriko zein praktikoetan sakontzeak duen garrantzia ahaztu gabe, azpimarratu egin behar da era berean, lagungarri izango diren irizpideak behar ditugula hizkuntzalaritzaren eremu aplikatuan edo hizkuntzalaritzarekin lankidetzan jarduten duten hainbat diziplinatan analisiak bideratzeko, erabilgarriak eta, ahal dela, baliagarriak izango zaizkigunak eremu zabal bateko analisietan, esate baterako, hizkuntzaren tratamendu automatikoan, hizkuntzaren jabekuntzaren azterketan, hizkuntzaren didaktikan eta hizkuntzaren barneko zein hizkuntzen arteko harremanak aztertzeko orduan. Hizkuntzalaritzarekin ezagutzak partekatzen dituzten hainbat diziplinatan, hizkuntzaren tratamendu automatikoan kasu, erreferentziakidetasunaren azterketa ardatz da ikerlan askotan; izan ere, hizkuntzaren tratamendu automatikoan beharrezkoak ditugu etiketatze automatikorako baliagarriak diren adierazle edo elementu batzuk aldez aurretik identifikatzea eta, neurri batean, ahalbidetuko dutenak interpretazio gramatikalaz

gain interpretazio testual eta pragmatiko-diskurtsibo batera iristea. Era berean, hizkuntza langai duen didaktikaren alorrean ere, deskripzio eta definizio ahalik eta ulergarri eta erabilgarrienak behar ditugu, are gehiago, testuan eta diskurtsoan oinarritutako didaktikan analisiak bideratzeko praktikoak izango direnak, behintzat. Psikolinguistikan ere izenordainen jabekuntzatik harantzago joan nahi badugu eta hizkuntzaren garapena bere testuinguruari lotuta aztertu, alderdi diskurtsibo eta testualetan sakondu beharra dago. Alde horretatik, hizpide ditugun nozioak erpin askotatik eta sakon aztertuak izan diren eta izaten jarraituko duten arren, gaia mahairatu eta euskararen alorrean lan egiteko orduan sortzen diren zalantza batzuk argitzen ahaleginduko naiz orri hauetan, kontuan izanik betiere, nozio horien erabilera edo aplikazio praktikoa egin behar dutenei begirakoa dela eta, horrenbestez, arlo ezberdinetan azterketari ekiteko behar diren hastapeneko urrats edo abiapuntu batzuk izateko. Irakaskuntzan irakasleen prestakuntzan somatzen diren beharrak direla-eta, hain zuzen, esaten du Maingueneau-k (2007) eskolan hiru jakintza mota bereizi behar direla: a) ikerketaren bidez eskuratzen dena, b) hizkuntza-irakasleek izan behar dituztenak, eta c) ikasleek eskuratu behar dituztenak… Hirugarren maila horretaraino iristeko baina, lehendabizikotik hasi beharra dago, eta hiru maila horiek uztartzen lagunduko dituzten kontzeptuak eta argibideak eskaini nahi ditut hemen, besteak beste.

Lehenik eta behin, ohar terminologiko bat egingo dut. Berrartze hitza erabiliko dut sarritan elementu batek aurrekari batekin harreman anaforikoa duenean, nahiz eta anafora berrartze edo ordezko hutsa baino gehiago den; ikusiko den bezala, estrategia eta operazio konplexuak jartzen dira agerian aurrekari bat testuan edo diskurtsoan aktualizatzeko orduan eta anafora-harreman asko, gainera, zeharka ebazten dira.

EDUKIAREN ANTOLAKETA

Lehenengo atala kohesioari eskainia da. Ezin dugu anaforari buruz hitz egin hura testuan kokatu gabe eta kohesioa bezalako testuratze-mekanismoei buruz hitz egin gabe. Kohesioaz zer ulertzen dugun azaldu eta gainbegirada batez erreferentziak eta anaforak jokatzen duten paperari erreparatuko diogu.

Hurrengo atalean, erreferentziaren gaineko nozio batzuk ekarriko dira erreferentziakidetasunaren eta anaforaren arteko aldeak nabarmentzen saiatzeko.

Ondorengoan anafora eta katafora terminoak izango dira hizpide. Anafora hitza dela-eta, liburuan hura erabiliko da termino orokor moduan zentzu batean zein bestean gauzatzen den prozedura «forikoa» izendatzeko. Katafora-kasu batzuk ekarriko dira anaforizatzailea aurretik agertzen den fenomeno hori ilustratzeko.

Lehendabiziko hiru atal horietan gaia kokatu ondoren, hurrengoetan anaforen esparruan murgilduko da liburua bete-betean haien ezaugarri eta funtzionamenduaz aritzeko eta anafora era desberdinek dituzten propietate bereizgarriak nabarmentzeko

eta, zergatik ez, mugatzeko irizpideak iradokitzen saiatzeko. Hizkuntzalarien artean gai hau oso errpikaria izanik, ezinezkoa da hortaz idatzi den guzti-guztia aipatzea, baina gai honetaz egin diren lan esanguratsuenak aintzat hartzeko ahalegina egingo da, bederen. Azpimarratu behar da halaber, gertueneko erreferentzia bibliografikoetara joko dela gehienetan, bereziki frankofoniaren esparruan egindako lanetara, esanguratsuak eta emankorrak izan baitira. Hortaz, iturri askotatik hartutakoak izango dira hemen aipatutakoak, baina bereziki Thatcher-engandik (1999), gainbegiratu sakona ematen baitio erreferentziakidetasunaren gaiari.

Horrela, laugarren atala izenordain anaforikoei eskaintzen zaie. Euskararen gramatikan esaten denari so egin eta elementu horiek sortzen dituzten erreferentziakidetasun eta anafora-harremanen azalpenek osatzen dute atal hau.

Erakuslearen funtzionamenduari buruzko xehetasunak aurkituko ditu irakurleak bosgarren atalean. Unitate horiek erabilera anaforikoan beraganatzen dituzten zereginak izango dira hizpide. Dena dela, erakusleetatik eratorriak eta kategoria ezberdinak osatzen dituzten hainbat elementu du euskarak; ezaugarri horrek berezitasun bat ezartzen die, kohesioaren zein konexioaren mugakoak izatea, alegia; elementu horiei arreta eskainiko zaie azpiatal batean. Ez da bosgarren atal honetan jasoko determinatzaile erakusleei buruzko informaziorik; elementu horiek izen-sintagmaren osagai izanik, anafora nominalen atalean izango dute arreta.

Seigarren atalak prozesu anaforikoak adberbioei ere eragiten diela erakutsiko du. Bertan, adberbioek eragiten dituzten erreferentziakidetasun-loturak eta anafora-prozesuak ikusteko aukera izango da.

Zazpigarren atalean adierazpide kataforiko batzuen funtzionamenduan jarriko da arreta nabarmentzeko, bereziki, anafora terminoaren erabileraren inguruan eta anafora-prozesuaren interpretazioaren gainean hainbatetan dagoen zehaztugabetasuna.

Izen-sintagma anaforikoetan murgilduko da zortzigarren atala. Gaiaren konplexutasuna erakusteko, erreferentziakidetasunaren eta anafora horien artean dauden loturen eta harremanen gaineko gogoetak ekarriko dira sail honetara.

Izen-sintagmen funtzionamendu anaforikoa hain emankorra izanik, anafora nominalen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzen dituen zenbait azpisailez osatuta dago bederatzigarren atala. Hasteko, anafora leialen ezaugarrietan eta funtzionamenduan arreta jartzen duena (9.1. azpiatala). Bertan erakusten den bezala, itxuraz hitzez-hitzezko anafora edo errepikapena den honek oso agerikoak ez diren zereginak beregana ditzake hizkuntzaren erabilera ezberdinei erreparatzen diegunean. Jarraian (9.2. azpiatala), ordezkatze lexikaletan oinarritzen diren anaforetan jartzen da arreta; azpiatal honetan halaber, beste azpisail batzuetan bilduta agertuko dira berrartutako segmentua eta berrartzean agertzen dena ezberdinak dituzten anafora-harremanak; horien artean bereiziko ditugu aldi berean, kontzeptuzko anaforak eta

asoziazio bidezkoak. Haien guztien ezaugarrien eta funtzionamenduaren azalpenek osatzen dute, beraz, atal zabal hau.

Amaitzeko, hamargarren atalean testu baten azterketa ekarriko dugu haren gainean ikusteko hizpide ditugun kontzeptuen funtzionamendua.

ERABILTZEN DIREN ADIBIDEAK

Liburuan zehar adibide ugari erabiltzen da esandakoa hobeto ulertzen laguntzeko, batzuk ahozko erabilera erakusten dutenak eta besteak idatzizko erabileratik jasoak. Urteetan zehar ikerketarako bildutako corpusaz gain[1], gaur egun sarean eskura dugun prentsarekin batera, sarean dagoen euskararen corpus zabala ere baliatuko dut, bereziki Ereduzko Prosa Gaur (EPG) eta Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD). Adibideok gehienetan testu zatiak dira halabeharrez, ezinezkoa baita testu osoak jartzea agertzen diren fenomeno guztiak erakusteko. Ahal den guztietan aipatu da zehaztasunez nondik hartua izan den adibidea. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, erabileraren eraginez errferentzia hori galduta dago eta ezinezkoa izan da. Hizkuntzaren erabilera erreala abiapuntu izan arren, asmatutako adibide batzuk ere badaude, oro har, denboran zehar han-hemenka bildutako oharretatik jasoak, baina esandakoak ondo erakusten eta erabilera erreala traizionatzen ez dutelakoan nago. Ahozko erabilera erakusten duten adibideak ahozko narrazioetatik jasotakoak dira. Ipuin-kontalarien corpusetik hartutako adibideak dira, Diaz de Gereñuk (2016) bere ikerlanean erabili zuen corpusetik, alegia. Horrelako laginak (DG) hizkiekin adierazita agertuko dira adibideetan. Erabiliko diren adbideak Rai Buenok eta Koldo Amestoik jendaurrean kontatutako ipuinen zatiak dira. Ahozko corpusak aztertzeko HIJE/ELEBILAB taldean erabili izan diren transkripzio-irizpideen arabera ekarri dira adibideok orri hauetara.

ESKER ONAK

Gaiari bete-betean heldu aurretik, baina, eskerrak eman nahi dizkiet liburu hau posible egin dutenei. Lehenik eta behin Udako Euskal Unibertsitateari (UEU) 2015eko deialdian liburu hau egiteko proiektua onartzeagatik; horrela izan ez balitz, orri hauek tiradera edo kutxa batean erdi ahaztuta jarraituko lukete dozena bat urtez edo agian betiko, batek daki. Eskerrak ikerketan beren iradokizun eta oharrekin lagundu didatenei, eta eskerrak ere lanean zein lanetik kanpo izan ditudan bidelagun guztiei. Haietako askoren galderarik gabe liburu hau ez zen inoiz gauzatuko; ez dakit argibiderik aurkituko duten hemen, baina niretzat haien galderak lagungarriak izan diren neurrian haientzat nire azalpenak ere, neurri batean behintzat, lagungarriak izatea nahi nuke. BBukatzeko, ikerketarako diru-laguntza eman duten erakundeak aipatuko ditut: MINECO (FFI2012-37884-C03-01) eta Eusko Jaurlaritza (IT676-13).

1. HIJE/ELEBILAB ikerketa-taldean proiektu ezberdinen barruan bildutako testuak elebitasuna eta diskurtso-estrategien garapena aztertzeko.

1. Kohesioaz

Kohesioa gai errekurrentea da azterketa diskurtsibo eta pragmatikoetan, batez ere Halliday-k eta Hasan-ek (1976) beren lana argitaratu zutenetik. Kohesioa, gainera, testuaren terminoari lotuta doa eta biak izan dira bibliografia zabalaren eragile. Zalantzarik gabe, ikertzaile horiei sor diegu kohesioari buruz egindako gogoeta eta ekarpen handienetakoa. Egileek testua identifikatzea eta haren kohesioa eta koherentzia kudeatzea ahalbidetzen duten mekanismoak aztertzen dituzte. Haientzat testua erabilera-unitate bat da, esaldien bitartez (eta ez esaldiz osatuta) gauzatzen den esanahiaren unitate bat, hau da, zentzuzko batasuna bereganatzen duen unitate semantikoa. Ez da esaldi multzo hutsa, eta ezin da esan besterik gabe, esaldia baino luzeagoa den zerbait denik. Unitate hori testutzat hartua izan dadin hurrenez hurren antolatutako esaldien arteko ehundura behar da eta hori bi bidetatik lortzen da: erregistroaren bitartez (testuaren eta testuinguruaren arteko harremanak) eta kohesioaren bitartez (testuaren barneko harremanak). Egile horientzat kohesioa bi elementuren arteko erlazio bat da eta aurresuposizioan oinarritzen da. Erlazio hori sortzen da diskurtsoko elementu baten interpretazioa beste elementu baten mende dagoenean. Batak bestea aurresuposatzen du eta ezin da deskodetu aurresuposatutako elementu horretara jo barik. Kohesio-erlazio hori marka esplizituen bidez gauzatzen da eta beti da endoforikoa testuko bi elementu lotzen dituelako. Marka linguistikoen bitartez harreman semantikoak eragiten ditu testuko elementuen artean. Kohesioak testuaren bi zatiren arteko jarraitutasuna adierazten du eta ezinbestekoa da testuaren ehundurarentzat. Honela definitzen dute aipatutako egileek kohesioa: kohesioa testu-mekanismo bat da; horri esker, testua ekoizten duenak informazioaren jarraitutasuna eta garapena ziurta ditzake; era berean, testua jasotzen duenak elementu ezberdinen arteko loturak ezar ditzake testuan ematen diren informazioak era koherentean interpretatu ahal izateko.

Informazioaren jarraitutasuna gai edo topiko bat agertzen eta garatzen den moduarekin lotuta dago, hau da, informazio bat eman eta informazio berriarekin osatzeko moduarekin. Maila intra-frastikoan perpausen osagaien arteko hierarkia hori tema/rema edo ezaguna/berria bikoteen bidez adierazten da, euskaraz mintzagaia/galdegaia, mintzagaia perpausaren informazio-egituran lehendik ezaguna dena izendatzeko eta galdegaia informazio berria ematen duen perpaus-zatia izendatzeko. Tema/rema dikotomia hori testuaren gramatikaren esparrura eramanda Combettes-ek (1983, 1993) hiru jarraitutasun mota bereizten ditu esaldietan temak eta remak kateatzeko moduaren arabera: gai iraunkorra edo aldaketarik gabekoa, gai lineal edo ebolutiboa eta gai eratorria. Xehetasun gehiago Cortés-en (1985) ikus daiteke.

Testuari edo diskurtsoari gagozkiolarik, tema (testuaren gaia, diskurtsoaren gaia) diogunean testuak hizpide duen gai orokorra zein den adierazi nahi dugu, nahiz eta argitaratutako bibliografian ez dagoen erabateko bateratasunik termino hau erabiltzeko orduan, haren ondoan beste hauek ere aurkitzen baititugu: topikoa, entitate tematikoa, diskurtsoko objektua, denak betiere, erreferentziazio-prozesuekin lotuta.

Ikuspegi sozio-kognitibo eta elkarreragile batetik diskurtsoko objektua da hobesten den terminoa; izendapen horrek adierazten duena da erreferente bat arian-arian eraikitzen joaten den diskurtsoko objektu bat dela, hau da, enuntziazioan parte hartzen dutenek erabiltzen dituzten lexikoaren eta egitura sintaktiko-semantikoen eraginez zein testuinguru sozio-diskurtsibo eta kulturalaren eraginez gauzatzen joaten dena; izan ere, enuntziazioa beste esatari batzuekin egiten den elkartruke baten (esplizitua edo inplizitua) emaitza da, beste era batera esanda, enuntziazioak beste enuntziazio-instantzia bat ere egotea dakar eta esatariak beste instantzia hori kontuan harturik eraikitzen du bere diskurtsoa.

Edozelan ere, topikoaren garapenari edo diskurtsoko objektuaren eraikuntzari buruz hitz egiteak ezinbestean eramaten gaitu testuaren edo diskurtsoaren barruan saretzen diren harreman kohesiboetan arreta jartzera eta erreferentziazio-prozesuak azaltzera, horregatik termino bata (topikoa) zein bestea (diskurtsoko objektua) erabiliko dira liburu honetan.

Charolles-ek (1988) azaltzen duen ildotik, kohesioa osagaien arteko identitate-, inklusio- eta asoziazio-harremanekin lotuta eta, oro har, Greimas-en isotopia nozioari lotuta interpretatzen dugu. Kohesio-mekanismoek, testuaren arkitekturaren (Bronckart, 1996) osagai garrantzizkoak izanik, testuaren konstituzioari eragiten diote, hau da, testuaren osagai funtsezko eta bereizgarriak dira; haiek erakusten dituzte bai generoaren ezaugarri nagusiak bai kontestuaren arabera ekoizle jakin batek egin dituen errepresentazioen adaptazio-operazioetatik eratortzen diren berezitasunak (Bronckart, 2001).

Bestelakoak dira konexio-mekanismoak; horien esparrukoak dira eduki proposizionalen arteko harremanak, hau da, mintzaira-egintzen arteko harremanak, beste era batera esanda, esaldien eta hitzen arteko harremanak adierazten dituztenak (ikusi Idiazabal eta Larringan, 1998: 83). Ikus dezagun adibide bat:

(1) Beste aldetik, [Txinak euroa babestu nahi du bere atzerritar trukeko erreserbekin, gune horretarako beren esportazioak babesteko helburuekin]$_{\text{A proposizioa}}$ [Euroa sendotzea du helburu Txinak]$_{\text{B proposizioa}}$. Dena den, [ez dago inolako baliokiderik AEBetako Altxor Publikoko tituluekin]$_{\text{C proposizioa}}$ (BERRIA, 2011-04-06: «Txina eta Europa», Joseba Felix Tobar Arbulu, Ingeniaria[2]).

Konexioari dagokionez, testu zati hori osatzen duten hiru proposizioak bildu

2. <http://paperekoa.berria.info/iritzia/2011-04-06/004/001/txina_eta_europa.htm>.

dira kortxete artean. Marra zuzenaz azpimarratuta agertzen dira konexioa saretzen duten elementuak. Hasieran agertzen den *beste aldetik* emendiozko juntagailuak antolaketa- eta atalketa-zeregina du; ondoren datorren segmentua aurretik esandakoari gehitu behar zaiola adierazten digu. A eta B proposizioak puntuazioaren bidez lotzen dira, oso modu sinplean baina eraginkorrean ezartzen delarik bien arteko konexioa. *Dena den* lokailuak B eta C proposizioen arteko lotura eragiten du nolabaiteko aurkaritza edo kontzesio-zentzua ezarriz bien artean; gainera, proposizio biak lotu ez ezik C segmentua nola interpretatu behar den ere adierazten digu (ikusi Garcia Azkoaga, 2012).

Kohesioari dagokionez, marra ondulatuaz azpimarratu dira hartan inplikatuta dauden elementuak eta hurrengo zerrendan adierazten dira haien artean sortzen diren saretzeak: *Txinak* aurrekaria A proposizioan → *bere, beren* A proposizioan eta *Txinak* B proposizioan; *Euroa* A proposizioan → *gune horretarako* proposizioan → *Euroa* B proposizioan. Elementu horiek anaforikoki lotzen dira euren artean.

Kohesio- eta konexio-mekanismo horiek koherentzia tematikoa ematen diote testuari. Oinarrizkoak dira haren linealtasunerako eta artikulazio hierarkikoak, logikoak eta denborazkoak jartzen dituzte agerian. Kohesioari dagokio testura topiko berriak ekartzea eta topiko horien jarraitutasuna testuan zehar ziurtatzea. Baina ez hori bakarrik, aditzen bidez adierazten diren prozesuen, egoeren, gertaeren eta ekintzen antolaketa hierarkiko eta denborazkoa ere kohesioari dagokio. Izen-kohesioari buruz hitz egingo dugu lehenengo kasuan eta aditz-kohesioari bigarrenean (Bronckart, 1996), betiere testua komunikazio-unitatetzat dugularik.

Nolanahi ere, hemen izen-kohesioa bakarrik izango dugu hizpide, esparru horretakoak baitira testuaren barruan saretzen diren erreferentziazko loturak eta anafora-harremanak. Saretze horretan gertatzen dena deskribatze eta formalizatze aldera, alde batetik printzipio deskriptibo bat edukiko dugu kontuan, hala elementuen arteko erreferentziazko eta erreferentziakidetasunezko loturak eta kasuan kasu gertatzen dena hobeto ezagutzeko, harreman mota horien nolakotasunari erreparatuko diogu; bestetik, printzipio operatibo bati jarraikiz, anaforari buruz hitz egingo dugu nozioen artean gertatzen diren harremanen funtzionamendua azaltzeko, parte hartzen duten estrategia eta baliabideak argitzeko eta, azken batean, modu erabilgarrian kontzeptualizatzeko.

Erreferentziari dagokionez, bi elementuren artean ezartzen den harremana dugu, baina bereizi egin behar da harreman hori zuzenean testutik kanpo dagoen ente batekin ezartzen den edo testuan dagoeneko agertu den elementuren batekin. Deixiari buruz hitz egingo dugu lehendabiziko kasuan. Bestelakoa da testuaren barruko bi elementuren artean sortzen den erreferentzia mota. Elementu biek unibertsoko entitate berbera izendatzen dutenez, erreferentziakidetasunaz hitz egingo dugu horrelakoetan. Erreferentzia endoforiko horren kasuan hitz egingo dugu, oro har,

anaforari edo kataforari buruz.

Erreferentziaren aktualizazio «forikoa» izenordainen bidez eta, bereziki, izen-sintagma mugatuen bidez gauzatzen da. Hala eta gutiz ere, propioki kohesiboak edo anaforikoak izan daitezkeen elementuekin batera, badira konexio-mekanismoen saileko elementu zenbait beste elementu edo testu zati bati erreferentzia egin eta haren bidez interpretatu behar direnak edota topikalizazioan eragina dutenak, esate baterako 4.1. atalean agertzen direnak.

Anaforari dagokionez, funtsean, kohesio-mekanismo bat da non testu batean agertzen den elementu batek (anaforizatzailea: B) aurretik agertu den baten (aurrekaria: A) bidez interpretatzen den. Anaforak testuaren batasun tematikoa bermatzen du; adierazten diguna da, azken batean, entitate bat dagoeneko aipatua izan dela (topiko moduan sartu dela) aurretiaz. Gauzak horrela, beraz, anaforikotasuna ez da esklusiboki izenordainen propietatea, gehienetan izen-sintagmak baitira prozesu anaforikoetan inplikatuta daudenak.

Anafora pronominalak izenordain baten bidez berreskuratzen du aurrekaria. Ikusiko den bezala, anafora mota hauen erabilera esaldiaren esparruari dagokio eta ez da anafora nominala bezain emankorra. Izenordain anaforikoa semantikoki hutsik dago eta aurrekariarekin ezartzen duen erreferentziari esker bereganatzen du esanahia.

Anafora nominalak edo lexikalak izen-sintagma baten bidez ezartzen du erreferentzia aurrekari batekin, zeinak, gehienetan, izen-sintagma erakusledun edo definitu baten forma hartzen baitu. Topikoa aktualizatzeko erabiltzen den izenaren burua eta aurrekarian erabiltzen dena berdinak direnean anafora leialari buruz hitz egingo dugu. Baina aurrekarian agertzen den izena eta anaforizatzailean erabiltzen dena desberdinak ere izan daitezke; kasu horietan bigarren izen-sintagma horren determinatzailea erabakigarria izan daiteke interpretazio anaforikoa bideratzeko.

Bestalde, erreferentziakidetasunaren kasuan erreferentziaren ebazpena beti da zuzena, ezin da bestelakoa izan, esplizituki aipatutako elementuak bakarrik har daitezkeelako aurrekaritzat. Anaforen kasuan, ordea, aurrekariaren identifikazioa zeharka ere egin daiteke.

Badago kontuan hartu beharreko beste zerbait ere. Aurrekaria eguneratzeko edo aktualizatzeko izen-sintagma anaforiko bat erabiltzen denean ez da soilik errepikapenak saihesteko baliabide bat erabiltzearren. Are gehiago, ikusiko dugun bezala, zenbaitetan errepikapena beharrezkoa da informazioa nola interpretatu behar den adierazteko eta jarraian datorren topikoari eusteko zein argumentazioaren ildoa zehazteko. Alde horretatik, beraz, anafora ez da bakarrik sinonimo diskurtsibo batez edo ordezkapen lexikal batez egiten den berrartzea, gaiaren edo topikoaren jarraitutasuna bermatzeaz gain aurreko enuntziatu bat zein enuntziazio bat laburbildu eta birformulatu baitezake eta egiten den aukeraketak agerian jartzen du, gainera,

esatariaren ikuspegia edo jarrera.

Halaber, dimentsio ezberdinetako fenomenoa dugu anafora. Gehienetan, gramatikazko loturez gain bestelako argibide-iturriak baliatu behar ditugu anaforaren ebazpenerako, esate baterako, informazio semantikoa, testuala edo diskurtsiboa zein pragmatikoa edo kognitiboa. Informazio morfologikoak elementuen arteko lotura gramatikalak ulertzen laguntzen digu. Informazio semantikoari esker esanahiaren arabera harremanetan jar daitezkeen elementuen gaineko informazioa eskura dezakegu eta lotura semantikoak ezarri haien artean. Informazio testualari esker esalditik harantzago doazen harreman anaforikoak argi ditzakegu testuan aurretik zein atzetik agertzen den informazioa kontuan harturik. Informazio diskurtsibo eta pragmatikoa ere beharrezkoa dugu interpretazio egokia egiteko. Informazioa egoki deskodetzeko ez da nahikoa ondo egituratutako esaldiak erabiltzea, berbazko jardueran inplikatuta dauden subjektuek munduari buruzko ezagutza partekatu behar dute gaizki-ulertuak saihesteko eta haien arteko komunikazioa eraginkorra izan dadin. Baina horretaz gain, gaiak aurrera egin ahala, haien ikuspegiak agerian jarrita, mundu diskurtsibo propio bat eraikitzen dute, hau da, ez dute soilik munduari buruz hitz egiten baizik eta munduaren ikuspegi bat eraikitzen. Prozesu horretan garrantzizkoa da, jakina, gauzak hautemateko modua. Zentzu horretan, beraz, badago dimentsio kognitibo bat ere, eta hortik ikertzaile batzuek nabarmentze kognitiboari buruz hitz egitearena[3].

Gauzak horrela, beraz, Thatcher-en (1999) definizioa osatuz, aldi berean gramatikaren arlokoa, testuaren arlokoa eta oroimenaren arlokoa den fenomenoa dugu anafora, bere interpretazioa egiteko aurrekari bat behar duena. Aurrekariaren eta berrartzearen artean erreferentziakidetasunezko lotura egon daiteke, baina ez ezinbestean, asoziazio bidezko anaforetan gertatzen den bezala, sarritan solaskideek elkarrekin eraikitzen duten markoaren barruan egin behar baitira interpretazioak.

3. Berrendoner (1986), Grobert (2002), Landragin (2004) batzuk aipatzeagatik. Nabarmentze kognitiboari buruzko informazio gehiago hemen aurki daiteke: <http://www.semantique-gdr.net/dico/index.php/Saillance>.

2. Erreferentzia, erreferentea, erreferitua, erreferentziatzailea

Erreferentziaren aztergaiak, eta bereziki izenordainen erreferentziarenak, bere lekua izan du generatibismoaren hurbilbidea oinarri duten hizkuntzalarien artean. Chomsky-ren geroztik ugariak izan dira erreferentziari eskainitako lanak eta aztergai emankorra izan da, besteak beste, gramatika-lanetan zein psikolinguistikako ikerketetan, baina baita beste zenbait arlotan ere, adibidez, hizkuntzalaritza konputazionalean. Gogoratu egin behar da, ordea, erreferentziakidetasuna ez dagokiela soilik izendordainen esparruko hizkuntza-unitateei. Ikusiko den bezala, adberbioei ere badagokie eta, zer esanik ez, izen-sintagmei.

Testuaren eta diskurtsoaren azterketak bere bidea egin ahala, haien analisiari ekiteko beharrezkoak suertatu diren nozioak agertu dira, besteak beste, anaforarena. Haren kontzeptu eta definizioak ez daude, ordea, erabat finkatuta eta zenbaitetan era nahasian erabiltzen dira; hori gertatzen da sarritan erreferentziari eta anaforari buruz aritzerakoan. Eta ez da bibliografia ezagatik, alderantziz baizik; gai horren inguruko hurbilbideak hain ugariak izanik, azterketak oso helburu eta ikuspegi ezberdinekin egin izan dira eta horrek sortzen duen nahasmenak terminoak era desegokian formulatzera eraman gaitzake.

Erreferentzia hizkuntza-zeinuak edo espresio batek munduko entitate batera bidaltzeko duen propietatea da. Entitate hori mundu errealekoa edo diskurtsoak sortzen duen unibertsokoa izan daiteke eta erreferente batean gauzatzen da. Testu batean informazioak aurrera egingo badu jarraitutasun tematikoari esker da, erreferenteak jarraitutasun horrekin lotuta baitaude neurri batean. Testuaren topikoak edo diskurtso-objektuak elementu lexikoen bitartez testuratzen dira eta elkarren artean sortzen diren erreferentziei esker, informazioa eguneratzen da eta hartzailearentzat ulergarri bihurtzen da:

(2) Herriko neska-mutil guztiak eskolara abiatu ziren […] neska-mutiko guztiak pupitrearen azpitikan bakoitzak atera zuen bere arbela, bere arbel txikia, atera zituzten klarionak […] (DG).

Testu zati txiki horretan, esate baterako, *herri*, *neska-mutil, eskola, pupitre, arbela, klariona,* erreferentziazko adierazpideak dira, diskurtsoaren objektu edo topiko bihurtu diren erreferentziazko adierazpideak, alegia. Aditzek ez bezala,

izenak dira errealitateari edo esistitzen den zerbaiti erreferentzia egiteko gaitasuna duten unitateak.

Era berean, horietako erreferentziazko adierazpide batzuk errepikatu egiten dira: «*arbela, arbel txikia*»; Blanche-Benveniste-k (2000) dioen bezala, ahozko mitzaira-jardunetan ohikoak dira errepikapenak eta hizkuntza idatzian ere ohikoak dira literaturara hurbiltzen garenean. Are gehiago, adierazpide horiek loturaren bat iradokitzen dute beren artean; izan ere, *eskola*, *arbela*, *klariona*… mundu erreferentzial berdinean kokatzen dira, kasu honetan testuinguru fisiko berean aurkitzen ditugun erreferenteak baitira.

Hortaz, testu batean zehar hainbat erreferentziazko adierazpide aurkituko dugu, baina haien artean gertatzen diren loturak, harremanak eta unean-unean dituzten funtzioak oso ezberdinak izan daitezke. Goiko testu zatian (2), adibidez, *neska-mutil guztiak* errepikatuta dago, aldiko adierazpide predikatibo ezberdin batekin; errepikapen hori aurretik aipatutako erreferentziazko adierazpidea gogoratzeko modu hutsa izan daiteke, baina ez da beti horrela gertatzen. Beste errepikapen honetan: «*bakoitzak atera zuen bere arbela, bere arbel txikia*» *arbela* hitza errepikatzen denean, helburua ez da informazioa testuan eguneratuta mantentzea soilik; testuingurua kontuan harturik eta testu zati hori leku jakin batean eta ipuin-kontalari baten ahotik sortu dela kontuan harturik, horren beste bizpahiru interpretazio proposa daitezke, gutxienez, errepikapen horrentzat; errepikapen horrek badu funtzio poetiko bat, baina hots-soinuen jolas horren bitartez narratzaileak efektu bikoitza lortzen du: entzuleen arreta bereganatzea eta haien memorian diskurtsoaren objektuak grabatzea. Objektu horrek aurrerantzean izan dezakeen protagonismoaren iragarpena ere izan daiteke errepikapena; tentsio narratiboa ezartzen dio kontakizunari onerako edo txarrerako gerta daitekeen zerbaiten iragarpena aktibatuta.

Erreferentziaz hitz egiten dutenean testuaren kohesioa bermatzen duen elementu bat dela esaten dute egile batzuek. Halliday-k eta Hasan-ek (1976) izenordainak, erakusleak eta konparaziozko adierazpideak sartzen dituzte erreferentziaren barruan. Horretaz gain, erreferentzia exoforikoa eta endoforikoa bereizten dituzte; erreferentzia exoforikoa testuinguruarekin lotuta egongo litzateke eta erreferentzia endoforikoa testuaren barruan gertatuko litzateke; erreferentzia endoforikoaren kasuan, gainera, noranzkoaren arabera, anafora baten edo katafora baten aurrean geundeke. Erreferentzia exoforikoaren kasuan, aldiz, ez litzateke harreman kohesiborik sortuko erreferentzia horrek ez dituelako testuko bi elementu lotzen, baizik eta kanpoko bati (kanpoko testuinguru fisiko errealaean dagoen bati) erreferentzia egiten:

(3) Ikusi duzu bidetik pasatu den motor zuri hori?

(4) Garbitasunekoari esan behar diogu kristal hauek garbitzeko.

Kasu horietan deixiari buruz hitz egiten dugu. Kalean dauden bi lagunek motor zuri bat ikusten badute eta «*motor zuri hori*» esaten badute edo bulegoan daudenek

«*kristal hauek*» badiote, esataria dagoen testuinguru fisikoan dagoen zerbait izendatzen ari dira; zerbaiti erreferentzia egiten dioten izen-sintagmak dira horiek. Benveniste-ri (1966) zor diogu enuntziazioaren teoriaren barruan formulatu zuen erreferentzia deiktikoaren eta erreferentzia anaforikoaren arteko ezberdintasuna, gaur egun, oro har, arazorik gabe onartzen dena. Hala eta guztiz ere, ereferentzia deiktikoa zenbaitetan bat etor daiteke oroimenezko anaforarekin; horrelakoetan interpretazioa hauxe izango litzateke: erreferentziazko adierazpideak anaforikoki funtzionatzen du esatariaren buruan edo gogoan dagoen erreferente batengana bidaltzen gaituelako. Hau oso ohikoa da ahozko mintzaira-jardueran. Hona Koldo Amestoi ipuin-kontalariaren saio batetik hartutako narrazioaren transkripzio zati txiki bat:

(5) […] gure gizonak badaki / itsas sakon sakonean daudela / m:: / aingurak / badakizu? itsasuntziek galdutako: burnizko hoiek / hortxe daude / […] / hortxe daude: / […] ta gu hortxe tartean gizonak bobo! […] / gizakiaren artean / hortxe nunbait /[…] (DG).

(6) […] jarraitu zuten bidea hiru gizonek eta / holako batez […] /orduan/ hortxe / gure herrira heltzean: / mendi tontor horren gainean ikusi zuten / ikusi zituzten bi gizon […] (DG).

(7) […] eta morroi horrekin lanean jinjinjinjin! hantxe nunbait landa batean […] (DG).

Adibide horietan *hortxe, hantxe* adberbioek deiktikoki egiten diote erreferentzia lekuren bati, baita *mendi tontor horren gainean* sintagmak ere; erreferentzia espaziala adierazten dute, baina erreferentzia espazial zehaztugabea. Narrazioetan erabilera hori ohikoa da genero horrek eskatzen duen distantzia enuntziatiboa markatzen laguntzen duelako; diskurtsoaren bidezko interpretazioa egin behar dugu, beraz. Hala eta guztiz ere, elementu horien funtzionamendua hori baino konplexuagoa da, hurrengo adibidean erreferentziazko adierazpideen interpretazio bikoitza egin baitezakegu:

(8) […] bota ta bota kukurruku ta guziak zerura! eta ikusi ere bai iguzkia poliki poliki hantxe altxatzen […] (DG).

Erreferentzia espaziala adierazten duen *hantxe* adberbioak lotura du aurrera-xeago aipatu den *zerua*rekin eta, alde horretatik, interpretazio testuala egin dezakegu, testuan bertan aurretik aipatu den zerbaiti erreferentzia egiten diolako, baina era berean espazio zehaztugabea adierazten du. Interpretazio semantikoa eginez gero, *zerua* hitzean aurki dezakegu zehaztugabetasun horren arrazoia, baina enuntziatiboki narrazioak duen eskakizuna ere bada, aurreko adibideetan ikusi dugun bezala eta, alde horretatk, diskurtsoari lotuta dago bere interpretazioa. Hurrengo adibidean garbiago ikus dezakegu erreferentzia anaforikoaren eta erreferentzia deiktikoaren arteko ezberdintasuna eta erreferentzia deiktikoaren bat-egitea oroimenezko anaforarekin:

(9) […] gizon bat / aizkora batekin […] zuk ja! harrizko aizkora horrekin ez duzu gauza handik egingo / baina honekin (> igitaia) bai posible da lana egitea / […] gure gizona: (igitaiaren mugimendua egingo du) rist rast rist rast / horrela egiten du / igitaiak / eta horrela egin du […] (DG).

Harrizko aizkora horrekin izen-sintagmaren kasuan erakuslearen bitartez kontalariak erreferentzia egiten dio aurretik aipatu den *aizkora bat* izen-sintagmari, erreferentzia anaforikoa dugu, hain zuzen; baina esatariak eskuetan izan lezakeen edo gogoan duen igitariari erreferentzia egiten dionean, ordea, ez dabil diskurtsoan dagoeneko aipatu duen zerbaiti erreferentzia egiten, baizik eta eskuetan duen balizko tresna bati, igitaiari; ipuin-kontalariak eskuan izan dezake igitai hori, baina litekeena da gogoan bakarrik izatea, imajinatzen edo irudikatzen aritzea, alegia. Hortaz, interpretazio egokia egiteko komunikazio-egoera izan behar dugu kontuan bere osotasunean. Nolanahi ere, Garcia Azkoagaren eta Diaz de Gereñuren (2009) lan batean ikusten den bezala, ahozko narrazioetan erakusleak eta haien forma eratorriak irudikapen-estrategia gisa ere erabiltzen dira, besteak beste, agertokien aldaketa adierazteko eta pertsonaien arteko elkarrizketak txertatzeko.

Erreferentzia endoforikoari gagozkiolarik, egile askok anaforarekin eta kataforarekin lotzen dute (Benveniste, 1966, 1974; Halliday eta Hasan, 1976) eta testuan aurretik edo ondoren aipatutako beste adierazpide batekin lotzen dute. Ikuspegi horretatik erreferentzia endoforikoa, eta horrenbestez anafora eta katafora, testu barneko fenomenoa izango litzateke. Halliday eta Hasan-entzat kohesioa erlazio semantikoa da eta erlazio endoforikoek ematen diote kohesioa testuari; haien esanetan «the two items are identical in reference» (1976: 3); hau da, erreferentzia endoforikoaren kasuan erreferentziakidetasuna legoke harremanetan jartzen diren elementu bien artean, eta, horrenbestez, egile horiek anafora erreferentziakidetasunarekin identifikatzen dutela esan dezakegu.

Bestalde, erreferentziari buruz hitz egiterakoan ohikoa da enuntziazioaren hiru eremu osagarri kontuan hartzea, hau da, izenordainen erreferentzia, espazioaren erreferentzia, denboraren erreferentzia bezalako nozioak erabiltzea, eta, horrenbestez, izenordainen (hirugarren pertsonakoak), eta denborazko eta lekuzko adberbioen (*orain, atzo, orduan, une horretan, geroxeago*…; *han, hantxe, hortxe, hemen, bertan*…) azterketan oinarritzea analisia eta lanketa. Izan ere, deixia honela definitu izan da: «La localisation et l'identification des personnes, objets, processus, évènements et activités […] par rapport au contexte spatio-temporel créé et maintenu par l'acte d'énonciation» (Lyons 1980: 261).

Anaforaren eta erreferentziaren eremuei dagokienez, gramatika bereziki izenordain anaforikoen azterketara mugatu da, haien artean bihurkariak, elkarkariak eta X-burua tankerakoak. Horrelakoetan, Gayral-ek, Kayser-ek eta Lévy-k adierazten duten bezala: «L'identifiation de l'antecedente est guidée dans chaque cas par des regles reposant sur les notions de frontiere enrtre groupes, de transformation et d'effacement, et sur la hiérarquie gouvernant/gouverné» (1997: 179).

«Pro drop»[4] ez diren hizkuntzetan arreta berezia merezi izan du izenordainetan oinarritutako erreferentziak, adibidez, ingelesezko *it...it...* segidak edo frantsesezko; *il...il...* tankerakoetan, hizkuntza horien ezaugarria baita subjektu lexikoaren agertu beharra. Gaztelaniaren kasuan izenordainak ezabatu egin daitezke, baina anbiguetateak argitzeko orduan lagungarria ditugu generoa markatzen dutelako:

(10) Miren ha llegado esta mañana. (Ella) Ha venido sola; se ha reunido con Ander y han ido a Paris; él se quedará en casa de unos amigos y ella en casa de sus padres.

Bestelakoa da, ordea, euskararen kasua:

(11) Ander Mirenekin joan da Parisera; haren lagunekin elkartu dira bertan.

Azken kasu horretan ikusten den bezala, *haren* izenordainaren erreferentea *Miren* zein *Ander* izan daiteke, diskurtsoan argitu behar dugu.

Baina nahikoa da izenordainen erreferentziaz hitz egitea edo izenordainez harantzago doazen sintagma erreferenteak bilatu behar ditugu? Izenordainek erreferentziak markatzen baldin badituzte ere, bestelako elementu lexikoen bitartez sartzen dira erreferentzia berriak edo diskurtsoaren objektu berriak testuetan, gehienetan, gainera, izen-sintagmen bitartez aktualizatzen dira. Dena dela, izenordainarekin gertatzen den bezala, elementu lexiko hori ere ezabatu egin daiteke:


(12) […] Donostiarako errepidean, autobidean, auto bat ziztu bizian igaro da. Ø Ez doa abiadura mugetatik gaindi, hala ere. Hiru lerro daude orain bide horretan, eta erdikoan doa autoa […].

2.1. TERMINOEN MUGAK

Orain arte erreferentziazko adierazpideei buruz hitz egin dugu, baina erreferentziazko adierazpide bat egoteak erreferente bat egotea eskatzen du, zerbaiti egiten baitio erreferentzia. Hortaz, aurrera jarraitu baino lehenago komenigarria da terminoak mugatzea.

Nahastu behar ez diren nozioak dira erreferentzia eta erreferentea. Gorago esan den bezala, erreferentzia hizkuntza-zeinu batek edo erreferentziazko adierazpide batek errealitate batera bidaltzeko duen propietatea da. Erreferentea, ordea, erreferentziak adierazten edo markatzen duen errealitate hori da.

4. Ez dute subjektuaren izenordainak aktualizatu beharrik aditzaren flexioan markatzen direlako.



1. irudia.

Hortaz, erreferentea da erreferentziak izendatzen duen entitatea. Irudiaren kasuan, subjektu bat: *lorezaina* edo *langilea*. Baina goiko irudia aldatu eta entitate hori objektu bat ere izan daiteke (*zuhaitza*, *pala*), baita entitate abstraktu bat ere (*lana*). Are gehiago, litekeena da entitate horrek gauzapen erreala ez izatea eta irudikatze bat izatea; (8) adibidean, esate baterako, *igitaia* aipatzen denean mundu diskurtsiboan sortutako entitate bati egiten zaio erreferentzia.

Bestalde, erreferentea izan daiteke testutik at dagoen entitate bat (2, 3 adbideak) zein testuan dagoeneko aipatutakoa: «*aizkora batekin [...] zuk ja! harrizko aizkora horrekin*»; adibide horretan erakuslearen bidez markatzen da aurretik aipatutako erreferentearekiko erreferentzia, baina hurrengo adibidean (12) *filtro* izen-sintagma dugu *geruza*rekin erreferentzia ezartzen duen adierazpidea.

(13) Ozono geruza oso garrantzitsua da lurraren bizitzarako. Filtro naturala da.

Hortaz, erreferentzia prozedura lexiko zein gramatikalen bidez ezar daiteke.

Esan dut gorago ere testu batean erreferentziazko adierazpide ezberdinak ager daitezkeela; baina behin agertu ondoren, haiekin harremanetan dauden beste adierazpide batzuk ere ager daitezke eta adierazpide berriek oso itxura ezberdina har dezakete lehendabizikoekiko: hitz berdinaren errepikapena, aurrekoarekin lotura edo harremanen bat duen hitz berria, izenordaina, erakuslea, adberbioa…

(14) Gure eguneroko ekintzak ondo-ondo aztertuz, urak duen garrantzia ikus dezakegu: jatean, garbiketan, bai norberaren eta baita gauzen garbiketan, industrian eta abarretan […]. Ura dagoen tokietan sortzen dira landareak, eta landare hauen babesean […].

(15) […] nire semeak gaur goizean aurkitu du ate azpian, lotuta zegoen paper-xerrenda batekin, baina lotsagabe horrek futboleko emaitzak ikusteko ireki du […] (*Oker ttiki garrantzi gabeak,* Antonio Tabucchi / Fernando Rey (Elkar/ Alberdania, 2007), 102. or.).

(16) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Han ibili da egun osoan.


Adibide horiek oinarritzat hartuta, baditugu erreferentetzat hartzen ditugun entitate zenbait: *ura*, *nire semea*, *itsas txakurra, Donostiako portua*…; hau da, gauza bat, pertsona bat, animalia mota jakin bat, leku bat eta kasuan kasu errealitate horietako bakoitza aipatzen duen erreferentziazko adierazpidea. Entitate horiek agerpen gehiago ere izan dezakete testuan zehar. Lehendabiziko posizioan agertzen den adierazpidea (A), esate baterako, lotuta dago bigarren posizioan agertzen denarekin (B adierazpidea): «*Nire semeak (A) […] lotsagabe horrek (B)*». Gauzak horrela, izendapen zehatzagoa erabiltze aldera, lehendabiziko posizioan agertzen den adierazpideari erreferitua dei diezaiokegu eta bigarren posizioan agertzen denari erreferentziatzailea. «Pro-drop» diren hizkuntzen kasuan, gainera, bigarren zatiko erreferentziazko adierazpidea eliptikoa izan daiteke:

(17) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Ø Hainbat egun egon da bazterrera hurbildu gabe.

Maillard-en (1974: 56) terminologia erabilita: «erreferentziatzailea» da katearen beste elementu batekin lotu behar den segmentua eta «erreferitua» erreferentziatzaileak kontuan edo barne hartzen duena, hau da, erreferentea inplikatzen duena. Bien artean identifikaziorako ezartzen den harreman semantikoa da «erreferentziazko lotura».


(18) Langile bat erori da hirugarren solairutik andamioan lanean ari zela. Gizona lotu gabe zegoen.

(19) Ander nekatuta iritsi da. Hura izan da sartu den azkena.



2. irudia.

Moirand-ek (1990) erreferentzia-sistema bikoitzari buruz hitz egiten du: bata kanpoko erreferentearekiko eta bestea erreferituarekiko (edo testuan agertu den aurrekariarekiko):



3. irudia.

Litekeena da, beraz, erreferitua eta erreferentziatzaileak erreferente berbera izatea, baina baita ere, bakoitzak bat, hau da, ezberdinak izatea:

(20) 41 urteko nekazari ekuatoriar bat hil da gaur Zambranan, lanean ari zela Ceca Txulato nekazal kooperatibako horma bat gainera erorita. Kooperatibak jakinarazi du bertako ate baten ondoan tabike bat mozten hasi denean erori zaiola horma. […] hildakoa —gizonezkoa— Miranda de Ebroko (Burgos, Espainia) bizilaguna zen. Behargina duela urte eta erdi hasi zen lanean kooperatiban.

«Nekazari ekuatoriar bat... hildakoa... behargina»: testuak erreferentziatzat duen munduko entitate berbera irudikatzen dute izen horiek, eta, horrenbestez, erreferentziakideak dira. Kanpoko erreferentzia izango genuke ikuspegi horretatik. Baina, era berean, *behargina* edo *hildakoa* aurretik aipatu den *ekuatoriar bat*en berrartzeak diren neurrian, barneko erreferentzia izango genuke; bigarren elementua artikuluarekin mugatuta agertzen denez, entitate hori (*hildako-a*, *behargin-a*) ezaguntzat har dezakegu eta harremanetan jarri aurrekari mugagabea duen segmentuarekin. Horrela, egile honentzat erreferentziakidetasuna fenomeno diskurtsiboa litzateke.

Badago beste nozio bat erreferentziari lotuta agertuko zaiguna: erreferentzia-kateena. Nozio hori anafora-kateen nozioarekin dago lotuta. Chastain-en (1975) eta Corblin-en (1995) harira, katearen osagaiak erreferente berdinera bidaltzen gaituzten elementuak dira. Erreferentzia-katea osatzen duten elementu horiek era askotakoak izan daitezke: izen-sitagmak, izenordainak, erakusleak, izendatze-paradigmak, baita asoziazio bidezko anaforak ere, predikatu eliptikoa baitute. Kate horietatik at geratuko lirateke *stricto sensu* tankerako anafora sortzen duen erreferentziakidetasuna eta anafora uztartuak. Kasu horietan alderdi linguistikoak soilik hartzen duelako parte interpretazioan, ez dago alderdi pragmatikoaren beharrik. Erreferentzia-katea osatzen duten elementuek propietate linguistikoak eta pragmatikoak dituzte. Elementu bat bere aurrekariarekin lotzen duen erlazioa linguistikoa da sintagma anaforikoa, berez, semantikoki osatu gabea delako eta bere esanahia har dezan beharrezkoa duelako testuinguru linguistikoko elementuren bat. Alderdi pragmatikoari esker (koherentzian oinarrituta) aukera dezakegu aurrekari egokiena. Dena den, Charaudeau-k eta Maingueneau-k (2002: 96) jasotzen duten bezala, diskurtsoaren analisiaren ikuspegitik ez da hitz egiten erreferentzia-kateei edo anafora-kateei buruz; ohikoago da izendatze-paradigmei buruz hitz egitea edo kohesioari buruz hitz egitea; hain zuzen, azken horren barruan izango dute beren lekua anaforek eta erreferentziakidetasun-fenomenoek. Horiek aztertuta diskurtsoaren topikalizazioaren berri izan dezakegu.

Puntu honetara iritsita, baina, ezinbestekoa da erreferentziakidetasuna aipatzea. Azken adibideetako erreferentziazko adierazpideen arteko harremanetan arreta jartzen badugu, haien arteko loturak erreferentziakidetasunean edo anaforetan oinarritutakoak izan daitezke. Baina, badago alderik nozio bien artean? Aurrerago ikusiko dugu, baina lehendabizi anafora eta katafora terminoei helduko diegu hurrengo atalean.

3. Anafora eta katafora

Etimologiara jotzen badugu anafora hitzak grekoan du jatorria; «atzera bidaltzen duena» adierazten du (Moliner, 1977). Anaforaren izaera dela-eta, egun, oro har onartuta dago anafora elementu bat edo kategoria bat baino zerbait gehiago dela. Arestian esan bezala, erreferentzia endoforikoarekin lotzen da anafora eta erreferentzia exoforikoarekin deixia. Hala eta guztiz ere, xehetasun ezberdinak agertzen dituzten interpretazioak aurkituko ditugu egileen artean. Aurrerago ekingo diogu berriz gaiari xehetasunetan sartzeko, baina aurrera dezagun atal honetan zenbait definizio.

Elementuen arteko erreferentziazko loturan oinarritzen da Maillard (1974) bere definizoa ematen duenean. Haren arabera, adierazpide bat anaforikoa izango da aurretik aipatutako enuntziatu bati erreferentzia egiten dionean. Horrela, edozein enuntziazio-segmentu anaforikoa izan daiteke, aurreko enuntziatua kontuan hartzen badu.

Kleiber-ek (1991: 8), memorian oinarritutako hurbilbidea hartuta, honela azaltzen du anaforaren eta deixiaren arteko ezberdintasuna: anaforaren kasuan erreferentea hizkuntza-testuinguruan (kotestuan[5]) bilatu behar da, zuzenean dela (aurreko elementura joaz), zeharka dela (anafora dibergentea); deixiaren kasuan, ordea, erreferentea enuntziazio-egoeran antzeman behar da, zuzenean (*in praesentia*) edo zeharka (*in absentia*).

Reichler-Béguelin-ek (1988) honela definitzen du anafora: enuntziatu zati bat, normalean izenordaina edo izen-sintagma definitu edo erakusleduna, bere interpretaziorako beharrezkoa duena aurretik agertu den elementu batera jotzea. Egile honek ordezkatze gisa ikusten du anafora, baina anaforak ordezkatze hutsa baino zeregin konplexuagoa duela kontuan hartuta, definizio edo ikuspegi horren desadostasuna agertzen du Kleiber-ek (1992). Izan ere, anaforaren zeregina ez da soilik aurrekaria ordezkatzea; Cornish-entzat (2009: 159), esate baterako, anafora-harremanen zeregina da enuntziatuen edukia eta balio diskurtsiboa egitura interpretatibo globalago batean txertatzea.

Anaforarentzat ebazpen kognitiboa proposatzen duen definiziorik ere badugu. Ehlich-en (1982) edo Prince-ren (1981) ikuspegitik, adibidez, anaforari buruz hitz egin daiteke erreferentea testuinguru linguistikotik (kotestutik) kanpo dagoenean eta solaskideentzat ezaguna denean, inferentziaz eskura baitaiteke. Diskurtsoaren

5. Kotestua: hizkuntzazko testuingurua. Kontestua: testuinguru fisikoa, hizkuntzaz kanpokoa.

unibertsoan erreferente berri bat sartzen denan deixiari buruz hitz egingo dute. Horren arabera, deiktikoa erreferente berria izango litzateke eta adierazpide anaforikoa nabarmentzen dena.

Dena dela, definizio horietan anafora ezkerreranzko erlazioa da, baina elementuen harremanaren noranzkoa eskumarantz ere izan daiteke adierazpide batek testuan geroxeago agertuko den segmentu bati erreferentzia egiten badio edo harekin lotura badu. Kasu horretan, kataforari buruz hitz egingo dugu.

Maillard-ek (1974) diafora terminoa hobesten du haren barruan anafora- zein katafora-fenomenoak sartzeko. Beste lan batean (1977: 22), hiru katafora sail bereizten ditu:

- Kognitiboak: izenordainak ondorengo elementuaren erreferentera jotzen du.
- Semantikoak: izenordainak ondorengo elementuaren esanahira bidaltzen gaitu.
- Semiotikoak: izenordainak ondorengo elementuaren adierazlea seinalatzen du. Azken multzo hauetakoen artean, gainera, metalinguistikoak (esanahikortasun batekin lotuak) eta metadiskurtsiboak (sekuentzia diskurtsiboekin lotuak) bereizten ditu.

Halliday eta Hasan-entzat (1976) katafora ondoren datorren kotestuaren aurresuposizio bat da, egiturazko harremanak dituena eskuman dagoen kotestuarekin; egileentzat katafora kohesibo horiek ez dira anaforak bezain ugariak eta ez lirateke ezinbestekoak izango testuak sortzeko orduan.

Kataforaren gaineko informazioa Perdicoyanni-Paléologou-k (2001) anafora, katafora eta deixiari eskaintzen dion lanean aurki daiteke zabalago eta sakonago azalduta. Gure helburua kontuan izanik, ezaugarritze orokor batera mugatuko gara Kesik-en definiziotik abiatuta. Honela dio:

> Relation non structurale d'une expression indexicale (à signifiant zéro éventuellement) avec le (une partie du) contexte linguistique subséquent, telle que ce contexte permet (et est nécessaire à) l'identification du référent de l'expression indexicale (Kesik, 1989: 56).

Kesik-ek bereizi egiten ditu esaldi barruko anafora, elementu biak esaldi berean daudenean, eta esaldiaren haraindiko katafora, gainontzeko kasuetan. Azken anafora mota horietan ohikoak lirateke izenordain neutroak eta izena buru duten izen-sintagmak.

Era berean, Kesik-ek katafora kognitibo eta katafora metalinguistikoei buruz hitz egiten du, lehendabizikoaren kasuan harremana zeharkakoa delarik eta bigarrenean zuzena delarik. Katafora kognitiboen kasuan, nolabaiteko harremana duten bi termino aurkitzea urrats erabakigarria da erreferentearen iturburuaren bilaketarako, hura baita azken batean, hirugarren elementura iristeko bidea.

Katafora metalinguistikoen kasuan, harremana duten bi terminoren aurkikuntza elementu kataforikoaren erreferentearen identifikazioarekin batera egiten da, oro har, ondoren datorren hizkuntza-entitatea izaten dena (Kesik, 1989: 43).

(21) Adibidez, horma urdin bat duen gela batean pilota bat bilatzerakoan, adin nagusikoak esaldi hau esan dezake berekiko: «Horma urdinaren ezkerreko izkinan dago pilota» [*Gogo basatiak: zer duten animaliek benetan buruan*, Marc D. Hauser / Irene Aldasoro (EHU-ZIO Bilduma, 2008), 143. or. (EPD)].

Horretaz gain, egile horrek bereizi egiten ditu katafora zentzu hertsian eta katafora zentzu zabalean. Lehendabizikoen kasuan jarraian datorren elementua ezinbestekoa da erreferentea identifikatzeko.

(22) Irratiak albiste kezkagarri baten berri eman du: «Brexit»aren aldekoek irabazi dute bozketan.

Zentzu zabalean ulertuz gero, era berean, bi kasu egongo lirateke:

a) Adierazpide bat korreferentziala da ondorengo kotestuarekin[6] (testuinguru linguistikoarekin), baina kotestu hori ez da ezinbestekoa haren interpretaziorako.

(23) Errekaren beste aldeko oihana beste hiru frantseseri emana diotet baliatzera. Hauek dira: René Etcheverry, Mathieu Indaburu eta Bernard Andre [*Galerna*, Piarres Trounday (Maiatz, 2012), 145. or. (EPD)].

b) Kotestuak izen-sintagma mugagabe zenbaiten hedapen moduan funtzionatzen duenean.

(24) Gure larre-belar batzuk, berriz, honako hauek dira: luzerna, sainfoin belarra, gaituna, larre-pleotza, raigrassa eta alka-belarra; hirusta gorria, zuria eta horia; soropila, belar urdina eta kukubelarra [*Virginiako Estatuari buruzko galderak*, Thomas Jefferson / Iñaki Iñurrieta (EHU, 2012), 33. or. (EPD)] (???).

Kesik-en aburuz, anafora eta katafora ez dira fenomeno simetrikoak, hizkuntzalari horrentzat bere enuntziazioaren unean katafora defektiboa da informazioaren planoan; anafora, ordea, defektiboa da hitz-egintzen planoan.

Hurrengo atalerako utziko dugu erreferentziakidetasunaren gaia, oro har, izenordainekin lotzen dena. Baina izenekin ere lot daiteke, eta orduan sortzen dira, hain zuzen, interpretazio ezberdinak aurrerago ikusiko den bezala.

6. Kesik-ek *kontestu* hitza erabiltzen du hemen nahiago dugun *kotestu* hitzaren zentzuan, hau da, testuinguru linguistikoa izendatzeko.

4. Izenordaina, erreferentziakidetasuna eta anafora

Izenordainen erreferentzia eta anaforikotasuna dugu hizpide atal honetan. Izenordain anaforikoei buruz hitz egiteko orduan, baina, ezinbestekoa da beste nozio batzuez ere aritzea, hala nola erreferentziaz, erreferentziakidetasunaz eta nozio horiei lotuta dauden beste termino batzuen erabileraz.

Kohesio-mekanismoetan badago elementuen artean ezartzen den lotura bat, oso ohikoa dena: erreferentziakidetasuna. Testuan zehar aurrekari batekin identitatezko lotura duten edo hari erreferentzia egiten dioten elementuak agertzen dira eta, sarritan, sareak osatzen dituzte testuaren edukia unean-unean gogoratzeko eta informazioak aurrera egin dezan laguntzeko. Gauzak horrela, maiz erreferentziakidetasunaren nozioa anaforaren nozioarekin batera agertzen da, baita harekin nahastuta ere.

Gaztelaniari dagokionez, *Nueva Gramática de la Lengua Española*k jasotzen duen azalpenari jarraikiz, erreferentziak identitatea eskatzen du bi adierazpideren artean, baina identitate hori erabatekoa edo partziala izan daiteke. Bigarren kasu horretan zentzuzko anafora izango litzateke.

Erreferentziakidetasunaren definizio tradizionalera jotzen baldin badugu, erreferente berberera bidaltzen duten bi hitz edo hitz segidek duten propietate gisa definituta aurkitzen dugu (Charaudeau eta Maingueneau, 2002: 147). Ikuspegi horretatik, erlazio anaforiko guztiak erreferentziakidetasunezkoak izango lirateke asoziaziozko anaforaren kasuan izan ezik.

Beaugrande-k (1984: 97), honela definitzen du erreferentziakidetasuna: «Relationship where different expressions activate the same world-text entity», baina ez du, ordea, anaforaz hitz egiten.

Milner-ek (1982: 32) anafora pronominalak eta nominalak bereizten ditu, eta haren esanetan, izenordainen kasuan bikote anaforikoa oso heterogeneoa da kategoriaren ikuspegitik; anaforizatua izena da eta anaforizatzailea, berriz, hirugarren pertsonako izenordaina; elementu bien arteko harremana, beraz, erreferentzia birtualaren bidez gauzatzen da, hau da, anaforizatutako izenaren bidez izenordainak bereganatzen duena. Ondorioz, izenordainen kasuan erreferentziakidetsuna eta anafora bat etorriko lirateke. Horrela, bada, lan askotan, erreferentziakidetasunari buruz hitz egiten denean izenordainei esleitzen zaie ezaugarri hori eta, horrenbestez, izenordain anaforikoez hitz egiten da.

Euskarari dagokionez, garrantzi berezia eman zaio izenordain anaforikoen funtzionamenduari eta sakon landua izan da hainbat lanetan (Morales, 1995; Zabala 1996; Garzia, 1997), hala eta guztiz ere, ezin dugu aipatu gabe utzi izenordain hauei buruzko zenbait zertzelada.

Moralesek (1995) euskarazko hirugarren pertsonaren erabilera du hizpide eta, bereziki, hirugarren pertsonako izenordain genitiboen berezitasunari buruzko gogoeta eta bihurkarien erabilerak sortzen dituen arazoei buruzko gogoeta ekartzen digu. Halaber, erabilerari buruzko proposamena egiten du.

Zabalak (1996) testuetan agertzen diren lotura tematikoak ditu hizpide eta, testu teknikoetan oinarrituta, erreferentzia- eta inferentzia-kateetan parte hartzen duten elementu zenbait aztertzen du. Bi kateren arteko ezberdintasuna hartzen du oinarri: erreferentziakidetasun-kateak eta inferentzia-kateak. Halaber, bi maila ezberdinetako kateak bereizen ditu erreferentziakidetasunaren barruan: perpaus bakunaren mailan gertatzen direnak eta perpausen edo esaldien arteko mailakoak. Perpaus bakunaren barruan kokatzen ditu izenordain elkarkari-bihurkarietan eta elementu isiletan oinarritutako erreferentziakidetasuna. Perpausen arteko erreferentziakidetasunaren barruan sartzen ditu elementu hauek: elementu isilak, errepikapenak, artikulu mugatudun izen-sintagmak (eta, oro har, deklinabide-marka mugatua dutenak).

Garziaren lanera (1997) jo behar dugu izenordain bihurkarien eta erakusleen anaforikotasunari buruzko xehetasunak aurkitzeko. Honela dio erakusleei buruz:

> Bada, hasteko, testura baino lehen ere, diskurtsoan (jardunean) beste funtzio bat ere badutela erakusle horiek berek, hatzaren laguntzarik gabe zerbait seinalatzeko. Esate baterako, diskurtso horretan erabili den erreferente bat errepikatzen dela adierazteko (hura osorik ez errepikatzeko, alegia, hura ordezteko): funtzio horri deritzo anafora, eta erakusleek diskurtsoan duten funtzio guztiz garrantzizkoa da anaforikoa (Garzia, 1997: 429).

Azalpen horren arabera, anafora erreferente baten errepikapenean datza, esan beharko genuke zehazkiago, testuan agertzen den elementu batek irudikatzen duen erreferentea testu berean aurrerago errepikatuta agertzen dela, ondorioz, erreferentziakidetasunaz hitz egin daiteke.

Bestalde, Garziak kanpoko erreferenteen anaforaz eta barne-anaforaz hitz egiten du eta hiru funtzio esleitzen dizkie erakusleei: a) deixi arrunta; b) (kanpoko) anafora; c) diskurtso (edo testu) barneko deixia (anafora diskurtsibo-testuala). Geroxeago, graduaren araberako espezializazioa aipatzen du erakusleen funtzio anaforiko-kataforikoari dagokionez:

> […] lehen gradua (hau), kataforetako (bi puntuen ondoko azalpena aurrez ordezten duena); bigarrena (hori), diskurtsoan aurreko zati bat seinalatu eta ordezteko (dikurtso barneko anafora), eta hirugarrena, berriz (hura), diskurtsoak adierazten duen munduko erreferente baten ordezkapenerako (kanpoko anafora, arrunta) (Garzia, 1997: 432).

Alberdik eta Sarasolak (2001: 271) elementu hauek kokatzen dituzte anaforen barruan: elkar; bata bestea; hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek; berau, berori, bera, berauek, beroriek, beraiek/berak/eurak; honenbeste, horrenbeste, hainbeste…; honen, horren, hain; hemen, hor, han, bertan. Oro har, erakusleen erabilera egokiaren eta desegokiaren gaineko iradokizunak ematen dituzte egileek.

Euskal Gramatikak izenordain anaforikoei buruz hitz egiten du, esate baterako, kasu hauetan:

(25) Gizon hark bere burua hil nahi izan zuen.

(26) Kargu egiozu zeure buruari, gizona!

(27) Gizakiok elkar maite dugu.

Lehenengo bi adibideetan *X-ren burua* formako izenordain erreferentziakidea dugu. Ez dago zalantarik (25) adibidean *bere burua*k *gizon hark* izen-sintagmari egiten diola erreferentzia. Bigarren adibidean (26) ere esaldia irakurtzen dugunean *zeure buruari* izen-sintagma *gizona* izen-sintagmarekin lotzen dugu identitate hori aurkitzen dugulako elementu bi horien artean. Eta hona hemen EGLU I-ek dioena:

> Perpaus baten barnean bi izen-sintagma erreferentzikideak direnean (hots: izaki bera aipatzen duten bi izen-sintagma ditugunean) bigarren izen-sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du (EGLU I, 1998: 62).

Ikusten dugu, beraz, nola definitzen duen Euskal Gramatikak erreferentziakidetasuna. Baina era berean, hauxe dio:

> […] bi izen-sintagma horiek [*bere burua*, *zure buruari*] nori dagozkion, edo nor aipatzen duten jakin nahi bada, derrigor atzera begiratu behar dugu perpausean eta sintagma horren aurrekoa, edo antezedentea, bilatu. Izen-sintagma bihurkari horien *aurrekoa* zein den garbi dago bi kasuetan: lehenbizikoan *gizon hark* eta bigarrenean *zuk* (EGLU I, 1998: 62).

Badirudi, hortaz, nolabaiteko ezaugarri anaforikoa aitortzen diola *X-ren burua* sintagmari, hau da, izen-sintagma bihurkari horrekin identitatezko erlazioa duen elementu bat bilatu behar dugula esaldian (edo testuan), aurretik aipatuta dagoen elementu bat (25) adibidearen kasuan eta isildua (eliptikoa) dagoen elementu bat, baina aditzetik inferitu dezakeguna (26) adibidearen kasuan.

Beste horrenbeste gertatzen zaigu *elkar* izenordainarekin. Hau ere anaforikoa da aurrekari bat behar duelako perpausean eta, era berean, erreferentziakidetasuna du aurrekari horrekin. (27) adibidean ikusten den bezala, *elkar* izenordainak *gizakiok* du aurrekari eta izen-sintagma biek identitatea dute, izaki berari egiten diote erreferentzia. Baina badu *elkar*-ek berezitasun bat: haren aurrekariak plurala izan behar duela derrigor, erreferitu bat baino gehiago biltzen dituela, alegia, izenordain horren esanahaia hau delako: «*batak bestea eta beste honek bat hura* edo antzeko zerbait» (EGLU I, 1998: 64).

Genitiboan erabiltzen diren izenordainek ere balio bihurkaria har dezakete: «Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada *nor, nori* edo *nork* sintagma bezala» (EGLU I, 1998: 88).

(28) Ni neure etxera joango naiz eta zu zeurera.

Horrela, goiko adibidean *neure* izenordaina genitiboa eta indartua izateaz gain bihurkaria ere bada *ni* eta *zu* izenordainak *nor* sintagma bezala aipatzen direlako perpausean. Hau da, *neure* eta *zeure* izenordainen aurrekariak *ni* eta *zu* direlako hurrenez hurren.

Jar dezagun arreta orain hirugarren pertsonako izenordainen erabileran:

(29) (a) Andoni bere etxera eraman nuen.

(b) Andonik bere etxera eraman ninduen.

(c) Andoniri (bere) etxea erosi nion.

Adibide horietan *bere* bihurkaria da aipatzen duen pertsona aurretik aipatuta agertzen delako perpausean, «nor» formarekin (29a) adibidean, «nork» gisa (29b)n eta «nori» gisa (29c) perpauaren kasuan. Genitiboan, gainera, ezinbestean agertu behar da *bere* alboan jarraian agertzen den elementuari lotuta (*bere etxera*, *bere etxea*), edo elementu hori ordezkatuko duen artikuluari lotuta (*berea*):

(30) Andonik nire etxea erosi zuen eta nik berea erosi nion.

Bere izenordaina erreferentziakidea izango genuke *Andoni*rekin; gainera, *bere* izenordainak esanahia hartu behar badu, ezinbestean behar du aurrekari bat, bitartean esanahiz osatugabea izango delako. Eta behin horrela osatuta, anaforikoa ere izango da.

Baina are gehiago, *bera* baldin bada agertzen zaigun izen-sintagma, anaforikotasuna bikoitza izango da: alde batetik *bere* izenordainaren eta *Andoni* izenaren arteko loturaren bitartez bereganatzen duena, eta, beste alde batetik, *-a* artikuluaren bitartez bereganatzen duena, *-a* artikuluaren aurrekaria isildua agertzen den *etxea* delako.

Hala eta guztiz ere, (29) adibidean zalantzazkoa izan daiteke *Andoni* eta *bere* elementuen arteko erreferentziakidetasuna. Anbiguotasun hori *haren* erabilita apurtuko genuke:

(31) (a) Andoni haren etxera eraman nuen.

(b) Andonik haren etxera eraman ninduen.

(c) Andoniri haren etxea erosi nion.

Perpaus horietan ez dago erreferentziakidetasunik perpausean agertzen diren *Andoni* eta *haren* elementuen artean; *haren* izenordainak perpausatik kanpo bilatu behar du bere erreferentziakidea. Baina esanahiaren aldetik perpaus hori ondo eratuta baldin badago ere, ez du zentzu osorik; gure hiztun-senak esaten digu zerbait falta dela, hau da, kotestu edo testu zati luzeago batean txertatuta egon behar duela eta, horrenbestez, interpretazio anaforiko bat izan dezakeela, baita erreferentziakidetasunezkoa ere, edo bestela, ahoz hitz egiten ari garela eta haren izenordainak testuinguru fisikoan dagoen norbait seinalatzen duela, eta horra hor, orduan, bere deiktikotasuna.

Bestalde, EGLU I-i jarraituta, *bere* izenordainak izan dezake erabilera ez bihurkaria; horrek esan nahi du ez dela beti izenordain indartu gisa erabiltzen, zenbait lekutan *haren* ordez *bere* erabiltzen baita eta orduan, diskurtsiboki argitzen da erreferentzia:

(32) Miren eta bere lagunak etorri zaizkigu etxera.

(33) Ezagutzen al duzu Peru Arrieta? Bai horixe! Sarritan izan nahiz bere etxean.

(34) Ander arineketan irten zen etxetik lanera joateko. (Hark) ez zuen berandu iritsi nahi.

(35) Aita iritsi zenean argitu zigun dena. Berak utzi zuen mezua erantzungailuan.

Nolanahi ere, badago ezaugarri bat izenordain bihurkari horiek guztiek partekatzen dutena: ez dira beregainak; ez dira elementu askeak beti agertzen direlako perpausean dagoen beste elementu bati lotuta, aurrekari bat behar dute txertatuta dauden perpausean eta, gainera, erreferentziakidetasuna dute harekin. Uztartuak esaten zaie. Alde horretatik, beraz, horrelako izenordain baten eta haren aurrekariaren artean dagoen anafora-harremana perpausaren esparrura mugatzen da eta gramatikalki gauzatzen da sintaxiaren eta lotura semantikoen bitartez.

Beste sail batekoak dira, ordea, hirugarren pertsonako izenordainak, baita horien ordez ager daitekeen *bera* izenordaina ere. Kasu horietan erreferentzia partekatzen duten elementuak ez daude perpaus berean. Horrek ez du esan nahi, baina, elementu horien artean harreman anaforikorik edo erreferentziakidetasunezkorik ez dagoenik.

Ikus dezagun, esate baterako, hurrengo adibide hau:

(36) Ozono geruza oso garrantzitsua da lurraren bizitzarako. Bera/hura da erradiakzio kaltegarrietatik babesten gaituen filtro naturala.

Enuntziatu horretan agertzen den *hura* (*bera*) izenordainak badu aurrekari bat, baina aurreko esaldian dago: *ozono geruza*. Era berean, *ozono geruza* eta *hura (bera)* erreferentziakideak dira entitate berdinarekin identifikatzen direlako. Kasu horretan izenordain anaforikoa semantikoki osatu gabe dago aurrekari duen izen-

sintagmarekin harremanetan jarri arte. Baina irizpide pragmatikoa ere behar dugu aurrekari horrekin lot dezagun eta ez beste batekin.

Gorago (32-35 adibideak) ikusi ditugun izenordainen kasuan anafora uztartuei buruz hitz egiten bagenuen, azken adibidekoei (36) (*bera, hura*) anafora askeak esaten zaie. Hala eta guztiz ere, aurreko lan batean aipatzen zen bezala (Ceberio *et al.,* 2008) uztartu/aske bereizketa horren balioa, Kempson-ek (1986) esaten zuen bezala, mugatua da kasu batean zein bestean agertzen delako izaera pragmatiko bera. Argumentazio horren alde egitera eramaten gaitu Thatcher-en (1999) lanean aurkitzen dugun azalpenak ere non, Moirand (1990) ikusmiran hartuta, erreferentzia-sistema bikoitzari buruz hitz egiten duen.

Arestian ikusi dugu izenordain anaforikoen kasuan beti dagoela erreferentziakidetasuna. Gorago azaldu dugun moduan, hirugarren pertsonako izenordainak eta erakusleak dira anafora-harremanetan nagusiki agertuko direnak. Lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainak oso erabilera jakinetan interpreta daitezke anaforiko moduan. Badaude beste izenordain batzuk sarri agertzen direnak eta kontuan hartu beharko ditugunak aurrekaria bere osotasunean berrartzen ez badute ere: *batzuk*, *beste batzuk* eta abar. Adibidez:

(37) Astean behin Urbieta kaleko Aurrera jatetxearen azpialdean biltzen ginen, eta bi gauza egiten genituen: batetik, Axular irakurri eta konstanteren bat harrapatzen genuen bakoitzean, azpimarratu eta elkarrekin partekatu; eta bestetik, jakintza interesen arabera azpitaldeak osatu ziren: batzuk ekonomia, beste batzuk literatura, eta abar lantzeko [*Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Ana Urkiza (Alberdania, 2006), 26. or. (EPD)].

Gauzak horrela, hainbat ondorio atera daiteke orain arte ikusitakotik:

a) Erreferentziari buruz hitz egiteko orduan hirugarren pertsonako izenordainei eta erakusleei aitortzen zaie, oro har, anaforikotasuna. Hala eta guztiz ere, badago salbuespen bat beste lan batzuetan ikusi dugun bezala (Garcia Azkoaga, 2004; Garcia Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009), litekeena da lehenengo edo bigarren pertsonako izenordainak diskurtso edo testu idatzi baten barruan txertatuta dagoen solasaldi batean agertzea eta, horrenbestez, beren erreferenteak testuan bertan bilatu behar izatea eta ez testutik kanpo.

b) Oro har, erreferentearekin harremanetan jartzeko edo lotzeko moduaren arabera, erreferentzia exoforikoari eta erreferentzia endoforikoari buruz hitz egin dezakegu. Lehendabizikoaren kasuan, elementu batek mintzaira-jarduera gertatzen ari den testuinguru fisikoan dagoen entitate bat seinalatzen du eta deixiari buruz hitz egingo dugu orduan; bigarren kasuan, berriz, elementu bat testuan aurretik aipatu den beste elementu batekin jartzen da harremanetan eta anaforari edo kataforari buruz hitz egingo dugu halakoetan (Halliday eta Hasan, 1976). Hortaz, erakuslearen funtzio nagusiak deiktikotasuna eta anaforikotasuna lirateke. Nolanahi ere, egia da

zenbait egilek, Maingueneau (1987) kasu, bi deixi motari buruz hitz egiten dutela: deixi anaforikoa (edo testu barneko deixia), non testuingurua testua bera den, eta egoerazko deixia, non testuingurua solaskideen inguru fisikoa den.

c) Izenordainen kasuan erreferentzia endoforikoa gramatikalki gauzatzen da, ez dute erreferente jakin bat. Izenordain anaforikoek ez dute esanahi propiorik, semantikoki osatu gabeak dira; aurrekaritik hartzen dute esanahiari eta numeroari dagokien ezaugarria. Sintaktikoki izen-sintagma batek hartzen dituen funtzioak beregana ditzakete. Semantikoki, zentzuaren bidez lotzen dira erreferente batekin. Zenbaitetan, gainera, diskurtsiboki ere interpretatu behar dira gramatikalki hartzen duten esanahiari zentzua emateko.

d) Harremana exoforikoa denean izenordainak testuinguru fisikoan dagoen objektu bati egiten dio erreferentzia eta deixiari buruz hitz egingo dugu, zehazkiago, pertsonaren deixiari buruz, edo izenordain deiktikoei buruz. Horretaz gain, espaziozko eta denborazko deiktikoak ere izango genituzke. Euskararen kasuan, gainera, erakusleengandik eratorritako adberbio espazialak izango genituzke, erakusleak bezala, funtzio deiktikoarekin (exoforikoa) zein anaforikoarekin ager daitezkeenak: *hemen*, *han*, *hor*, *orain*, *lehen*, *atzo*…

e) Harremana endoforikoa denean, berriz, izenordainak (edo bigarren posizio horretan ager daitekeen beste elementuren bat) testuan dagoeneko agertu den aurrekari batekin jartzen dira harremanetan eta anaforikoak direla esango dugu. Gainera, testuinguru fisikoan dagoen elementu bati erreferentziarik egiten ez badio, hau da, deiktikoa ez bada, izenordaina beti da anaforizatzailea, ezin da izan elementu anaforizatua edo aurrekaria. Horrek ez du esan nahi, ordea, harremana beti zentzu batean gertatzen denik eta anaforizatzaileak beti bigarren posizioan agertu behar duenik, harremana kataforikoa ere izan baitaiteke. Nolanahi ere, harreman anaforiko edo kataforiko horren ezaugarri bat trantsitibotasun eza da. Gogoratu, halere, gorago aipatu den deixien izaera ezberdina erakusleei buruz hitz egin denean.

Ohar gaitezen, dena den, izenordainek gehienetan izen bat edo izen-sintagma bat berreskuratzen duten arren, erakusleek zati luzeagoak ere aktualiza ditzaketela: izen-sintagma bat, esaldi bat edo baita enuntziatu oso bat ere, hurrengo atalean azalduko den bezala.

5. Erakusleen anaforikotasuna

Erakusleei dagokienez, anaforikoak zein kataforikoak diren neurrian, erakusten dituzten ezaugarri batzuk ekarriko ditugu hona jarraian. Oro har, dagoeneko aurreko hizkuntza-testuinguruan (kotestuan) agertu den aurrekari bat berrartzeko edo ondorengo hizkuntza-testuinguruan zehaztuta agertuko den elementu anaforizatuarekiko erreferentzia identifikatzeko erabiltzen dira, baina aurrekariaren edo anaforizatutakoaren izaera ezberdina izan daiteke eta horren arabera zenbait erabilera bereiz daiteke:

a) Erakusleak aurretik agertu den izen bat (diskurtso-objektua dena) anaforizatzen du:

(38) Eskolak alfabetatzearen kontuan erantzukizun osoa du. Hura da etorkizunerako zutabe bat.

b) Erakusleak aurreko enuntziatu osoa berreskuratzen du:

(39) Ernesto Villegasek uste du Chavezen ondoren «Chavez gehiago» egongo dela, eta herritarrek hori «oso argi» daukatela (BERRIA, 2013-03-08, Venezuela. Hugo Chavezen heriotza. Etorkizuna «Chavez gehiago» izango dela agindu dute Caracasen).

(40) Arbaso bat ere ez zen behar baino lehen hil —zapaldua, irentsia, itoa, goseak, trabatua—, ez zuten garai txarrean zauritu, eta ez zuten beste inola desbideratu bere biziko helburua betetzetik: bikotekide egokiari une egokian material genetiko pixka bat ematea, herentzia-konbinazio bakar baten ondorioz, azkenean, —halabeharrez, ezustean eta denbora laburregirako— zu zeu sortzeko. Liburu honetan, hori nola gertatu zen azaltzen da: deus ere ez izatetik zerbait izatera nola pasatu ginen […] [*Ia denaren historia labur bat*, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009), 17. or.].

Adibide horietan *hori* erakusleak hiperonimo neutro baten moduan funtzionatzen du. Diskurtsoaren objektua testuan aktualizatzeko anaforikoki berrartzen du aurretik esaten dena, baina ez dio izenik ematen azaltzen duen gertakizunari; besterik gabe, erakuslearekin modu labur eta generikoan biltzen du esandakoa.

c) Erakusleak, aurreko enuntziatu zati bat berreskuratzen du:

(41) Oso argala zen, hezurdura sendokoa, garaiera ertainekoa, esku indartsuak zituen, masailezur zabala, begiak zein ilea beltzak eta begirada deigarriro bizia. Hori berehalakoan egiaztatu nuen […] (Maru Rizoren ikuspuntua, BERRIA, 2013-03-07, «Artea, nonahitik noranahi»).

Goiko adibidean, esate baterako, kualitate batzuk objektiboak dira eta agerikoak direnez ez dago egiaztatu beharrik, bai, ordea, kualitate subjektiboak, horregatik, *hori* erakuslea txertatuta dagoen predikatuak laguntzen digu aurrekaria identifikatzen, gainera ezaugarri hori singularra izateak ere erakuslearekin lotzera garamatza. Hurrengo adibidean ere *hori* erakusleak aurreko zati bat berreskuratzen duela badakigun arren, zati hori nondik nora hedatzen den jakiteko *hori egiten jarraitu behar dugu* enuntziatura jo behar dugu, horrek erakusten baitigu jarraitu behar den arrastoa: zer da egiten jarraitu nahi dugun hori? Eta aukera bakarra: *zerbitzu publiko bat eskaini*:

(42) Euskalgintzako erakundeak herritik sortu eta aberasteko asmorik gabeko erakundeak gara, herri honi zerbitzu publiko bat eskaintzen diogu, lehentasunezkoa eta estrategikoa, eta hori egiten jarraitu nahi dugu, gainera gaur egun ditugun langileekin, guztiekin (BERRIA, 2013-03-09, Eusko Jaurlaritzaren murrizketak (III), «Gorriak ez, beltzak dira marrak», Koldo Tellitu).

Gauza bera gertatzen da beste adibide honetan ere:

(43) Mendekotasun Legearen harira, Espainiako Gobernuak atzerapausoak egin ditu, baina aldundiek eutsi egin diete konpromisoei. Horrek ez du esan nahi gauzak guztiz ondo egiten ari direnik (BERRIA, 2013-03-09, Iñigo Lamarca. EAEko arartekoa).

d) Solas batean, solaskideak esan duenari jarraibidea emateko; erakusleak topikoa aktualizatzen du hitz-txanda berria hartu duenaren diskurtsoan:

(44) —Juan Diegoren auziak nola eragingo dio EITBko irudiari? —Oraintxe bertan hartu dut kargua, eta horri buruz ezin dut adierazpenik egin (BERRIA, 2013-03-09, Komunikazioa. Maite Iturbe, EITBko zuzendari nagusia. «ETB1eko programazioa normalizatu nahi dugu»).

Adibideetan ikusten den bezala, erakusleak, beste izenordainek ez bezala, elementu bakarra, enuntziatu zati bat edo enuntziatu osoak berreskura ditzake. Topikoari eusteko modu erraza baina eraginkorra da. Oso balio generikoa hartzen du; ondorioz, haren erabilerarekin saihestu egin daiteke kontzeptualizazioak eta balorazioak agerian jartzen dituen lexikoaren erabilera; alde horretatik oso baliagarria da enuntziatuarekiko neutrotasuna erakusteko edo distantzia bat mantentzeko, baita

lexikoaren gabeziak ordezkatzeko ere, kotestuaren ekarpena kontzeptu batean biltzeak lexiko aberatsaren jabe izatea eskatzen baitio hiztunari. Neurri batean, beraz, adierazpide anaforiko hau balio urrikoa eta inespezifikokoa dela esan daiteke. Nolanahi ere, duen balio generikoa dela-eta, hizkuntzalari batzuek hiperonimotzat jotzen dute eta anafora kontzeptualen artean kokatzen dute (Descombes-Dénervaud eta Jespersen, 1992). Azken batean, haien balio generikoa dela-eta, aurreko enuntziatu bat era neutroan laburbiltzeko ahalmena dute.

e) Erakusleak ondoren datorren izen bat edo enuntziatu bat kataforizatzen du:

(45) Hauek dira helburuak: Zeraingo meategien ingurua berritu, Villabonan parke berri bat sortu eta Legazpiko Urdatza parkearen sarrera hobetuko dituzte (Basoa Fundazioak zuhaitzak landatuko ditu Zerain, Legazpi eta Villabonan. Sinadurarik gabe, 2004-05-19).

(46) Arbaso bat ere ez zen behar baino lehen hil —zapaldua, irentsia, itoa, goseak, trabatua—, ez zuten garai txarrean zauritu, eta ez zuten beste inola desbideratu bere biziko helburua betetzetik: bikotekide egokiari une egokian material genetiko pixka bat ematea, herentzia-konbinazio bakar baten ondorioz, azkenean, —halabeharrez, ezustean eta denbora laburregirako— zu zeu sortzeko. Liburu honetan, hori nola gertatu zen azaltzen da: deus ere ez izatetik zerbait izatera nola pasatu ginen […] [*Ia denaren historia labur bat*, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009), 17. or.].

Nolanahi ere, kataforikotasunaren gai honetaz hurrengo puntu batean arituko gara zabalago.

f) Erakusleak irudikapen-estrategia gisa erabil daitezke:

(47) […] gizon bat / aizkora batekin […] zuk ja! harrizko aizkora horrekin ez duzu gauza handik egingo / baina honekin (> igitaia) bai posible da lana egitea / […] gure gizona: (igitaiaren mugimendua egingo du) rist rast rist rast / horrela egiten du / igitaiak / eta horrela egin du […] (DG).

Erabilera honetan erakusleak deixi hutsa baino gehiago dira, mintzaira-jardueraren (kasu honetan narrazioaren) testuinguru birtuala irudikatzen laguntzen dute, eta interakzioaren elementu bat seinalatzen duten neurrian anaforikotzat har ditzakegu (Garcia Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009). Azken batean, aurrera egin ahala, diskurtsoak berak eraikitzen du enuntziazioaren agertokia.

g) Erakuslea hitza aipatzea saihesteko erabil daiteke:

«Gauza» hitzari buruz hitz egiten duenean Larringanek (2006: 20) dio tabu diren hitzen ordez erabiltzen dela sarri, beldur diogulako izenari. Horren adibide dugu hau:

(48) Alzheimerrak jota dago […] «65 urte zeuzkan. Ohartu nintzen gauza batzuk gaizki zihoazela, oso nabarmen: nola ez, Internetera jo nuen, eta espantu handiarekin ohartu nintzen beste erremediorik ez zegoela, sintoma horiek horrenak zirela» (BERRIA, 2006-08-24).

Horrenak erakuslearen agerpena itxuraz bakarrik izan daiteke neutroa, konpromiso enuntziatibo handirik gabe aurretik esandakoari erreferentzia egiteko modua. Haren erabilera gramatikalki azal daiteke, semantikaren aldetik aurrekari baten bidez bereganatzen du esanahia, baina pragmatikoki aurrekariaren bidez interpretatu ahal bada ere, beste irakurketa bat egin daiteke: gaitz horrek espantua sortzen du eta, espantu horrek, izena erabiltzeko izua sortzen du; esatariak saihestu egiten du gaixotasun hitza erabiltzea zein gaixotasunaren hitza erabiltzea.

5.1. ERABILERA BIKOITZEKO ERAKUSLEAK

Testuaren konexioaren esparruan kokatzen diren zenbait elementuk funtzio bikoitza izan dezakete eta, ondorioz, kohesioaren esparrukoak diren funtzioak ere beregana ditzakete. Bi esparru horien arteko ezberdintasuna erakusteari eskainiko dizkiot hurrengo lerroak eta, horretarako, maiz erabiltzen diren *horregatik* eta *hortaz* hartuko ditut adibide.

EGLU III-ra (1990: 25) jotzen baldin badugu, lokailuen artean sailkatuta agertzen dira *horregatik* eta *hortaz*, baina era berean, erakusleen sailarekin duten lotura aipatzen da, nahiz eta adberbio-esapide izendapena hobesten den. Ondoriozko lokailuen artean kokatzen dira, oro har, ondorioa adierazteko erabiltzen direlako, baina aurkaritza adierazteko funtzioa ere aitortzen zaie, nahiz eta hemen, adibide gisa, lehendabiziko kasuan bakarrik jarriko dugun arreta.

Oinarrian erakusle bat duten formak izanik erakusleen propietate anaforikoak gordetzen dituzte, horregatik, testuan aurretik aipatu den zerbaiti egiten diote erreferentzia. Erabilera kohesiboan bigarren perpausean txertatuta agertzen dira eta haren aditz-sintagmaren osagai izan daitezke:

(49) […] Leon ez da aise haserretzen den gizona, baina haserretu da, eta lagunek badakite harena ez dela motibo txiki ezdeus bat… horregatik isildu dira, harik eta, hamar bat segundoren buruan, Saturrek erran duen arte […] [*Ur arreak, ur garbiak*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2011), 60. or.].

(50) Esan egia; zera horiek min egiten dizute, hasieratik bertatik zin egingo nukeen. —Zer zerak? —Zure bota eder horiek. Ez dira ibilaldi hauetarako, teniente adiskidea. Esan egia: min egiten dizute. —Traba egiten didate —aitortu zuen Angustinak, mespretxuzko doinuz, hortaz hitz egitea gogaikarri gertatzen zitzaiola adierazteko [*Tartarriarren basamortua*, Dino Buzzati / Josu Zabaleta (Alberdania-Elkar, 2010), 140. or.].

Lehendabiziko adibidean kasu motibatiboan deklinatuta dagoen erakusle bat dugu (*horregatik*) eta, gainontzeko erakusleek bezala, bere propietate anaforikoa gordetzen du. Bigarren perpausean agertzen den predikazioa bere osotasunean ulertzeko *horregatik* anaforikoki interpretatu behar dugu bere sorbururaino iristeko, testuan aurretik esan den zerbait bilatu behar dugu. *Horregatik* erakusleak arrazoiari egiten dio erreferentzia eta arrazoia aurreko enuntziatuan agertzen da. Bigarren adibidean *hortaz* instrumentalaren kasu-markarekin osatutako erakuslea dugu eta anafora bezala funtzionatzen du: Agustinari zertaz hitz egitea ez zaion gustatzen jakiteko, testuan aurretik agertu den enuntziatu batean esan dena bilatu behar dugu. Kasu batean zein bestean anaforizatzaileek testu barneko deixi baten bidez seinalatzen dute aurrekaria edo anaforizatutako zatia. Topikoa edo diskurtsoaren objektua testuan eguneratzeko balio dute eta, gorago ikusitako erakusleek bezala, hauek ere balio laburbiltzailea dute, ez dute informazio berririk eransten, baina eraginkorrak dira topikoari eusteko eta, alde horretatik, testuaren kohesioan eragiten dute, proposizio-egituretako osagaien kateatzea eta sareratzea bideratzen baitute.

Bestelakoak dira beheko adibideak. Oraingoan, ondoriozko lokailu moduan funtzionatzen baitute:

(51) Urak ukitzen duenean, ez daukanez inolako pororik irekita, trinko-trinkoa izaten da eta ezin izaten du bere baitan likidorik hartu; horregatik, urari ihes eginez eutsi nahi izaten dio, eta bihurritu egiten da, haritzarekin egindako lan guztia zartatuz [EPG: *Arkitekturaz hamar liburuak*, Vitruvio / Santiago Iruretagoiena (Klasikoak, 2000), 1.330. or.].

(52) Alabaina, irakurtzen hasi, eta hitzak iragazi egiten zitzaizkion, eta pentsatu zuen: «Ordu gutxi barru, han izango duk Beatty, eta han izango nauk ni hari hau ematen. Esaldi batek ere ezin zidak ihes egin, hortaz, lerro guztiak ikasi behar ditiat buruz» [*Farenheit*, Ray Bradbury / Nagore Tolosa (Txalaparta, 2010), 119. or.].

Adibide horietan *horregatik, hortaz* adierazpideek ondorioa adierazten dute, hau da, bigarren proposizioan adierazten dena lehenengo proposizioaren ondorio edo emaitza moduan ulertu behar dela. Bi proposizioen arteko harremana nolakoa den erakusten dute. Lokailu diren aldetik, jokaera askea dute eta proposizioetatik kanpo geratzen dira. Bideratzen den harremana konexioaren sailekoa da, besteak beste, *horregatik* eta *hortaz* elementuek konexio-mekanismoen ezaugarriak dituztelako: proposizio-egituren kateamendua ziurtatzen dute, proposizio-egituratik kanpo geratzen dira, proposizio-egiturek elkarrekiko duten harremana adierazten dute, ez dagokie komunztadura markarik eta ezin zaie beste deklinabide-markarik jarri (Larringan, 1998: 84). Hala eta guztiz ere, *horregatik*, *hortaz*, beren balio anaforikoa gordetzen duten neurrian, ondoren esaten dena aurretik ere esana dagoela edo irakurlearentzat ezaguna dela adierazten dute (Larringan, 1996: 206) eta, horrenbestez, hartzaileak ahalegin handiegirik gabe lot ditzake proposizio biak. Hori

dela-eta, *horregatik* bezalako esapide batek, predikaziotik kanpo geratzen den arren eta konexioaren ezaugarriak erakusten dituen arren, balio tematizatzaile handia izan dezake topikoa zentratzen lagun dezakeelako. Gauza bera gertatzen da beste testu-antolatzaile batzuekin ere, adibidez, «-i dagokionez» adierazpidearekin, konexio-mekanismoa izan arren, balio tematizatzailea du eta, horrenbestez, kohesioarekin ere partekatzen du eremua. Nolanahi ere, konexio-mekanismo zenbaitek kohesioaren eremua partekatzen duen arren, anafora moduko kohesio-mekanismoek ez dute aldiberekotasun hori partekatzen.

6. Leku- eta denbora-adberbioak, erreferentziakidetasuna eta anafora

Arestian esan dudan bezala, deiktikoen artean izenordainez gain lekuzko eta denborazko adberbioak ere baditugu: *hemen, hor, han, orain, gero, atzo*… Testuinguru fisikoarekiko erreferentzia adierazten dute. Baina anaforikoki ere lot daitezke beren erreferentearekin. Enuntziazioaren ikuspegitik (Benveniste 1966, 1974), hiztunak bere erreferentzia-eremuen arabera antolatzen du diskurtsoa eta hor kokatzen dira komunikazio-ekintzaren interpretaziorako oinarri diren pertsona, espazio eta denborazko deixiak, hau da, parte-hartzaileak dauden eta komunikazioa gertatzen ari den unea eta denbora seinalatzeko erabiltzen diren elementuak. Egile batzuek testu-deixiari buruz hitz egiten dute elementu adberbial batek testuaren une bat seinalatzen duen kasuetan, adibidez: *gorago, aurrean, goiko atalean, hurrengo lerroetan, beherago*… Kasu horietan erreferentzia-puntua ez da enuntziazioaren lekua, baizik eta deiktikoa agertzen den testuaren unea. Maingueneau-ren (1998, 2004) iritzian, ordea, kontuan hartu behar da diskurtsoak berak eraikitzen duen egoera eta egoera horretan nola enuntziatu nahi den enuntziazioaren eszena edo agertokia. Alde batetik, beraz, komunikazio-egoera gauzatzen den testuinguru fisikoa (helburua, parte-hartzaileen estatusa, egokitzapena, denboratasuna, euskarria, testuaren plana, hizkuntzaren erabilera jakin bat) genuke, eta, bestetik, enuntziazioaren eszena (Maingueneau, 2004). Diskurtsoak definitzen duen agertoki horretan gauzatzen da enuntziazioa, baina era berean, diskurtsoa bera eraikitzen doan heinean, enuntziazio-espazio propioa sortzen da.

Praktikan testuen eta diskurtsoen funtzionamendua konplexua baldin bada eta, batez ere ahozko hizkuntzan, oso erabilera bereziak agertzen badira ere (Garcia Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009), oro har, hizkuntzazko testuingurutik kanpo dagoena edo hizkuntzazko testuinguruaren barruan dagoena seinala daiteke deixiaren bidez. Bigarren multzo horretakoak dira hizkuntza-kotestuan dagoen aurrekariaren bidez interpretatu behar direnak, esate baterako: *hor, han, bertan, barruan, kanpoan, erdian, orduan*… Lekuzko adberbio horiek deiktikoki funtzionatuko dute testuinguru fisikoan dagoen zerbait seinalatzeko erabiltzen direnean, baina adierazten duten leku hori kotestuan aurretik aipatu den elementuren baten bidez egin behar denean interpretazioa anaforikoa izango da.

Ikuspegi horretatik denboraren eta espazioaren erreferentziak enuntziazio-egoeraren osagaiak dira eta, diskurtsoan topikoa eguneratzeko balio dutenez, testuaren kohesioan eragiten duen faktoreak dira; izan ere, anaforikoki berreskura dezakete testuan aurretik aipatu den diskurtsoko objektu bat. Hori gertatzen da, esate baterako, *hor*, *han* leku-aditzondoekin, eta beste zenbait aditzondorekin eta guztien forma deklinatuekin, besteak beste: *bertan, barruan, kanpoan, erdian*… Zabalak (1996: 39) aipatzen duen *bertan* leku-aditzondoaren erabilera anaforikoari, beraz, beste aditzondo zenbaitena ere gehitu beharko genioke.

Beheko testuan ditugun *handik* eta *han* aditzondoek aurretik aipatu den leku-espazio bati egiten diote erreferentzia, hurrenez hurren: «*1998ko hauteskundeetan […] handik*», «*Kuba […] han*»).

(53) Chavezi presidentetza eskuratzeko balio izan zioten 1998ko hauteskundeetan, haren aldeko kanpainan aritu zen Maduro; handik urtebetera, konstituzioa berritzeko batzorderako diputatu aukeratu zuten, eta hurrengo urtean, Asanblea Nazionaleko kide. 2006ra arte parlamentari izan zen —tartean, legebiltzarreko presidente—, harik eta Chavezek bere kabineteko Atzerri ministro izendatu zuen arte. Kanpo politikan, ildo chavistari eutsi zion: Txinarekin eta Errusiarekin harremana sendotu zuen, eta Kolonbiarekikoa ere nabarmen goxatu zuen Juan Manuel Santos agintera iritsi ostetik. Kubarekin lotura handia zuen lehendik ere, han jaso baitzuen sindikalismorako prestakuntza (BERRIA, 2013-03-08, Venezuela. Hugo Chavezen heriotza. Soslaia. Nicolas Maduro, Chavezen zapatak jantzita, SAMARA VELTE).

Hurrengo adibideetan ere *barruan*, *bertan* leku-aditzondoek anaforikoki interpretatu behar dira; haien erreferentea zein den jakiteko testuan duen aurrekaria bilatu behar da («*treska […] barruan*»; «*kantxa […] bertan*»).

(54) Merkatariak treska hartu, eta eraman du gurdian, barruan nor doan jakiteke [*Zazpi orduak*, Miren Agur Meabe (Elkar, 2010), 87. or. (EPD)].

(55) Oso kantxa zaila dute, inork ez du bertan garaipenik lortu [«Jokalariena da meritua, baina ezkutukook ere taldekideak gara», Jon Rejado, 2004-03-04 (EPG)].

Bestalde, oso ohikoak dira aditzondoen konbinazioak; sarritan agertzen dira honelako konbinazioak: *han goian, hantxe bertan, han erdian* eta abar:

(56) Obrekin, AHT abiadura handiko trena hartzeko prestatuko da Donostia, eta autobusentzat ere geltoki bat egingo dute. Hantxe bertan, aparkaleku bat egingo dute, hiru solairu izango dituena (Izenbururik gabe, sinadurarik gabe, 2008-01-17).

Eskura dauden corpusetan *hemen, hor* bezalako adberbioen bilaketa bat eginez gero, ez dira hain erraz aurkitzen aditzondo horiek anaforikoki erabiltzen diren adibideak. *Hemen, hor* aditzondoek ez dute betetzen *han* aditzondoak betetzen duen lekua. Hala eta guztiz ere, erabilerari erreparatuz gero eta adibideen argitara, ezin dugu esan *hemen, hor* aditzondoen funtzioa deiktiko hutsa denik. Ikus dezagun bestela hurrengo adibidea:

(57) Izena ezabatua, urratua, kendua, galarazia izan bedi. Horixe da gaur esatera etorri naizena. Ezabaketa eguna edo astea edo… egin dute joan den egun hauetako batean euskaltzale militante batzuek. Hemen esaten ari garen ezabaketa mendeetako izen-pilatzeari kontra egitekoa izango litzateke, eta «ezabaketa mendea» beharko genuke gutxienaz [*Nere gorringotik*, Iñaki Segurola (Alberdania, 2008), 29. or. (EPD)].

(58) *Hor* dago koxka.

Hemen, hor adibide horietan testu barneko erreferentzia da, testuan aurretik esan den zerbaitekin harremanetan jartzen gaitu, baina ez halabeharrez elementu bakar batekin, enuntziatu bat izan daiteke horren aurrekaria, baita testua bere osotasunean ere. Alde horretatik, beraz, erakusle generikoarekin partekatzen dute zeregin hori.

Bestalde, badago aditzondoen beste erabilera anaforiko berezi bat ere; testuinguru fisikoa (kontestua) testuaren testuinguruan (kotestuan) integratzen laguntzen dutela esaten genuen beste lan batean (Garcia Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009). Erakusleekin gertatzen den bezala, adberbioak ere irudikapen-estrategia bezala funtziona dezake:

(59) gure gizonak badaki / itsas sakon sakonean daudela / m:: / aingurak / badakizu? itsasuntziek galdutako: burnizko hoiek / hortxe daude / […] / hortxe daude: / […] ta gu hortxe tartean gizonak bobo! […] / gizakiaren artean / hortxe nunbait /… (DG).

(60) konturatu naz azkenean / tunela / hantxe berekaldean hantxe tunelaren erditik txio:u lau pista /… (DG).

Adibide horietan, esate baterako, *hortxe*, *hantxe* aditzondoek balio zehaztugabea dute eta indar narratiboa areagotzeko erabiltzen dira.

Leku-aditzondoak ez ezik, badaude anaforikoak diren denbora-aditzondoak ere. Goian ikusi dugu *handik* aditzondoa, adibidez, baina beste bat ekarriko dugu orain lerro hauetara; izan ere, erakusleekin zerikusirik ez badu ere, oso sarri erabiltzen da eta forma berdinarekin ager daitekeen arren funtzio eta balio anitz bereganatzen du: *orduan*. Larringanek (1996, 2007) azpimarratzen duen bezala, hiru dira elementu horrek izan ditzakeen erabilerak: izen arrunta inesibo funtzioan, aditzondoa eta antolatzailea. Honako adibide hauek alderatuz gero:

(61) Aurrean jartzen, esertzen, etzaten nintzaion, eta baziharduen, mugimendu eternoan, neuk hautaturiko edozein distantziatan. Orduan eromen nuen hura orain salbamen izan nezake [*Olatu bat kuartelen gainetik*, Xabier Amuriza (Lanku, 2009), 19. or.].

(62) Gainera, oi ama, bakoitza yankiengandik jaso dugun merkataritza gune eder horietako batean kokatua, eta bua, batek bederatzi film eskaintzen baditu, besteak hamar. Orduan, zergatik nago haserre? Ba hasteko, erdietan baino gehiagotan film bera errepikatzen delako (Izenbururik gabe, Ane Muñoz, 2009-01-20).

Lehendabiziko adibidean *orduan* hitzak adierazten duen denbora jakin bat identifikatzeko testuan aurretik esandakoa hartu behar da aintzat, eta, horrenbestez, anaforikoki interpretatu behar da. Izen-sintagma anaforiko batek ere har zezakeen aditzondoak hartzen duen lekua, esate baterako, *garai hartan*. Barne-deixi baten bidez iristen gara denboraren erreferentea identifikatzera.

Bigarren adibidean, ordea, ondoriozko lokailu dugu, bi perpaus lotzen ditu; ez du denboraren erreferentzia bat adierazten, baizik eta ondorioa. Bigarren proposizioan adierazten dena aurreko proposizioan baieztatzen denaren ondorioa da. Nolanahi ere, badirudi erabilera hori propioagoa dela ahozko hizkuntzarena idatzizkoarena baino, testu idatzietan gutxiagotan agertzen baita, eta gehienetan solasaldi edo elkarrizketa gisa.

Badago oraindik ere beste erabilera bat oso ohikoa dena narrazioetan: denbora-antolatzaile, hau da, testuan kontatzen diren gertakizunen denborazko sekuentziak antolatzeko konexio-mekanismo moduan. Kasu honetan denbora zehatz bat adierazi beharrean, prozesuaren une bat adierazten du, baina oso modu orokorrean; lehenaldiko zein orainaldiko une bat seinala dezake. Hori da, hain zuzen, hurrengo adibideetan duen funtzioa. Ohar gaitezen, gainera, ahozkoan gerta daitekeen (64 adibidea) denbora-antolatzaileen metaketaz (*holako batez, orduan, gure herrira heltzean*):

(63) Orduan Ulenspiegel zuhaitzetik jaitsi eta garaztatu egin zituen borrokalariak, ez ur garbiz, ordea. [*Ulenspiegelen elezaharra*, Charles de Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007), 63. or.].

(64) Jarraitu zuten bidea hiru gizonek eta / holako batez […] /*orduan*/ hortxe / gure herrira heltzean: / mendi tontor horren gainean ikusi zuten / ikusi zituzten bi gizon… (DG).

Inesiboan deklinatutako izen arrunta bezala ere ager daitke. Beheko adibidean *orduan* izena da, ez da aditzondoa. Eztabaidagarria izango litzateke, ordea, zein den betetzen duen funtzioa. Izan ere, denbora adierazten duen *-teko orduan* forma duen adberbio-esapide baten aurrean geundekela esan daiteke, eta, horrenbestez, denborazko testu-antolatzaile moduan ere interpreta genezake:

(65) Nire lana astean bizpahiru egunetan gitarra klaseak ematea da. Kantuak egiteko *orduan* susperraldi bat sentitzen dut («Bazter batzuetara iristen ari naizen sentipena daukat», Gorka Erostarbe, 2010-01-10).

Aurreko atal batean *honela* adberbioaren erabilera kataforikoaz hitz egin dugu, baina ikus dezagun orain haren aldagai anaforikoaren (*horrela*) erabilera.

Elkarrizketaren testuinguruan adierazpide hori deiktikoa izango litzateke, baina lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainen kasuan bezala, anaforiko moduan interpretatu dugu narrazioaren testuinguruan, *horrela* adierazpideak aurretik deskribatutako egoerari egiten baitio erreferentzia.

(66) —Lagundu, lagundu! —Esaten zuen Txominek. Baina Jokinek ez zion sinesten.

—Ez dizut sinesten. —Esaten zuen Jokinek. Azkenean, sinetsi zuen eta anaia atera zuen zulotik.

—*Horrela* ikasiko duzu bromarik ez egiten. —Esan zuen Jokinek […] (NE-LH6-19).

Adberbio horren balio anaforikoa garbiago ikusten da honako adibide honetan:

(67) […] Ander nigana hurbildu eta hurrenean zegoen irlatxo batera igerian joateko proposatu zidan; eta horrela egin genuen […] (NE-DBH4-79).

Adibide horretan *horrela*-k aurretik esandakoa (*igerian joan*) ekartzen du berriz testura, eta era sinple baina eraginkorrean zehazten du gauzak aurretik aipatutako modu horretan egin zirela eta ez beste era batera. Gauza bera hurrengo adibidean:

(68) Lehenik eta behin, gatzatua egiten da, eta horretarako esneari gatzaria botako zaio, honela esnea gogortu egingo da […] (AE-H-10).

(69) […] gure ikastetxean gelaka kirol batzuk aukeratzen ditugu patioan egin daitezkeenak. Nahi dutenak apuntatu egiten dira eta gelaka taldeak egiten dira, eta horrela kirolak aldatuz. Zuen ikastetxean berdina egin dezakezue eta horrela denok entretenituta egongo dira […] (GE-DBH2-16).

Dena dela, gogora dezagun erakusleetatik eratorritako *horrela* / *honela* adierazpideak, *honegatik* / *horregatik* / *hargatik* bezala, antolatzaile ere izaten direla; kasu horretan, koma bat eramaten dute atzetik eta diskurtso-sartzaile gisa funtzionatzen dute.

7. Adierazpide kataforiko zenbait

Esan dugu lehen anaforizatzaile bat ondorengo hizkuntza-testuinguruan agertzen den elementuren baten bitartez identifikatu edo interpretatu behar denean kataforari buruz hitz egiten dugula. Maillard-ek (1974) diaforari buruz hitz egiten du, anafora eta katafora barnean sartzen dituelarik, eta Kesik-ek (1989) anakataforari buruz. Halliday eta Hasan-entzat (1976) katafora ondoren datorren kotestuaren aurresuposizio bat da, egiturazko harremanak dituena eskuman dagoen kotestuarekin; egileentzat katafora kohesibo horiek ez dira anaforak bezain ugariak eta ez lirateke ezinbestekoak izango testuak sortzeko orduan.

Aipatu dugu dagoeneko erakusleen erabilera kataforikoa, baina posizio horretan sarri erabiltzen den elementu bati erreparatuko diogu oraingoan: erakusleengandik eratorritako *horrela* adberbioari. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(70) Gure heroia, sasoian eta gertu, honela mintzatu zitzaion bere buruari: «Izan ere, ez naiz egun osoan borrokatu; jeneral bat eskoltatu, ez dut hori besterik egin» [*Parmako kartusia*, Stendhal / Jon Muñoz (Elkar/Alberdania, 2007), 112. or.].

(71) Bekozko ilunez, jendarmeak paperak eskatu zizkion Fabriceri. Pasaportea erakutsi Fabricek, eta han honela izendaturik zegoen gure heroia: barometro-saltzailea salgaiak aldean dituena [*Parmako kartusia*, Stendhal / Jon Muñoz (Elkar/Alberdania, 2007), 84. or.].

(70) adibidean kataforak beste baten ahotsak testuratzea ahalbidetzen du, beste batek esandakoari egiten dio erreferentzia eta esandako hori, gainera, hitzez jasotzen da. Diskurtso zuzenari sarbidea emateko funtzioa du.

Erakusleengandik eratorritako *honela* adberbioaren kasua alde batera utzita, euskarari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia*n *(*OEH*)* agertzen den informazioari erreparatuz gero, badago anafora- edo katafora-izaera aitortzen zaien beste elementu batzuk ere. *Alegia* lokailuaren definizioari eskaintzen dion atalean, esate baterako, honela irakurtzen dugu:

> **Alegia**: (Empleado como anafórico, para introducir algo que se va a decir a continuación). v. 1 **zera (2).** **Orra ba, nik jakin nai nukena da… alegia… zera… Erri ontan bazkaitara norbait eraman nai danean, nola esaten zaio?* Muj *PAm* 41. *—Ta, zer esan dizu? —Esan dit, alegia, abek gaztetxoak, txikitxoak dirala oraindik eta urruti aietara iritsi gabeak dirala.* Ib. 44. *—Zera, Xixili, esan nai nizun, zera,*

alegiya… —Alegiya? —Bai, ba… zera… —Tori alegiya. Ta orain, zuaz emendik eta etzaitiala geiago nere begiyen aurrian jarri. Alz *Txib* 104s. *Ta gañea, kontsultea badakit nik zertaako izango dan. Zea; alegie: andrea artzea zoazela eo etzoazela eo, ez da ala?* Lek *EunD* 34. *Gero, zera esan zionat, alegia, Pelentuara joateko garaia eldu dela.* Etxde *JJ* 80. *Zera gañeratu zien, alegia, tiroak uts-egiña zala bere damu bakarra.* Ib. 170. *—Nai al dek nere iritxia ematea? —Zer iritxi? […].—Alegia, Manueltxo gaur gabean datorrela nola jakin dezuten.* Ugalde *Iltz* 64. *Ba… Zuek gaur zerbait egin dezutela, ta bera salatzallea bada, alegia etorriko dala, e!* Ib. 64. *Nere ustez kontua bestea dugu, alegia, euskal esperanto hori beharrezko, premiazkoa dugun ala ez.* MEIG IX 49 (este ej. y los siguientes corresponden a una entrevista). *Esan nahi dut, alegia, zerbait egiteko edo estudiatzeko, garaia izan nuenean aukera izan banu, beharbada bide horretatik joko nuen.* Ib. 66. *Nola esango nizuke nik, alegia, Santoñan zer gertatu zen Santoñan geundenok bagenekien gutxi gora behera e.* Ib. 67. *Beraz, gauzak ez ziren alegia, ni han gelditu edo besteekin joan, ez.* Ib. 70. *Beno, alegia, nire ustez, eta hori askotan esan dut […].* Ib. 75. (http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu [2012-12-14]).

Definizio horrek nahasmena sor dezake, besteak beste, *zera* eta *alegia* sinonimotzat jotzera eraman gaitzakeelako. Baina *zera*k adierazten duena da lotura egin behar dela testuan zehar aipatzen den beste elementu edo enuntziatu zati batekin, erreferentziakidetasuna duela harekin, hau da, zertaz hitz egiten ari garen argitzen laguntzen du. *Alegia*k, ordea, ez du horrelako harremanik bideratzen, egiten duena da instrukzio edo jarraibide bat eman enuntziatua zentzu jakin batean ulertzeko, nola interpretatu behar den ulertzeko, baina ez *alegia*ren erreferentea identifikatzeko.

Bi iruzkin egin ditzakegu hiztegi-sarrera horren inguruan. Lehendabizikoa, anafora hitzaren zehaztugabetasuna noranzkoari dagokionez. Anaforak ondoren datorren zerbaiti sarbidea ematen diola esaten da definizio horretan. Zehatzagoak izateko kataforaz hitz egin beharko litzateke eta ez anaforaz. Oro har, eta oso modu soilean azaltzeko, anaforaz hitz egingo dugu elementu bat aurretik aipatutako zerbaitekin lotura duenean eta katafora hitza erabiliko dugu ondoren datorren zerbaitekin lotura duenean. Aitortu behar dugu, guk ere sarritan anafora hitza erabiltzen dugula modu generikoan, harreman mota hori adierazteko eta kontuan hartu barik harremana zein noranzkotan gertatzen den. Nolanahi ere, arestian ikusi dugun bezala, badaude termino zehatzagoak harreman mota horri izendapena eman nahi badiogu.

Bigarrena, *alegia* lokailuari esleitzen zaion anaforikotasunari dagokio, eta interpretazio horri helduko diogu jarraian. Badira diskurtso-markatzaile batzuk aurreko enuntziatu baten birformulazioa bideratzen dutenak, hau da, formulazio berri bati bidea ematen diotenak lehen esandakoa beste era batera esateko, informazioa zehazteko edo zabaltzeko, aurrekoarekiko kontrakotasuna adierazteko, distantzia hartzeko, etab. Birformulazioak edo formulazio berriak beti du abiapuntu aurreko formulazio bat, esplizitua edo inplizitua izan daitekeena, baina normalean, behintzat,

alegia lokailuak agerian jartzen dituen harremanak ez dira kohesio-mekanismoen sailekoak, konexio-mekanismoenak baizik. Ikus ditzagun arretarekin OEHko adibide batzuk:

(72) Orra ba, nik jakin nai nukena da… alegia… zera… Erri ontan bazkaitara norbait eraman nai danean, nola esaten zaio? (Muj PAm 41).

(73) —Zera, Xixili, esan nai nizun, zera, alegiya… —Alegiya? —Bai, ba… zera… —Tori alegiya. Ta orain, zuaz emendik eta etzaitiala geiago nere begiyen aurrian jarri (Alz Txib 104s).

(74) Ta gañea, kontsultea badakit nik zertaako izango dan. Zea; alegie: andrea artzea zoazela eo etzoazela eo, ez da ala? (Lek EunD 34).

(75) Gero, zera esan zionat, alegia, Pelentuara joateko garaia eldu dela (Etxde JJ 80).

(76) Zera gañeratu zien, alegia, tiroak uts-egiña zala bere damu bakarra (Ib. 170).

Goiko adibide horietan anaforikoa ez da *alegia* lokailua, *zera* izenordain zehaztugabea baizik.

Esan berri dugun bezala, anafora kohesioaren sailekoa da eta lokailuak konexioaren[7] sailekoak dira. Horrek esan nahi du anafora-harremanen kasuan anaforizatzailea eta anaforizatua proposizio barruko elementuak direla; lokailuak, aldiz, kasu honetan *alegia* birformulatzailea, proposizio-egituratik kanpo geratzen da, hau da, A formulazioa (p proposizioa) B formulazioarekin (q proposizioa) lotzen du, baina formulazio horietatik at geratzen da:

(77) [Orra ba, nik jakin nai nukena (zera)$_{\text{anaforizatzaile kataforikoa}}$ da…]$_{\text{Proposizioa(p)}}$ [alegia]$_{\text{Lokailua}}$ [(Erri ontan bazkaitara norbait eraman nai danean, nola esaten zaio?)$_{\text{anaforizatutako segmentua}}$]$_{\text{Proposizioa(q)}}$

*Alegia*k lotura jakin bat ezartzen du bi proposizioen artean eta enuntziatu horiek modu jakin batean interpretatzeko bidea zabaltzen du. Aurreko formulazioan egiten zen galdera zehaztuta geratzen da bigarren formulazioan, baina *alegia* bera ez da anaforikoa, eta bi formulazio horien arteko harremana ere ez. Anafora-harremanetan inplikatuta dauden elementuak kategoria lexikoak dira, eta esanahiarekin eta eduki erreferentzialarekin lotuta daude. Goiko bi formulazio horiek lotzen dituen lokailuak, ordea, kategoria pragmatikoa du eta, alde horretatik, diskurtso-markatzaile dugu; hasierako formulaziotik atera daitezkeen inferentziak mugatu edo berrorientatzen ditu bigarren formulazioak, hiztunak transmitu nahi duen zentzua beregana dezan. Diskurtso-markatzaileak testuari zentzua ematera bideratutako prozeduren artekoak dira, eta diskurtsoaren zatien arteko harreman semantiko-pragmatikoak adierazten

7. Gogoratu, halaber, egile batzuek kohesioaz bakarrik hitz egiten dutela, esate baterako, Halliday-k eta Hasan-ek eta, oro har, haien ikuspegiari jarraitzen diotenak.

dituzte. Anaforek, ordea, proposizio-egituretako osagaien kateatzea eta sareratzea bideratzen dute, hau da, izen- eta aditz-sintagmen kateamendua eta gaien eta azpigaien arteko kateamendu edo garapen tematikoari eragiten diote.

Adibide horretan (77) *alegia* ezin da anaforikoa izan, ez duelako ezer berrartzen. Egin ditzagun bi galdera: zein da *alegia*ren erreferentziakidea? Testuan aurrerago datorren zein elementuren bitartez interpretatu behar dugu *alegia*? Edo beste modu batera esanda, zein elementuren bitartez iristen gara *alegia*ren erreferentera? Ez dago erantzunik galdera horientzat. *Zera* izenordainera jo behar dugu anaforizatzailea aurkitzeko. *Zera*k testuan aipatzen den beste elementu bati egiten dio erreferentzia. Kasu honetan izenordainaren ondoren datorren segmentu bati, eta horregatik esango dugu katafora bat dela. Zati anaforizatua ez da izen-sintagma bat edo elementu soil bat, esaldi oso bat baizik, galdera osoa: *Erri ontan bazkaitara norbait eraman nai danean, nola esaten zaio?* Ohar gaitezen, halaber, harreman anaforikoa (zein kataforikoa) ez dela beti kategoria bereko elementuen artean ezartzen, eta izenordainek aurretik edo atzetik aipatutako izen-sintagma bat zein enuntziatu zati luzeagoak anaforiza ditzaketela.

Zertxobat diferentetzat jo dezakegu (79) adibidea, baina itxura batean besterik ez. Hemen ere *zera* baita anaforizatzailea.

(78) A —Zera, Xixili, esan nai nizun, zera, alegiya…

B —Alegiya?

A —Bai, ba… zera…

B —Tori alegiya. Ta orain, zuaz emendik eta etzaitiala geiago nere begiyen aurrian jarri (Alz Txib 104s.).

Goiko adibide horretan *zera* izenordain kataforikoa da, baina haren erreferentzia gauzatu gabe dago. Diskurtsoan ondoren etorriko den zerbait espero dezakegula adierazten du *zera*k, baina esatariak ez du informazioa osatzen. Jakin gabe geratzen gara zeri egiten dion erreferentzia *zera*k.

Alegia (alegiya) lokailuari dagokionez (A solaskideak esaten duena), esatariak informazioa osatzera doala adierazten du, esan beharrekoa formulazio berri baten bidez esango duela, modu zehatzagoan, hain zuzen, baina birformulazio hori ez da heltzen. Hala eta guztiz ere, bere agerpenarekin, dagoeneko adierazten du esandakoaren formulazioa ez dela nahikoa eta zuzendu edo aldatu egin behar duela osatzeko, zehazteko, etab. Edonola ere, *alegia* lokailua den neurrian, ez da anaforikoa izango eta ez du interpretazio anaforikorik bideratuko. Anaforak adierazten du bi unitatek propietate erreferentzial bat partekatzen dutela.

Bigarren solaskideak (B) *alegia* erabiltzen duenean hitz hori dagoeneko ez da lokailua, lexikalizatuta erabiltzen du, «gauza» bihurtuta. Garbiago geratzen da hori *Tori alegiya* esaten duenean. Eta goiko galdera bera egin dezakegu: zer da *alegiya*? Baina ematen dion *alegiya* hori zer den jakiteko testuingurua ezagutu beharko genuke, informazioa falta zaigu interpretazio zuzena egiteko, baina pentsa genezake lehenengo solaskideak esan nahi zuen (edo bukatu gabe utzi duen) *zera*rekin lotuta dagoela. Testuingurua edo testu zati zabalagoa ezagutu gabe, hipotesia besterik ezin dugu egin.

Ohar gaitezen, dena dela, OEHn agertzen diren adibide horiek guztiak ahozko mintzairakoak direla eta testuinguru fisiko berean dauden solaskideek trukatutako enuntziatuak direla. Testuinguru fisikoaren mende dauden elkarrizketetan esatari baten enuntziatuak bere solaskidearen parte-hartzeagatik etenda gera daitezke, eta horretaz gain, ahozkoan oso ohikoak dira elipsiak, errepikapenak, ordena-aldaketak, formula fatikoak, etab. (Idiazabal eta Garcia Azkoaga, 2007). Adibide horien kasuan anaforikotasuna *zer/zera* izenordainen eskutik dator eta ez *alegia*ren eskutik.

Beste horrenbeste gertatzen da adibide honetan:

(79) (ON) Hemen, berriz, hatz-marka batzuk dauzkagu, horman. / Hatz-marka hauek bereziak dira; hemengo gainerako hatz-markak ez bezala, beherago baitaude, haur batenak dira. Horrek zera adierazten digu, (OFF) alegia, familia osoak bizi izan zirela hemen eta haurrek gurasoei laguntzen zietela eraikuntza-lanetan (ETB, Explorer 46 , EX03).

Harreman anaforikoa bi elementu hauen artekoa da: …*zera*… → *familia osoak bizi izan zirela hemen eta haurrek gurasoei laguntzen zietela eraikuntza-lanetan*. Ezin dugu esan, beraz, *alegia* anaforikoki erabiltzen denik edo *zera*ren sinonimoa denik.

Adibideak ikusita, badirudi, ahozko mintzairan *alegia* hitza erabiltzeak ñabardura berezi bat ematen diola esango denari, beste era batera esanda, bigarren formulazioan dagoenari eman behar zaiola garrantzia aurreko formulazioaren gainetik. *Zera* izenordainak ez bezala, *alegia*k ez dio erreferentzia bat esleitzen testu zati bati. Kontuan izan behar dugu, gainera, *zera* izenordain zehaztugabearen erabilera oso ohikoa dela ahozko hizkuntzan. Gauzak horrela, badirudi behintzat, erakusleei bezala, *zera*ri ere izaera kataforikoa esleitu diezaiokegula.

Beste kontu bat izango litzateke *alegia*k bideratzen duen birformulazioan definizio, kontzeptu edo termino berri bat agertuko balitz. Termino edo definizio horrek (gehienetan behintzat) aurrekari bat izango luke testuan, beharbada, lehendabiziko formulazioan bertan, baina horrela balitz ere, *alegia* ez litzateke anaforikoa izango, erreferentzia baten espezifikazioari bidea egiteko modua baizik:

(80) Tinnitus edo akufeno esaten zaio entzumenari dagokion pertzepzio arazo bati: alegia, belarrietan zaratak aditzeari, kanpotik datorren soinurik izan gabe (Akufenoak edo ‘tinnitus’-a eta lore esentziak, Eusebio Gonzalez, 2007-04-10).

Hortaz, *alegia* birformulatzailea berez ez litzateke kohesioaren sailekoa izango, baina bai lagun dezake diskurtsoaren objektu berriak testuratzen izendapen eta definizioen bidez.

Ohar gaitezen, bestalde, testuaren konexioaren esparrukoak diren zenbait elementuk funtzio bikoitza izan dezaketela eta, beraz, kohesioaren esparrukoak diren funtzioak ere beregana ditzakeela zenbaitetan.

8. Izen-sintagma, erreferentziakidetasuna eta anafora

Izenordainari buruz hitz egiten dugunean garbi ikusten da aurrekariarekiko duen erreferentzakidetasuna, baina aurrekari bat izen-sintagma baten bitartez berreskuratzen denean elementu bien arteko harremanaren nolakotasuna zalantzazkoagoa da, ikusi besterik ez dago zenbat lan eta iritzi dagoen gaiaren inguruan. Hurrengo adibideetatik abiatzen baldin bagara:

(81) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Ø hainbat egun egon da lur bazterrera hurbildu gabe.

(82) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Animalia agertu eta desagertu egiten zen behin eta berriz.

(83) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Jostalari hori agertu eta desagertu egiten zen behin eta berriz.

(84) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Ikuskizun hori ez da sarri gertatzen.

(85) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Domatzailea aspaldi ari zen bila.

(86) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Dirudienez Pakitok berriro bisitatu gaitu.

(87) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Gorroto ditut pizti horiek.

(88) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Burua agertu eta desagertu egiten zen uretan.

Elementu batek aurretik aipatutako beste bati erreferentzia egiten dion zentzuan ulertuta, erlazio anaforikoak onargarria dirudi adibide guztietan. Elementu horien artean erreferentziakidetasuna dagoen ala ez, edo erreferentziakidetasuna anaforarekin bat datorren ala ez argitu nahi dugunean, ordea, gauzak ez daude hain garbi. Erreferentziakide dira *itsas txakur* eta *itsas ugaztun* elementuak? Eta *itsas txakur* eta *jostalari hori/jostalaria*? Eta zer gertatzen da *itsas txakur* eta *domatzailea*ren kasuan?… Noiz hitz egin dezakegu erreferentziakidetasunaz eta noiz anaforaz? Are gehiago, *itsas txakur* errepikatzen denean, ba al dago anaforarik? Horiek dira sortzen

diren galdera ohikoenak anaforak identifikatzeari ekiten diogunean. Testu enpirikoak aztertzeko orduan aurki ditzakegun konbinazio eta aukeren aniztasunak kontu horiek guztiak mugatzera behartzen gaitu.

Nueva Gramática de la Lengua Española-ra jotzen badugu, anafora zuzena eta asoziazio bidezko anafora bereizten ditu. Egiten duen deskripzioaren arabera, anafora zuzena bi elementuren arteko erreferentziakidetasunezko harremanean oinarritzen da. Aurretik agertzen den elementuarekin erreferentzia partekatzen duen segmentu berriak izen-sintagma mugatuaren itxura izango du. Izen-sintagma berri horretan aurreko izena ager daiteke errepikatuta (*mahai bat… mahaia*), baina baita izen berdina modifikatzaileren batez lagunduta (*bozketa… aipatutako bozketa*). Talde honetan egongo dira, halaber, sinonimoak, hiponimoak, hiperonimoak (*gutun bat… mezua / dokumentua*, etab.).

Asoziazio bidezko anaforari buruz hitz egiteko orduan, honela definitzen du: diskurtsoan izen-sintagma mugatu bat agertzen denean aurretik aurkeztua izan gabe. Haren interpretazioan alderdi gramatikalak, semantikoak eta diskurtsiboak hartzen dute parte. Adibidez:

(89) Gaur gutun bat jaso dut; igorlearen izena irakurtezina zen.

*Gutun bat*ek eta *igorlearen izena*k diskurtsoko entitate ezberdinak izendatzen dituzte, baina hala eta guztiz ere, arazo handirik gabe lot daitezke elementu biak (*Gutun bat… igorlearen izena). Igorleaen izena* izen-sintagma mugatua interpretatzen laguntzen duen lehendabiziko aipamena (*gutun bat*) «aingura» izango litzateke; ezingo genuke aurrekariaz hitz egin elementuok ez dutelako erreferente berdina partekatzen. Fenomeno hau oso lotuta dago osotasuna/zatia, hau da, meronimia motako harremanekin. «Aingurak» edo lehendabiziko agerpenak izen-sintagma mugagabearen forma izaten du gehienetan, baina izen-sintagma mugatua ere izan daiteke, bere erreferentzia aurreko diskurtsotik identifikatzen bada (*Txakurrak marmar egiten zuen, eta muturrarekin lurra miatzen zuen*).

Horretaz gain, bi elementuren arteko harremana entitate-propietate tankerakoa izan daiteke (*jaki bat… usaina*), baita ekintza-ondorio tankerakoa ere (*ekintza zigorgarri bat… zigorra*). Horrela, asoziaziozko anaforak ezartzen duen lotura pragmatikoa da, informazioa ez baita ondorioztatzen erabiltzen den lexikoaren analisi semantikotik; harreman hori zenbaitetan determinatzaile mugatuaren bidez geratzen da agerian; baina ez beti eta sistematikoki. Kausa-ondorio tankerako harremanetan ere asozioaziozko anafora egongo litzateke (*Zarata ikaragarri bat entzun zen. Ikara sartu zitzaion…*).

Bestalde, fenomeno hau gerta daiteke «aingura» den segmentua perpaus bat denean gaztelaniazko adibide honetan ikusten den bezala:

(90) Le puso una casa y durante tres años comió con ella varios días a la semana

[…]. El resultado, con el tiempo, fue un embarazo (Aguilar Camin, *Error*).

Thatcher-ek (1991) bi multzotan banatzen ditu erreferentziakidetasunaren eta anaforaren arteko harremanen inguruan dauden hurbilbide ezberdinak:

a) Osagarritasun-harremana ikusten dutenak

Talde honetan ditugu Blanche-Benveniste eta Chervel (1966) eta Moirand (1990). Haientzat ez dago oposiziorik anaforaren eta erreferentziakidetasunaren artean.

Blanche-Benveniste-rentzat eta Chervel-entzat (1966) enuntziatuak hizkuntzazkoa ez den egoera batean (guretzat testuinguru fisikoa edo kontestua) eta hizkuntzazkoa den egoera batean txertatuta daude (guretzat hizkuntzazko testuingurua edo kotestua izango dena), eta egoera biak batera doaz. Horrela, errealitatearen eta hizkuntzaren arteko ezberdinatsuna adierazteko «pentsamendu-objektuari» buruz hitz egiten dute egileek eta ez kanpoko errealitateko elementu bati buruz. Ondorioz, esaten dute enuntziatuaren zentzuak direla memorian gordetzen direnak eta atzamarrarekin erakusten den objektuak balira bezala aurkezten direnak. Anafora beraz, memorian oinarritzen den zentzuaren transmisioa izango litzateke. Zentzuaren transmisiorik ez badago, ez dago anaforarik.

(91) Gaingiroki ezagutzen dut etsipena. Etsipenak ez du hegorik.

Ikuspegi horren arabera, goiko adibidean (89) errepikapen hutsa egongo litzateke eta ez anafora, ez baita zentzua transmititzen. Ez da beharrezkoa bigarren agerpena lehenengoaren bidez argitzea. Hala eta guztiz ere, onartu egiten dute errepikapenak zentzu ezberdina eragin diezaiokeela enuntziatuaren bigarren zatiari.

Kasu batean zein bestean erreferentea pentsamendu-objektutzat hatzen da. Pentsamendu-objektua berbera izanik, erreferentzia egin dakioke testuan agertzen den erreferentziazko adierazpenaren bidez zein erreferentziazko unibertsoaren bitartez. Egile horiek egiten duten interpretazioaren arabera, beraz, testuinguru fisikoa eta hizkuntzazko testuingurua parekatu egiten dira.

Era berean, zentzuan oinarritzen dira egileak anafora ez-leialen eta asoziaziozkoen arteko harremana azaltzeko. Anafora ez-leialen kasuan erreferentziazko adierazpideak erreferituaren zentzua argitzen du sarritan.

Asoziaziozko anaforen kasuan, erreferentziatzailearen pentsamendu-objektua erreferituaren eraginez sortzen da. Adibide honetan, esate baterako:

(92) Etxe bat ikusten izan naiz; teilatua egoera onean zegoen; jabea atsegina iruditu zait.

Teilatu eta *jabe* hitzek bakoitzak bere esanahia dute, baina egoerari buruz dugun ezagutza partekatuari esker, hizkuntzazkoa ez dena, *etxe* hitzarekin lot ditzakegu eta enuntziatuan duten zentzua uler dezakegu.

Aurreko atal batean aipatu dugun bezala, Moirand-ek (1990: 19) bi erreferentzia-sistema bereizten ditu: kanpokoa, testuak deskribatzen duen unibertsora eramaten gaituena, eta barnekoa, testuan aurretik agerrarazi edo irudikatu den zati batera bidaltzen gaituena; azken hori da, hain zuzen, testuan aurretik agertu den objektu baten berrartzea *(auzokoak → mutil hori*; *etsipena → etsipena*):

(93) Auzokoak lagundu dit. Mutil hori zoragarria da.

Ikuspegi honetatik erreferentzia-sistema biak lotuta daude (ikusi arestian agertu den 2. irudia); goiko adibidean, *auzokoa*-k eta *mutil hori*-k errealitatearen objektu berberari egiten diote erreferentzia; erreferentziatzaileak ez du bidaltzen erreferitura soilik, baizik eta erreferentera ere, hau da, erreferentziazko unibertsora. Nolanahi ere, erreferentziakidetasuna ez da sinonimia-kontua, diskurtso-fenomenoa baizik:

(94) Txakur bat oparitu didate. Animalia hori maitagarria da.

(95) Gizon batekin egin du topo. Animalia horrek kupidarik gabe bultzatu du gure laguna.

Erreferentzia-sistema biak diskurtsoaren fenomenoak dira, eta egilearentzat erreferentziakidetasuna nozio operatorioa da, hau da, eragin bat lortzera bideratzen den operazio linguistiko bat da, eta anafora eta katafora, aldiz, nozio deskriptiboak dira, bi elementuren arteko harremanaren nolakotasuna azaldu eta ezaugarritzera bideratuta daudelako. Haiei esker ekar daiteke errealitatea testura. Anaforari dagokionez, Moirand-ek hark diskurtsoan duen garrantzia azpimarratzen du; izan ere, kasu bakoitzean aukeratzen den ordezkatze lexikalak agerian jar dezake karakterizazio-operazio bat eta, era berean, esatariaren ikuspegia nabarmendu. Hortaz, anaforek ez dituzte errealitatearen «egintzak eta esanak» bakarrik irudikatzen. Egile horrek ere ez dute fenomeno ezberdintzat hartzen anafora eta erreferentziakidetasuna. Egileak berak azpimarratzen duen bezala, ikuspegi teorikotik erreferentziakidetasunak arazo ugari sortzen ditu, baina hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzari gagozkiolarik, interesa testuetan uzten dituen hizkuntza-marketan egongo litzateke, hor antzematen delako erreferentziakidetasuna; Moirand-entzat testuetan agertzen diren berbazko zatiek agerian jartzen dituzte erabilitako hizkuntzaren lexikoa eta gramatika, eta zeregin deiktikoa (kanpoko testuinguruko zerbait seinalatzen dutenean) edo anaforikoa (berbaldian agertu den beste segmentu bat irudikatzen dutenean) izan dezakete.

Ikusten den bezala, aipatutako egileentzat ez dago alderik erreferentziakidetasunaren eta anaforaren artean. Blanche-Benveniste-ren eta Chervel-en kasuan, hizkuntzaz kanpoko egoera eta hizkuntzazkoa asimilatu edo parekatu egiten

dituztelako, eta, Moirand-ek kasuan, erreferentziakidetasuna berbazko elementuen bidez islatzen delako testuan, zeregin deiktikoarekin edo zeregin anaforikoarekin.

Laburbilduz, egile horientzak anafora dagoenean beti dago erreferentziakidetasuna, baina erreferentziakidetasuna egon daiteke anaforarik gabe. Erreferentziari dagokionez, pentsamendu-objektu batekin lotuta egongo lirateke eta ez kanpoko errealitatearekin; horrenbestez, anafora memorian oinarritutako zentzuzko transmisioa izango litzateke.

b) Bereizketa edota inklusio-harremana ikusten dutenak

Hemen kokatzen dira, besteak beste, Berrendonner-en (1983) eta Corblin-en (1983) ikuspegiak.

Berrendonner-ek (1983), adibidez, erreferentziazko identitatea (erreferentziakidetasuna) onartzen du «*auzokoa… mutil hori»* adibidearen kasuan, hau da, erreferentziazko adierazpide biek dutela erreferente berdina indibiduo berbera izandatzeko balio dutelako. Baina ez da gauza bera gertatzen hurrengo adibidean:

(96) A! katu bat duzu! Niri ez zaizkit gustatzen zomorro horiek!

Zomorro horiek izen-sintagmaren interpretazioa aurretik aipatutako sintagma baten menpe dago; lehenengo sintagma horretan *katu* agertu beharrean beste animalia bat agertuko balitz, interpretazioa ez litzateke halabeharrez berdina izango. Hortaz, egilearentzat sintagma bien arteko harremana anaforikoa izango litzateke eta ez erreferentziakidetasunezkoa; anaforikotasuna erakuslearen eskutik datorkio bigarren sintagmari, erakusleak berak diskurtsora eramaten gaituelako eta ez kanpoko errealitatera. Berrendonner-entzat (1983) erlazio bat anaforikoa izan dadin ez da beharrezkoa erreferentziakidetasuna, beretzat erreferentziakidetasuna anafora-kasu partikular bat besterik ez da.

Iritzi berekoa da Corblin ere (1983, 1985). Harentzat erreferentziakidetasuna testuaren gaineko anafora-kasu bat bezala interpreta daiteke: «La coréférence concerce la proprieté de deux (ou plus) séquences de renvoyer au même référent sans que l'interprétation de l'une soit dépendante de celle de l'autre» (Corblin 1995: 151). Egile horrentzat anafora ez datza izen-sintagma bat edo testu zati baten errepikapenean, baizik eta izen-sintagmari erlazio esplizitu bat esleitzean ekoitzitako interpretazioekiko; izen-sintagma berria aurreko interpretazioen oroimenaren menpe dago. Nolanahi ere, Corblin-en arabera anafora zentzu estuan edo zentzu zabalean interpreta daiteke. Zentzu estuan («anaphora stricto sensu») kontuan hartuz gero, erreferentziakidetasuna ere egongo litzateke. Zentzu zabalagoan interpretatuz gero, ordea, asoziaziozko anafora izan dezakegu; izan ere, baliokidetasun-harremana ezar dezake eduki lexikala ezberdina duten izen-sintagmen artean (*arbola bat… lagun hori*) (Corblin 1983 : 123). Ohar gaitezen, halere, parentesien artean agertzen den adibide horretan anaforizatzaileak determinatzaile erakuslea daramala eta ez

artikulua; horrek esan nahi du beste autore batzuentzat ez bezala, Corblin-entzat artikuluaren agerpena ez dela aukera bakarra asoziaziozko anaforetan.

Hizkuntzalari hauen ikuspegira lerratuz gero, ordea, zaila da azaltzen tankera honetako adibideak, non erreferentziakidetasuna egongo litzatekeen, baina ez anaforarik:

(97) Nazioarteko Diru Funtsako (NDF) finantza zuzendaria atilotua izan da ustezko bortzaketa batengatik. Badirudi Strauss-Kahn ibilbide politikoa arriskuan dagoela.

Thatcher-ek dioen bezala, sintagma bien artean ezagutza partekatua dago eta ez bigarren segmentuaren interpretazioa. Sintagma biek pertsona berberari egiten diote erreferentzia, baina bakoitza bere aldetik interpreta daiteke elkarren laguntzarik gabe. Bigarren izen-sintagma interpretatzeko ez dago beste testu zati edo beste sintagma baten beharrik *Strauss-Kahn* izen bereziak bere erreferente propioa duelako testutik kanpo eta erreferente hori erraz antzeman daitekeelako izen bereziek zuzenean izendatzeko duten propietateari esker (kasu honetan Corblin-ek anafora presuposizionalei buruz hitz egiten du). Ikuspegi horretatik, gainera, errreferentziakideen segida bat ez litzateke izango ez erreferentzia-kate edo sare bat, ezta anafora-kate bat ere.

Erreferentziakidetasunaren eta anaforaren arteko erlazioa azaltzeko Milner-ek (1982) honela definitzen du erreferentzia: «Unitate lexiko bat eta bere erreferentzia birtuala ezaugarritzen duen baldintza multzoa, hiztegian ematen den definizioa irudikatzeko joera duena»; unitate lexiko bat enuntziatu batean erabiltzen denean, erreferentzia aktuala bereganatzen du. Ikuspegi horrek eragina du erreferentziakidetasuna eta anafora nozioen interpretazioan, eta, ondorioz, bi ereferentziakidetasun mota bereizten ditu: aktuala eta birtuala. Erreferentziakidetasun aktualaren kasuan, harremanetan dauden sintagmek izendatzen dituzten segmentuen arteko identitate materiala erabatekoa litzateke; hau da, *koadrupedo* hitzarekin izendatzen dugun erreferentea eta *zaldi* hitzarekin izendatzen duguna berdinak lirateke. *Koadrupedo* hitzak hiztegitik enuntziatura ekartzean erreferentzia aktuala bereganatuko luke.

(98) Idi bat bazkatzen ari zen; koadrupedoa… [+erreferntziakidetasuna] [+anafora]

Erreferentziakidetasun birtuala lexikoaren zentzuan oinarrituta egongo litzateke, kasu honetan propietate lexikal berdinak dituzten sintagmen arteko harremana izango genuke, eta, azken batean, sintagma berdinaren errepikapena izango genuke (*idi bat… idia*). Egile horrentzat kasu bietan dago anafora nominala eta harreman hori propietate linguistikoen mende dago soilik. Lehendabiziko kasuan [I *bat*… I*a*] tankerako segida bat izango genuke, non bigarren unitateak izendatzen duen erreferentea berrartzearen bidez identifikatzen den (*ehiztari bat… ehiztaria*). Bigarren kasuan [I_1*bat* … I_2*a*] (*idi bat… koadrupedoa*) tankerako harremana

izango genuke; bigarren unitateak lehendabizikoa aktualizatzen du eta bere interpretazioa kontestuala besterik ezin da izan; harremanak berak identifikatzen du anaforizatzailearen erreferentzia aktuala. Bigarren kasuan [I *bat* … I*a*] tankerako segida bat izango genuke, non bigarren unitateak izendatzen duen erreferentea berrartzearen bidez identifikatzen den (*ehiztari bat… ehiztaria*). Milner-en arabera, beraz, anafora nominala propietate linguistikoen menpe egongo litzateke (*Idi bat… koadrupedoa*; *Ehiztari bat… ergela*). Kasu bietan onartzen du Milner-ek anafora nominala, baina era berean, beretzat biak interpreta daitezke erreferentziakide bezala informazio gehigarririk gabe:

(99) Atzo ehiztari bat heldu zen, ergelak huts egin ditu tiro guztiak [+erreferntziakidetasuna] [+anafora]

Milner-entzat goiko adibide biak informazio osagarririk gabe interpreta daitezke, lehenengo kasuan berrartze partziala izango litzateke eta, horrenbestez, anafora, *koadrupedoa*ren erreferentzia birtuala inklusiboa delako *idi*arekiko. Egile horrentzat ez da munduaren ezagutza partekatuaren kontua, baizik eta hizkuntza-gaitasuna. Bigarren adibidean, aldiz, *ergela* adjektiboa ez da erreferentzialki autonomoa eta artikuluak eragiten du berrartzetzat hartua izan dadin. Kasu horretan, Milner-en aburuz, *ehiztaria* eta *ergela* erreferentziakideak eta anaforikoak lirateke. Beste adibide honetan:

(100) Gaur goizean ehiztari bat iritsi da; aleman horrek huts egin ditu tiro guztiak.

Ehiztari bat eta *aleman hori* izen-sintagmek erreferentzia birtual ezberdinak dituzte, baina erakusleak erreferentzia aktuala adieraziko luke, berdina sintagma bientzat, eta erreferentziakide moduan interpretatuko genituzke hizkuntzaz kanpoko informaziorik gabe. Milner-entzat zentzu hertsian izango litzateke anafora.

Zentzu hertsian, anafora gertatuko litzateke B adierazpide baten interpretazioa A adierazpidearen menpe dgoenean, B adierazpideak osoki edo partzialki berreskuratzen duelarik A adierazpidea.

Hala eta guztiz ere, Thatcher-ek (1999) ohartarazten gaituen bezala, Milner-en proposamenean ez da egiten erreferentearen eta erreferentziaren arteko bereizketarik. Erreferentziari buruz hitz egiten duenean erreferentea ulertu beharko genuke. Ohartarazpen berdina egiten digute Caharaudeau-k eta Maingueneau-k:

> Milner-ek erreferente zentzuan erabiltzen du erreferentzia. Erreferentzia aktualaren eta birtualaren nozioek lexiko eta diskurtsoaren arteko bereizketa zeharkatzen dute. Erreferentzia birtualaren nozioa zentzu lexikalaren sinonimoa izan badaiteke, erreferentzia aktualarena ez dator bat diskurtsoan hartzen duen zentzuarekin, azken honek enuntziazio-egoerarekin lotura duten informazioekin baitu zerikusia, enuntziatzaileen arteko harremanarekin, haiek dakitenarekin, hartzen duten posizio enuntziatiboarekin… komunikazioaren erritualekin, diskurtso-generoarekin, hartzailearengan eragin nahi den efektuarekin. (Caharaudeau eta Maingueneau, 2002: 488).

Kleiber-entzat anafora testuaren esparruko fenomenoa da:

> Une expression dont l'interprétation référentielle dépend d'une autre expression… mentionnée dans le texte et généralemente appélé son antécédente et cette interpretation doit nécessairement se réaliser par la prise en compte de l'antécédent (Kleiber, 1994: 22).

Beraz, Kleiber-en definizio horretatik albo batera geratuko lirateke erreferentziakidetasun ez anaforikoak («*NDFko finantza zuzendaria… Strauss-Kahn*» tankerakoak), non adierazpideak independenteki interpreta daitezkeen. Horrela, Milner-ek anafora presuposizionaltzat dituen kasuetan Kleiber-entzat ez dago anaforarik, baizik eta erreferentziakidetasun hutsa.

Kleiber-entzat anafora testuaren esparruko fenomenoa da eta hizkuntzazkoa ez den testuinguruan du sorburua, baina horretaz gain, oroimenezko fenomenoa ere bada. Beste egile batzuentzat ere, Picabia (1990) kasu, bi izen-sintagmen arteko harreman asimetrikoaren emaitza da anafora; bigarren segmentuaren interpretazioa aurrekari baten menpe dago. Erreferentziakidetasuna, aldiz, A eta B segmentuen arteko berdintasun-erlazioa da; A-ren eta B-ren interpretazioak beregainak dira, baina elkarri egiten diote erreferentzia. Anaforak zeharka antzematen du aurrekaria; erreferentziakidetasunak, ordea, zuzenean. Adibide batzuetatik abiatuta, ikus dezagun ematen duen azalpena:

(101) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Itsas txakurra hainbat egun egon da lur bazterrera hurbildu gabe.

(102) Itsas txakur bat agertu da Donostiako portuan. Itsas txakur hori hainbat egun egon da lur bazterrera hurbildu gabe.

[I*a*]-k (*Itsas txakurra*) zirkunstantziak hartzen ditu kontuan (*agertu da*) eta lehendabiziko esaldiaren bitartez interpretatu behar da. [I *hori*]-k (*Itsas txakurr hori*), ordea, erakuslearen bidez erreferentea zuzenean izendatzen du eta erreferentziakide da lehendabiziko sintagmarekin [I *bat*] (*Itsas txakur bat*).

(103) Hegazkin bat erori zen atzo. Hegazkina Miamitik zetorren.

(104) Hegazkin bat erori zen atzo. Hegazkin hori Miamitik zetorren.

[I*a*]-k (*hegazkina*) zirkunstantziak hartzen ditu kontuan (*erori da*) eta lehendabiziko esaldiaren bitartez interpretatu behar da. [I *hori*]-k (*hegazkin hori*), ordea, erakuslearen bidez erreferentea izendatzen du zuzenean eta erreferentziakide da lehendabiziko sintagmarekin [I *bat*] (*hegazkin bat*).

Bestalde, Picabiaren iritziz zati batek osotasunarekin duen harremanean erreferentziakidetasuna egongo litzateke eta ez anafora, esatariak eta hartzaileak munduaren gainean duten ezagutza komunari esker gerta daitekeelako inklusio erreferentziala, «*besaulki… bizkarralde*» kasuan bezala.

(105) Besaulki bat erosi dut eta bizkarraldea konpondu behar zaio

Bestalde, izen-sintagma errepikatuta agertzeak ez du esan nahi erreferentziakidetasuna dagoenik:

(106) Euskaldunek (diasporako euskaldunek) hitz egiten dute euskaldunentzat.

(107) Pablok bost lehoi hil ditu eta nik hiru (lehoi).

Ez dira ez euskaldun berberak ezta lehoi berberak ere. Anafora horiek esanahia berrartuko lukete, baina ez aurrekariaren erreferente berbera.

(«*Besaulki… bizkarralde*») adibideari dagokionez, Picabiarentzat ez bezala, Reichler-Béguelin-entzat (1988) izen-sintagma batek ez duenean esplizituki berrartzen aurrekari bat (*bizkarralde*), anafora-kasua izango genuke, zehazkiago, asoziaziozko anafora bat, munduaren ezagutza partekatuan oinarritzen dena. Azken egile horrentzat erreferentziakidetasunaren kasuan diskurtsoan agertzen den objektu bati buruzko informazio berria dugu; baina bigarren agerpena ez dago lehendabizikoaren menpe. Reichler-Béguelin-entzat goiko adibideak (*hegazkina* eta *hegazkin hori*) anaforikoak dira eta haien arteko bereizketa testuinguruan hartzen duten balio semantikoan datza. Bere ikuspegia hobeto azaltzeko, beste bi adibide erabiltzen ditu egileak:

(108) Basoan munstro bat bizi zen. Munstroa hiletsua zen.

(109) Gaur goizean janzkera bitxia zuen gizon bat ikusi dut kalean. Gizon horrek laguntza eskatu dit.

*Monstruoa*ren adibidean lehendabiziko izen-sintagmak (*munstro bat*) diskurtsoaren entitate jakin bati egiten dio erreferentzia, baina ipuin fantastiko baten pertsonaia denez eta, horrenbestez, aski ezaguna, posible da hurrengo sintagman entitate berdinari erreferentzia egitea artikulua duen izen-sintagma baten bitartez; artikuluak objektu identifikatu bat izendatzen du, ezaguna dena mundu diskurtsiboan. *Gizon horrek* agertzen den adibidean, aldiz, izen-sintagma horrek diskurtsoaren entitate identifikatugabe bati egiten dio erreferentzia, gizon bat askoren artean, eta bigarren sintagma horretan agertzen den erakusleak egiten duena da diskurtsoaren objektu hori mugatu beste gizakume guztiekiko.

Combettes-ek (1998) erreferentziakidetasunari buruz hitz egiten du soilik, eta bi kasu bereizten ditu: erreferentziakidetasuna dagoela ulertzeko errealitateari buruzko informazio bat beharrezkoa denean, eta tematizatzen den zatia testuinguruaren bidez bakarrik identifika daitekeenean.

Honela definitzen du anafora Reichler-Béguelin-ek (1988): enuntziatu zati bat, normalean izenordaina edo izen-sintagma definitu edo erakuslеduna, bere interpretaziorako beharrezkoa duena aurretik agertu den elementu batera jotzea.

Cornish-entzat (2009) anafora eta erreferentziakidetasuna batera agertzen dira sinonimoen kasuan, eta anaforarik gabeko erreferentziakidetasuna egon daiteke sintagma batek ulertua izateko munduari buruzko ezagutzak behar dituenean.

Nolanahi ere, gogora dezagun berriz ere ereferentziakide diren bi adierazpide ez direla halabeharrez sinonimoak. Charaudeau-ren eta Maingueneau-ren (2002) aburuz kontu hau oso garrantzitsua da izendatze-paradigmei (Mortureux, 1993) buruz hitz egiten denean; izan ere, izendatze-paradigmak osatzen dituzten adierazpide guztiak dira erreferentziakideak eta anaforikoak, partekatzen duten aurrekariarekiko, behintzat, baina horrek ez du esan nahi sinonimoak direnik; osatzen dituzten izen-sintagmen arteko hizkuntzazko harremanak edo loturak askotarikoak dira: «*itsas txakurra… animalia hori… pizti/zomorro hori… ugaztun hori*».

Kleiber-entzat bezala, Cornish-entzat ere anafora egon dadin oso garrantzitsua da zentzua, baina zentzu hori ez da lotzen halabeharrez sintagma aurrekariarekin. Egile biek interpretazioak jokatzen duen zeregin garrantzitsua azpimarratzen dute.

Bestalde, diskurtsoaren analisiaren ikuspegitik erreferentziakidetasunak identifikatzeak birformulazioaren esparrua mugatzea ahalbidetzen du, baina baita ere, diskurtsoak datu bat eraikitzen duenean zein alderdi hartzen dituen kontuan mugatzen:

> En analyse de discours, la recherche de coréférences permet de circonscrire le champ de la reformulation, mais aussi de cerner les facettes sous lesquelles une même donnée est schématisée, construite par le discours. Comme l'anaphore et la cataphore, la coréférence donne un accés privilegié à la construction de l'objet de discours (Charaudeau eta Maingueneau, 2002: 148).

Anaforaren eta erreferentziakidetasunaren arteko bereizketa dela-eta, laburbilduz, Milner-entzat eta Corblin-entzat, testuinguru linguistikoan edo kotestuan agertzen diren bi unitatek erreferente berdina dutenean, bien artean sortzen den identitate-harremana adierazten dute anaforak eta erreferentziakidetasunak. Erreferentziakidetasunaren kasuan, bakoitza bere aldetik interpreta daitezkeen unitateak jartzen dira harremanetan. Anafora-kasuetan, aldiz, anaforizatu den elementuaren bidez egingo litzateke interpretazioa. Ikuspegi honetatik erreferentziakidetasuna eta anafora fenomeno ezberdinak lirateke.

Ikusten dugun bezala, interpretazio anitz dago anaforaren eta erreferentziakidetasunaren inguruan, baina orain artekoa laburbilduz, esan dezakegu bi hurbilbide nabarmentzen direla anafora nominalaren interpretazioari dagokionez. Lehendabizikoan anafora-harremanen simetria defendatzen dutenak daude; ikuspegi horren arabera, bi elementuren arteko harremana anaforikoa izango da erreferentziakidetasuna baldin badago («*auzokoa… mutil hori*»), baina erreferentziakidetasuna egoteak ez du esan nahi harremana anaforikoa denik («*etsipena… etsipena*»). Bigarren kasu hori errepikapen hutsa izango litzateke; aurrekoan, aldiz, *mutil hori* adierazpideak erreferente bat du diskurtsoaren unibertsoan

eta *auzokoa* adierazpideak ere bai, eta erreferente biak berdinak dira, biek izendatzen dute munduaren entitate berdin bat, baina era ezberdinetan; aurrekari baten bila jo behar dugula adierazten duen erakuslea eta oroimen diskurtsiboa dira anafora eragiten dutenak. Nolanahi ere, anafora B elementuaren interpretazioan oinarritzen da, hau da, B-ren erreferentea zein den argitzeko A aurrekari batera jo behar dugu.

Bigarren hurbilbidean, anafora-harremanen asimetriaren alde egiten dutenen artean ere interpretazio ezberdinak daude, nahiz eta, oro har, esan dezakegun kasu honetan anafora izan dadin ez dela beharrezkoa elementu biren arteko erreferentziakidetasuna.

Anaforaren izaera simetrikoa (Bien arteko osagarritasun-harremana)	Anaforaren izaera asimetrikoa (Bien arteko bereizketa-harremana)
[+erreferentziakidetasuna] [+anafora]	[+erreferentziakidetasuna] [+anafora]
[+erreferentziakidetasuna] [–anafora]	[–erreferentziakidetasuna] [+anafora]

Kasu batean zein bestean, anaforizatzailea izen-sintagma bat izango da, baina ez da inoiz mugagabea izango, ezaugarri hori aurrekariari baitagokio.

Kleiber-entzat (1994), erreferentziakidetasuna dagoela esateko ez da beharrezkoa erreferentea bere osotasunean egiaztatzea, kasu askotan metonimiak argituko luke harreman hori. Era berean, erreferente ebolutiboen kasuan («*Egosi sagarrak. Jarri konpota plater batean*»; «*Lumatu oilasko bat eta sartu laban… Jarri zatiak/ Egin lau zati…*») ezingo litzateke esan erreferenteak ezberdinak direnik, ez baitira bi sagar ezberdin edo bi oilasko ezberdin.

Bestalde, Kleiber (1999) asoziazio bidezko anaforaren definizio estu batetik abiatzen da. Horren arabera, asoziazio bidezko anafora [Izena + -a/-ak/-ok] formaren pean ager daiteke soilik, hots, izen-sintagma artikulu mugatuarekin, ondorioz, elementu hori semantikoki autonomoa izango da, ez baitago mendekotasun semantikorik beste elementu batekin, horregatik esaten da alienatua dagoela, baina horrek ez du esan nahi hurrengo adibide honetan *ezkia* eta bere *enborra* bananduta daudenik edo bi gauza ezberdin direnik:

(110) Ezki baten pean babestu zen. Enborra zeharo kraskatuta zegoen.

Honela azaltzen du alienazio-baldintza: «Le référent d'une anaphore associative doit être présenté ou donné comme aliéné par rapport au référent de l'antécédent» (Kleiber, 1999: 85). Lehenengo kasuan entitate biak autonomoak izan daitezke, hau da, ontologikoki askeak izan daitezke; kasu horretan, asoziazioa gertatzeko ez litzateke beharrezkoa izango alienazio-baldintza betetzea. Horrekin guztiarekin

anaforen fenomenoa ez dela soilik arazo interpretatiboa erakutsi nahi du Kleiber-ek. Gorago esan bezala, haren ustez, oso lotuta baitago parte hartzen duten osagaien arteko erlazio semantikoarekin. Bukatzeko, laburbil dezagun zenbait ideia.

Pino Serranok (1991: 483) anafora eta artikuluari buruzko lan batean egiten duen sintesia baliatuko dut anaforaren funtzionamenduari buruz zenbait alderdi azaltzeko. Anaforari dagokionez, egilearentzat berrartze-elementua den aldetik, mugapen erreferentzialezko testuinguruan agertzen da eta artikulua zein erakuslea erabiltzen du determinatzaile gisa. Erakusleen agerpenak kotestuarekiko lotura adierazten du beti, berrartzean oinarritzen da; artikuluaren kasuan, ordea, harreman hori ez da sistematikoa ezta beharrezkoa ere kasu guzti-guztietan. Zenbaitetan, artikuluaren lekuan erakuslea ager daiteke arazorik gabe eta horrek laguntzen digu elementu hori berrartze moduan identifikatzen. Beste batzuetan, ordea, trukaketa hori ezinezkoa da eta interpretazioa egiteko modu bakarra testuinguruaren edo kontestuaren bidez da; hori gertatzen da, hain zuzen, asoziaziozko anaforaren kasuan, edo zenbaitek esaten dion bezala, erreferentzia inplizitoaren kasuan. Koordinazioan dauden bi elementuren kasuan berrartzea determinatzaile mugatuaren bitartez besterik ezin da egin, eta ez erakusleaz, ez bada, behintzat, elementu biei batera egin nahi zaiela erreferentzia. Esan daiteke, beraz, artikuluak hainbat baldintza bete behar duela anaforikoki erabilia izateko, eta, horrenbestez, erakuslea egokiagoa dela anafora leialen kasuan eta artikulua anafora ez-leialen eta asoziazio bidezkoen kasuan. Hala eta guztiz ere, Pino Serranok azpimarratzen duen bezala, aztertu egin beharko litzateke zein diren erabilera batean eta bestean testuinguru sintaktikoak eta kasuan kasuko funtzioek duten eragina eta ezartzen dituzten baldintzak.

Bukatzeko, atal honetan sartzen diren anaforei anafora nominalak edo lexikalak esango diegu. Berrartze mota horien burua beti da izen bat, gehienetan izen-sintagma baten burua, eta izen-sintagma horren determinatzailea da anafora-prozesua ziurtatzen duena. Litekeena da, baina, anaforizatzailean agertzen den izena eta aurrekariarena ezberdinak izatea. Litekeena da, gainera, sorburukoa aditz bat izatea eta anaforizatzailean izen-sinatagma bat agertzea, are gehiago, litekeena da enuntziatu luze bat izatea aurrekaria. Nolanahi ere, anaforizatzailea beti izango dugu izen-sintagma mugatua (erakusle batez edo artikulu batez).

Gauzak horrela baina, sail honetako anaforei nominalak edo lexikalak esango diegun arren, hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, hainbat multzotan bil daitezke erakusten dituzten ezaugarrien arabera.

9. Zenbait azpisail izen-sintagma anaforikoen barruan

Thatcher-ek (1999: 97) hurbilbide ekletiko bat hartzen du erreferentziakidetasuna eta anafora aztertzeko orduan, eta hemen ere bide berari ekingo diogu. Gainera, analisia eraginkorragoa egite aldera, Moirand-ek (1990: 19) egiten duen bezala definituko dugu erreferentziakidetasuna: «Testuak aintzat hartzen duen unibertsoko elementu berbera irudikatzen duen hizkuntza-operazioa»[8]. Horren arabera, beraz, erreferentziakidetasuna erreferente berdina duten termino lexiko beregainen arteko harreman simetrikoan datzala onartuko dugu.

Ondorioz, honela definituko dugu erreferentziakidetasun-katea: «Diskurtsoko objektu berbera identifikatzea ahalbidetzen duten adierazpide erreferentziakideen segida» (Masseron eta Schnedecker, 1988: 113).

Ikuspegi horretatik, «*Gizon bat… gizon hori / baserritara / nekazari hori»* erreferentziakideak izango lirateke.

Lehenengo berrartzean errepikapenaren bitartez geratzen da nabarmen sintagma bien arteko erreferentziakidetasuna («*Gizon bat ikusi dut… gizon hori»)* eta batak izendatzen duen erreferentea eta besteak izendatzen duena berdinak dira. Erabateko erreferentziakidetasuna izango genuke. Erreferentziakidetasun hori, halaber, ez da aldatzen sintagma berrian informazioa gehitzen bada ez eta sintagma berri horretan aurrekoan agertzen zen elementuren bat galtzen bada ere: «*Gizon bat… gizon handi hori*», «*Gizon handi bat… gizon hori*».

Beste kasuetan, «*Gizon bat ikusi dut… baserritara… nekazari hori»*, berrartze moduan erabiltzen diren elementuen erreferenteak ezin dira zuzenean atzeman, baina bigarren sintagma horietan badaude elementu gramatikal batzuk laguntzen digutenak erreferentea identifikatzen; izan ere, artikuluaren (*baserritar-a*) eta erakuslearen (*nekazari hori*) erabilerak testuan aurretik agertu den elementu batekiko harremana adierazten du: erakusleak kotestuan dagoen zerbait seinalatzen duelako eta artikuluak dagoeneko ezaguna den zerbaitetaz ari garela adierazten duelako.

Erreferentziakidetasuna garbiagoa da izenordainen kasuan, aurreko atal batean ikusi den bezala; gainera, erabatekoa edo partziala izan daiteke, izenordain batzuek

8. «Opération linguistique qui représente “un même élément de l’univers auquel référe le texte”».

(bata/bestea, batzuk/beste batzuk…) aurreko elementu batek adierazten duen erreferentearen zati bat bakarrik izendatzen dutelako:

(111) Bi gizon etorri dira. Bat atean geratu da, bestea sukaldean sartu da.

Erreferentziakidetasuna dugu izen bereziak erabiltzen direnean ere:

(112) NDFko zuzendaria atilotua izan da ustezko bortzaketa batengatik. Badirudi Strauss-Kahn ibilbide politikoa arriskuan dagoela.

Anaforari dagokionez, kasu honetan ere Thatcher-en (1999) erabakia gurea eginik, honela definituko dugu: «Aldi berean testuaren arlokoa eta oroimenaren arlokoa den fenomenoa, bere interpretazioa egiteko aurrekari bat behar duena». Litekeena da lehendabiziko adierazpidea kotestuan (testuinguru linguistikoan) identifikaezina izatea, edo testuingurutik edo kotestutik ateratako inferentziak behar izatea haien interpretazioa egiteko.

Ondorioz, era ezberdinetako anafora-harremanak bereizten ditu: anafora leialak, non erreferentziakidetasuna erabatekoa den; anafora ez-leialak, non erreferentziakidetasuna mantentzen den anaforizatailean izen berri bat agertu arren; eta anafora kontzeptualak, non anafora-harremana interpretatzeko testuingurutik ateratako inferentziak behar diren. Kasu horretan ere erreferentziakidetasuna egongo litzateke.

Gure aldetik, anafora-harremanen asimetria onartuko dugu eta, beraz, erreferentziakidetasunean oinarritzen ez den anafora-talde bat ere badagoela onartuko dugu. Hala eta guztiz ere, erreferentziakidetasuna dutenen artean anafora-harremanak oso modu ezberdinetan ezar daitezke, eta hori kontuan harturik, izen-sintagma anaforikoen multzo handi honen barruan beste zenbait azpimultzo bereiz dezakegu, bi nagusiki: anafora leialen eta ez-leialen multzoak, edo beste era batera esanda, elementu lexikal berdinaren errepikapenean oinarritzen direnak eta ordezkapen lexikalean oinarritzen direnak.

Nolanahi ere, testu batean saretzen diren erreferentziakidetasun-kateak identifikatu bahi baditugu, xehetasun gehiagoren premia dugu, eta horiek apur bat argitzeari eskainiko dizkiogu hurrengo azpiatalak.

Ikusi dugun bezala, gaia aztertu duten hizkuntzalari gehienek anafora-harremanen asimetriaren alde egiten dute. Hortaz, anafora guztiak ez direla erreferentziakidetasunean oinarritzen onartuko dugu. Gauzak horrela, sailkapen erako hau proposatuko dugu xehetasunetan sartzeko abiapuntu moduan:

Anafora nominalak edo lexikalak	
Erreferentziakidetasunean oinarritzen diren anafora-harremanak [+erreferentziakidetasuna] [+anafora]	Erreferentziakidetasunean oinarritzen ez diren anafora-harremanak [–erreferentziakidetasuna] [+anafora]
• Izenordain anaforikoak • Erakusle generikoak edo neutroak • Erakusleetatik eratorritako forma generikoak • Leku- eta espazio-adberbioak • Aurreko segmentuaren errepikapenean oinarritzen diren anaforak: anafora leialak • Ordezkatze kexikalean oinarritzen diren anaforak: o Izen-sintagma generikoak o Kontzeptuzko anaforak	«-A» artikulu zehaztuaren bidezko anaforak

Edozelan ere, hurrengo azpiataletan ikusiko dugu kasu bakoitzean hartu den erabakia eta haren arrazoiak. Kanpoan utzi ditugu, hala ere, elementu isilak, nahiz eta anafora-harremanetan elipsiak ere sarri agertzen diren.

9.1. ERREPIKAPENEAN OINARRITUTAKO ANAFORAK: ANAFORA LEIALAK

Anafora leialari dagokionez, bat egingo dugu Thatcher-ekin (1999) esaten duenean tankera honetako harreman anaforikoen ezaugarria dela erreferituaren errepikapen literala. Funtsean, beste lan batzuetan ikusi den bezala (Garcia Azkoaga, 2004; Diaz de Gereñu eta Garcia Azkoaga, 2009), aurrekaria izen-sintagma bat izaten da eta izen-sintagma osoa eta haren burua dira errepikatuta agertzen direnak. Izen-sintagma aurrekariak dituen baino elementu gutxiagorekin zein gehiagorekin ager daiteke osatuta izen-sintagma anaforizatzailea. Aurrekariak izan ditzakeen izen-osagarriak, epitetoak, erlatibozkoak eta bestelako elementuak albora utz daitezke adierazpide anaforikoan: *Basoan gordeta zegoen etxe batera iritsi ziren. Etxea zaharra zen baina zainduta zirudien*. Berrartze partzialari buruz hitz egingo genuke orduan. Baina aurrekari den izen-sintagman horrelako elementuak agertu ez arren, litekeena

da berrartze anaforikoan agertzea; anaforizatzailea, gainera, dagokion deklinabide-markarekin ager daiteke. Kasu horietan guztietan, berrartzea lagungarria izaten da diskurtsoaren jarraitutasunean informazio berriak sartzeko; izan ere, aurrekariari buruzko informazio osagarria ere eman dezake izen-sintagma anaforizatzaileak.

(113) Zaldi bat dago zelaian. Zaldia / Zaldi hori / Zaldi eder hori / Zelaian dagoen zaldi hori / Zaldiarengana…

(114) Zaldi eder bat dago zelaian. Zaldia / Zaldi hori / Zaldi zuri hori / Zaldi zoragarri hori / Zaldiarekin…

Zenbait egilerentzat nominalizazioarena izango litzateke anafora leialen artean kokatu beharko litzatekeen beste kasu bat. Moirand-i (1975: 64) jarraituta, esate baterako, diskurtsoaren esparruan, nominalizazioa anafora leialetatik gertu egongo litzateke aditza formalki eta semantikoki berreskuratzen duenean; nahiz eta biak kategoria gramatikal ezberdinetakoak izan, semantikoki gertu dauden bi elementu izango genituzke kasu bietan. Egilearentzat, ordea, horrek ez du esan nahi berrartzean nominalizazioa agertzen den guztietan anafora-harremana dagoenik. Berrartzea erakuslearekin egiten denean anafora-kasu baten aurrean geundeke, erakusleak anaforikoki bidaltzen gaituelako kotestuan aurretik agertu den elementu batera.

(115) Lan egingo zuela agindu zuen. Egunak igaro arren ez zuen agindu hori bete.

Ez litzateke anaforarik izango, aldiz, beste determinatzaile batzuekin agertzen diren nominalizazio-kasuetan:

(116) Lan egingo zuela agindu zuen. Egunak igaro arren ez zuen agindua bete.

Azken kasu horietan bereizketa semantikoa gertatzen da aditzaren eta nominalizazioaren artean.

Agindu, gorakada, salaketa ez dira hiru dimentsioko espazio batean koka daitezkeen entitateak, pertsonak, animaliak edo objektuak ez bezala; ikuspegi semantikotik entitate fisiko eta material horiek euren buruarekin ezartzen dute erreferentzia. Nominalizazioaren bidez sortutako izendapenek, ordea, prozesu baten emaitza adierazten duten entitateak ditugu.

Hori kontuan hartuta, aurrekariarekin erro lexikoa partekatzen badute ere, aditu batzuen ustetan anafora kontzeptualen sailean kokatu beharko lirateke era honetako berrartzeak. Horrela egingo dugu hemen ere.

9.1.1. Errepikapena dela-eta

Oso elementu soilak badirudite ere, anafora leial hauetan erabiltzen diren errepikapen-mekanismoek testuaren eduki tematikoa garatzen laguntzen dute eta oso eraginkorrak izaten dira, baita beharrezkoak ere zenbait testutan, esate baterako, zuzenbide eta zientziaren arloko testuetan, literaturan, edo ahozko narrazioetan.

Hizkuntzen irakaskuntzan ematen den ohiko instrukzioa da errepikapenak saihestea, baina gizartean erabiltzen diren benetako testu idatzien azterketak erakusten duen bezala, errepikapena ezinbesteko mekanismoa izan daiteke anbiguetateak ekiditeko orduan eta, bereziki, literatur estiloa baliatzeko. Interneten bertan euskaraz eskura dauden hainbat ipuinetan ikus dezakegu errepikapenaren erabilera hori.

Egia da narrazioetan, adibidez, pertsonaiak era ezberdinetara izendatuta ager daitezkeela; izan ere, kontakizuna aurrera joan ahala egoera berriak sortzen dira eta pertsonaien estatusa aldatu egin daiteke:

(117) Oilarduna / oilar saltzailea / goizian goizik oilarrekin dabil han gizon hau / hain goizik es altxatu lan egiteko oilarrak saltzeko / hoinbeste oilar saldu du nun: / nekazari: / aberats bilakatu baita / Nineu / deitzen dugu guk / Nineuk baditu holako // (kontalariak harro plantak keinuz) gainetik beiratzen zaitu beti / Nineu! Nineu pa!… (DG)

Hala eta guztiz ere, ahozko narrazioen kasuan ikusi den bezala (Garcia Azkoagak eta Diaz de Gereñuk, 2009), errepikapena oso estrategia erretoriko ohikoa eta baliagarria da eta garrantzizkoa gauzak memorian finkatzen laguntzeko. Horrelakoetan, gainera, errepikapenak elementu ikoniko moduan agertzen dira, entzuleen irudimenari eragiteko irudikatze- eta pertzeptzio-estrategia gisa erabiltzen dira.

(118) Herriko neska mutil guztiak / eskolara abiatu ziran […] irakaslearen izena zan Don / Don Seriyo! Don Seriyo oso irakasle serio serioa zan / bigoteak zituen luze luze / luze / luzeak (haurrak parrez) egun batez / Don Seriyo […] kajoiaren barrenetikan egun hartan zer atera? egurrezko / regla bat Don Serio / egurrezko regla hura eskuetan zula / ekarri zuen gora / altxatu zuen goraino / eta egurrezko regla hura airean astinduz / alde batera egin zuen bere indar guztiyekin! zirin! […] (DG)

Errepikapena erabili zein hitz berria erabili, narrazioetan izendapenaren funtzioa da garrantzizkoena, eta horrek baldintzatzen ditu berrartzeko orduan egiten diren aukeraketak.

Narrazioaren kasua alde batera utzita, beste testu batzuetan ere oso ohikoa da, eta batzuetan baita ezinbestekoa ere, errepikapena. Araudietan, esate baerako, aukera baino beharra izaten da terminoen errepikapena, testuak bere zehaztasuna gal ez dezan:

(119) b) Unibertsitateko ikasketak atzerrian hasi dituzten ikasleak. Ikasle horiek, betiere lehenengo mailako 30 kreditu konbalidagarri aitortuta badituzte, onarpen eskaria egingo behar dute matrikula egin nahi duten ikastegiko idazkaritzan 2015eko ekainaren 29tik uztailaren 3ra bitartean, eskariarekin batera ikaslearen ziurtagiri akademikoa aurkeztuta; eskari horiek dekanoak/ zuzendariak ebatziko ditu (errektoreak eskumenak eskuordetuta) (Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegia – 2015/2016 ikasturtea).

(120) d) Goi mailako eta errendimendu altuko kirolariak: Goi mailako eta errendimendu altuko kirolarien espedienteak lekuz aldatzeko eskariek lehentasuna izango dute kasuan kasuko ikasketetan horretarako gordeta dauden plazak esleitzean, betiere, leku aldaketaren arrazoia kirola arrazoien ondorioz bizilekuz aldatu behar izana bada, eta bat etorrita uztailaren 13ko 971/ 2007 Errege Dekretuak, gai mailako eta errendimendu altuko kirolariei buruzkoak, 9.10 artikuluan zehaztutakoarekin (Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegia – 2015/2016 ikasturtea).

(121) Kreditutan egituratuta ez dauden ikasketa planetan honela kalkulatuko da batez besteko nota: Gainditutako irakasgaien batuketa, horietako bakoitza aurreko taularen arabera dagokion kalifikazioaren zenbakiagatik biderkatuta. Batura zati kasuan kasuko titulazioko irakasgaien kopuru osoa egingo da. Lauhileko edo seihileko irakasgaien kasuan, kalifikazioaren balio erdia hartuko da batuketarako eta irakasgaiaren erdia zatitzailean. Karrera amaierako proiektua urte osoko irakasgaitzat hartuko da (Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegia – 2015/2016 ikasturtea).

Anbiguetatea saihestea bilatzen dute testu teknikoek ere:

(122) Aipatzekoa da Australiako osasun-sistemaren bi ospitaletan homeopatia erabiltzen dela, eta mediku askok agintzen dizkietela tratamendu homeopatikoak beren pazienteei. Horren aurrean, homeopatia arriskutsua izan daitekeela ohartarazi du ikerketa egin duen taldeak. Izan ere, homeopatia erabiltzeak tratamendu seguru eta eraginkorra baztertzea edo atzeratzea ekar dezake, eta, beraz, homeopatiaren ahalmen sendagarrian sinesten duen pertsonaren osasuna arrisku larrian egon daiteke (ELHUYAR, 2016ko maiatza).

(123) Egun pneumatiko erabilien kudeaketa interes handia berenganatzen ari da, alde batetik, euren isurketa eta pilaketak dakartzan ingurugiro arazoengatik eta, bestetik, pneumatiko erabilia material baliotsua delako ideia gero eta indar gehiago hartzen ari delako. Balioztapen prozesu desberdinen artean, pirolisia da irtenbide erakargarrienetarikoa. Izan ere, pneumatiko erabilia

> erregai gaseoso edo likido edota balio erantsia duten produktu kimikoen iturri bilaka liteke. Iturri-ohantze konikoa erreaktore egokia da pneumatikoen pirolisia modu jarraituan eta eragozpenik gabe egiteko […] (Maite Artetxe, Maider Amutio, Gartzen Lopez, Martin Olazar (2014), «Pneumatiko erabilien kudeaketa: pirolisia iturri ohantze konikoko erreaktorean», *Ekaia,* 27)[9].

Goiko adibide horretan, esate baterako, testu teknikoa dugunez, ez dirudi oso zentzuzkoa «kautxozko produktu (-ak/ hori)» erabiltzeak *pneumatiko* berrartzeko; izan ere, hitz hori da izendapen terminologikoa, kontzeptu zehatza adierazteko adituen artean erabiltzen dena, alegia. Dibulgazio-testu bat izango bagenu, ordea, zentzu handiagoa iango luke berrartzea beste era batera egitea, adibidez, kontzeptua azaltzen duen izendapenaren bidez («Kautxozko produktu hori») edo definizioaren bidez («Ibilgailuen gurpileko hagunean ezartzen den kautxu deformagarrizko pieza hori»); azken kasu horietan hartzaileak informazio gehigarri bat eskuratzen du termino teknikoa hobeto ulertzeko eta pirolisi-prozesuan sortzen diren produktu kimikoen oinarrian kautxoa dagoela ulertzeko.

9.1.2. Izen bereziak

Testu batean zehar agerian jartzen diren harreman anaforikoak identfikatzeko orduan, zalantza ager daiteke izen bereziekin. Demagun adibide hau dugula:

(124) Frantziako Tourra hasi eta buka, Mark Cavendishek (Dimension Data) bi etapa ezin irabaziko zituela pentsatuko zuten askok eta askok. […] Andre Greipel (Lotto) eta biek lehia estu bezain bikaina izan zuten azken metroetan, eta helmugako argazkiak Cavendish jo zuen irabazle (BERRIA, 2016-07-05)[10].

Greipel bakarra dagoen bezala, Cavendish bakarra dago. Greipel izenak petsona bati egiten dio erreferentzia eta Cavendish izenak ezberdina den beste bati. Bi izen, bi erreferente diskurtsoaren unibertsoan. Baina Cavendish bi aldiz agertzen da testu zati horretan. Lehenengo agerpeneko Mark Cavendishek eta bigarreneko Cavendishek entitate berbera izendatzen dute, erreferente berbera dute, eta, hortaz, erreferentekidetasuna dago aurrekariaren eta berrartzearen artean.

Anaforikotasunari dagokionez, ordea, bigarren agerpena interpretatzeko (Cavendish) ez dugu zertan jo aurrekarira, Greipel ulertzen den bezain ondo ulertzen baita Cavendish eta hartzaileak ez du inolako ahalegin interpretatiborik egin behar sorburura jotzeko. Interpretazio anaforikoa, beraz, ez da ezinbestekoa informazioa eskuratzeko.

9. <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ekaia/article/view/11633>.

10. <http://www.berria.eus/paperekoa/1812/016/001/2016-07-05/baten_faltan_bi_garaipen.htm>.

Charaudeau-k (1992) gogorarazten digun bezala, izen bereziak entitate bat bakar eta berezitu moduan izendatzea ahalbidetzen du. Horrela bereizten da izen arruntetik, azken horiek multzo berean sartzen baitituzte espezie bereko entitate edo izaki guztiak. Izakiak izendatzeko moduak eragiten du hura bakartzat hartzea (izen berezia) edo multzo baten partetzat hartzea (izen arrunta). Izatez, izen berezia mintzaira-operazio bat da. Operazio horren bidez, egoera jakin batean, hiztunak edo esatariak espezie multzo batetik kide bat ateratzen du eta kide horri propietatean dagokion izen bat esleitzen dio. Gorago jarri den adibidean, esate baterako, Cavendish izenak ez dio erreferentzia egiten Cavendish izena duten guztiei, indibiduo bati baino. Kontuan har dezagun nolanahi ere, izen bereziak ez direla bakarrik petsonak izendatzeko erabiltzen, besteak beste, animaliak, herriak, lurraldeak, instituzioak, jaiak izendatzeko ere erabiltzen baitira. Bestalde, badira funtzio konnotatiboarekin nahita erabiltzen diren izen bereziak ere, adibidez, narrazioetan pertsonaien ezaugarriak azpimarratu nahi direnean: *Don Seriyo, Nineu, Ahoandi*….

(125) Badakizue nik e ikasketak egin nahi nituen / errementari izateko! errementari:: delako gure:: / Ahoandi: alkatea bezela…

Hortaz, anaforaren definizioari estu atxikita, izen berezia honela ezaugarrituko genuke kasu honetan:

Izen berezia	
[+erreferentziakidetasuna]	[–anaforikotasuna]

Osagarritasun-harremana erakusten ez duten anaforen artean ikusi dugu lehen adibide hau:

(126) NDFko finantza zuzendaria atilotua izan da ustezko bortzaketa batengatik. Badirudi Strauss-Kahn ibilbide politikoa arriskuan dagoela.

Hor ere zalantzazkoa izan daiteke izen berezia berrartze anaforikotzat hartu behar dugun ala ez. *NDFko finantza-zuzendaria* eta *Strauss-Kahn* erreferentziakide dira, biek baitute erreferente berbera. Halabaina, Strauss-Kahn nor den jakiteko ez dugu zertan jo aurrekari baten bila, munduari buruz dugun ezagutzari esker identifika dezakegu zuzenean haren erreferentea. Lehenengo izendapena eta bigarrena beregainak dira, kasu batean zein bestean beste segmentu batetik igaro gabe iritsi gaitezke erreferenteraino, baina aldi berean, elkarri egiten diote erreferentzia. Hala eta guztiz ere, eskura dugun informazio hori munduarri buruz partekatzen dugun ezagutzari esker dela kontuan harturik, nolabaiteko izaera anaforikoa ere aitor dakioke harreman horri. Izan ere, ezagutza partekatu hori ez duenak ezin izango du zuzenean identifikatu *NDFko finantza-zuzendaria* dagokion erreferentearekin. Bestalde, elementu biak harremanetan jartzerakoan, izen bereziak izendatzen duen ereferentearen atributu zenbait ezagutzeko aukera dugu, izen bereziaren erabilera

hutsarekin ezkutuan gera daitezkeenak. Gauzak horrela, bat egingo dugu Thatcher-ekin eta anafora leialen artean egingo diegu lekua tankera honetako harremanei. Beraz:

Izen berezia	
[+erreferentziakidetasuna]	[+anafora]

Nolanahi ere, aukeratzen dugun anaforaren definizioak baldintzatuko du, neurri batean behintzat, izen berezien izaera[11]. Hala eta guztiz ere, testuaren ikuspegitik begiratuta, izen bereziaren agerpenak, erreferetziakidetasun hutsa izanik zein anafora izanik, kohesio-elementu moduan funtzionatzen du, testuaren barruko sare isotopikoak eraikitzen laguntzen duelako.

9.2. ORDEZKATZE LEXIKALAK

Thatacher-entzat erreferentziakidetasuna hertsia izango litzateke anafora leialaren kasuan eta ez-hertsia anafora ez-leialen kasuan. Anafora ez-leialen multzo honetan elementu lexikal berri bat agertzen da anaforizatzailean, ez da errepikatzen aurrekarian agertzen dena. Enuntziatuaren eremu semantikoa zabaltzen lagunzen dute, baina aurrekariarekiko erreferentziaidetasuna galdu gabe. Izenaren aldaketa ez da oztopo enuntziatua ulertzeko. Topikoa aktualizatzeko erabiltzen diren izen-sintagma hauek erakuslea (gehienetan) zein artikulua eraman dezakete determinatzailetzat. Batak eta besteak era ezberdinetan eramaten gaituzte aurrekarira. Anafora hauetan erakusleak adierazten du zein den aurrekaria diskurtsoan eta, goian esan dugun bezala, artikuluak adierazten du elementu hori dagoeneko ezaguna dela: *Gizon bat ikusi dut… baserritara… nekazari hori…* Kasu batean zein bestean anaforizatzailea aurrekariaren bidez interpretatu behar da.

Multzo honetan sartuko lirateke, halaber, eremu semantiko ezberdinetako izena duten ereferentziatzaileekin ezartzen diren anafora-harremanak: *langabetu bat… gente hori… gazteak…*

9.2.1. Izen-sintagma generikoak

Erakusle generikoen kasuan bezala, sail honetako izen-sintagmei ere generiko edo neutroak esango diegu oso izendapen orokorra egiteko erabiltzen direlako eta ez dutelako informazio osagarri handiegirik gehitzen. Oro har, hiperonimo moduan funtzionatzen dute. Sarritan, hitz egokiago baten faltan, zernahitarako elementu gisa erabiltzen dira. Hemen sartuko genituzke tankera honetako adierazpideak: *gauza*

11. Gainera, egiten den interpretazioa beharren araberakoa izan daiteke. Izen berezia berrartze anaforiko moduan interpretatzeak azalpen sakonagoa eska lezake hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, baina hizkuntzaren prozesamendu automatikoari begira, aldiz, litekeena da izaera anaforikoa argitzea baino garrantzizkoagoa izatea zein den haren erreferente partekatua ezagutzeko aukera ematen duen elementua eta zeintzuk diren harengana iristeko bideak ezagutzea.

horiek, gertaera horiek, elementu horiek, kasu horretan, kontu hori, egoera hau, fenomeno hau/hori… Topikoaren aktualizazioa horrelako berrartzeren baten bidez egiten denean ordezkapen lexikalari edo anafora ez-leialari buruz hitz egin dezakegu. Ikus dezagun adibide pare bat hain ohikoa den *gauza* hitzarekin:

(127) Horrek autoak, motoak eta itxurakeria bertzerik ez du buruan; maiteago du dirua zerriek sagarrak baino; halako aunitz ezagutu ditut, haietakoren batek pixka bat txoratu ninduen gaztetan, motoarekin edo autoarekin etortzen ziren nire bila, baina gauza horiek ez ninduten zoratu, eta behar den bezalako gizona bilatu nuen [*Eskaintza ekaitzari,* Dolores Redondo / Fernando Rey / Mikel Vilches (Erein, 2014), 45. or.].

(128) Tarte hori ondo etorri zaigula uste dut. Eta pluralean hitz egiten dut, Toni Toni Ruiz, prestatzaile fisikoa eta biok egon garelako urtebetez entrenatu barik. Hau hamaseigarren urtea dut entrenatzaile lanetan, eta aurreneko geldialdia izan da. Ez da jakiten nola hartuko duzun lanik gabe egotea, baina ondo etorri zaidala uste dut. Valladoliden azken urtean gauzak gaizki atera zitzaizkigun (Izenbururik gabe, Asier Legarda-Ereño, 2011-03-20).

Lehenengo adibide horretan (127) *gauza horiek* dugu berrartze anaforiko gisa. Berrartze horretan, *gauza* hitza semantikoki zehaztugabea da, ez du erreferente jakinik, baina bere ondoan agertzen den erakusleak barne-deixiaren bidez laguntzen digu aurretik agertu den aurrekaria identifikatzen, eta, horrenbestez, dagokion erreferenteraino heltzen (*autoak, motoak*…).

Bigarren kasuan (128) *gauza* hitza testuan aurretik azaltzen den gertaera bat oso modu orokorrean izendatzeko erabiltzen da, baina gertaera horiek ez dira izen batean gauzatzen eta izenak ez diren neurrian, ez dute erreferente jakinik, ez dute unibertsoko entitate bat izendatzen. *Gauza* hitza berrartze moduan erabiltzeak ez du zehaztasun handiagoa ekartzen.

Gramatikaren ikuspegitik *gauza* hitza izena da. Kategoria horretan sailkatuta agertzen da euskal hiztegietan. Izaki bizigabeak izendatzeko eta, baita ere, gertatzen, egiten, esaten… dena izendatzeko balio duen hitza dugu. Erreferentzia egiteko orduan, hiztunak duen baliabide erraza eta eskuragarria da *gauza* hitza, baita topikoa aktualizatzeko orduan ere. Hala eta guztiz ere, bere ezaugarri semantiko-erreferentziala kontuan hartuta, *gauza* hitzak izera pradojikoa du, Larringanek (2006) egiten duen hipotesiaren arabera. Egileak azaltzen duen moduan, azalez izena den arren oso gutxi du izenetik, erreferentzia bideratzeko balioa duen arren ez baitu «ezer esateko balio», ez du beste izenek duten funtzionamendua. Ez du unibertsoko entitate bat izendatzen. Egilearen hitzetan:

> «Gauza» hitzak ez du munduko entitateak «bataiatzeko» gaitasunik; horregatik, hitz horrekin izendatutako erreferenteak izenik gabeak dira, edota halakotzat hartu behar dira. Ez du beste izenek berariaz eta sortzetik izan ohi duten indar edo ahalmen deskriptiborik (Larringan, 2006: 12).

Gainera, *gauza* hitzak, bere zehaztugabetasuna dela-eta, identifikazio-indarra galduko luke, berrartze anaforiko moduan erabiliko balitz. Egileak jartzen digun beheko adibide horretan, esate baterako, ez litzateke egongo erreferentziakidetasunik *ordenadore* hitzaren eta *gauza* hitzaren artean. *Ordenadore* hitzak erreferente jakin bat du, objektu edo tresna zehatz bat (niri erosi didatena eta ez beste bat), unibertsoko entitate ezagun bat izendatzen duelako. Aurrekari hori berratzeko erabiltzen den *gauza* hitzak, ordea, ez du erreferente jakin eta ezagun bat, ordenadore bera (nirea) edo klase bereko beste edozein objektu izan daiteke erreferentea.

(129) Ordenadorea erosi didate. Gauza / gauza hau oso erosoa baina garestia da.

Hori dela-eta, Larringanen ikuspegitik, nekez erabil daitezke *gauza* edo *gauza hau* terminoak berbaldian aldez aurretik aipatuta edo emana dagoen erreferente bizigabe bat berrartzeko, baldin eta hura dagoeneko determinatuta badago. Erabilera kataforikoan, ordea, ez genuke izango arazo hori:

(130) Gauza asko ikasi nituen, pila bat, baina ondo eginikoak ere ikasi nituen: iparra ez galtzearen garrantzia, nor zaren ez ahaztea

(131) Argirik ez egoen eta, iluntasunean, gauza batekin topo egin nuen; erorita zegoen aulkiarekin hain zuzen.

Kasu horietan, katafora moduan funtzionatzen duen izen-sintagmak determinatzaile zehaztugabea darama eta, haren eraginez edukiak indeterminazio-kutsua hartzen badu ere, erabilera honek (129) adibidekoak baino naturalagoa dirudi edo erosoagoa egiten da, behintzat. Hasieran zehaztugabe dagoen entitatea ondoren identifikatzen da.

Izaera pragmatikoa dela-eta, *gauza* hitzaren presentzia eta ausentzia esanguratsuak direla nabarmentzen du Larringanek; bere zehaztasungabetasunak, adibidez, desegoki bihurtzen du testu tekniko eta espezializatuetan erabiltzeko, hor ez baitago lekurik zernahitarako hitzendako.

Halliday-k eta Hasan-ek (1976), elementu generikoei buruz hitz egiten dutenean, balio hauek esleitzen dizkiete: gizakiak orokorrean izendatzeko (*jende, pertsona, emakumea, gizona, gaztea*, etab.), izaki bizidunak, izaki bizigabe zenbakarriak (*gauza, objektu*) eta zenbakaitzak, nozio abstraktuak, ekintzak (*mugi, egin*), lekuak, etab. Gramatikaren eta lexikoaren artean dauden elementuak lirateke, klase lexiko itxiak osatzen diuztelako. Bestalde, izen generiko hauek era askotako esanahi interpertsonalak sartzea ahalbidetzen dute, esatariaren jarrera, iritziak, balioak, etab.

(132) Emakume batek asmatu zuen ontzi-garbigailua. Emakumea gizakumea bezain sortzaile izan daiteke.

(133) Beste korrupzio kasu bat esleitu diote Valentziako beste arduradun politiko bati. Jende horrek ez du eskrupulurik.

(134) There's *a boy* climbing that tree (*Mutiko* bat zuhaitz horretara igotzen ari da). *Those boys* are always getting into mischief (*Mutiko hauek* beti dabiltza bihurrikerietan).

(135) Gazteen artean oso modan dago txoko bat alokatzea koadrilarentzat. Leku horiek / lekuok makina bat eztabaida eragiten dute / Makina bat eztabaida eragiten duten lekuak dira.

Emakumea, *gizakumea*, *jende horrek, leku horiek* hitz orokorrak dira, klase osoaren gainetik dagoen hitz bat erabiltzen da adibide horien berrartzeetan.

Sarritan, sozialki eta kulturalki markatuak diren izendapen edo designazioak izaten dira eta osatzen duten klase lexikoan argota oso emankorra da (esan daiteke zernahitarako elementu hauek oso emankorrak direla eta zentzu eta esanahi ugari beregana ditzaketela).

Hortaz, berrartze orokor edo jeneriko hauek erreferente zehatzik gabeko erreferentziazko adierazpideak direla esan dezakegu. Zehaztasuna erakusleari esker eskuratzen dute, honek irakurketa anaforikoa egitera behartzen gaituelako. Erakuslerik ez dugunean pragmatikoki interpretatzen dugu erreferentziakide eta anaforiko moduan.

Nolanahi ere, orokortzaile hauek, erakusleekin gertatzen den bezalaxe (ikusi erakusleei eskainitako atala), laburbiltzaile eta hiperonimo diren neurrian, anafora kontzeptualen sailean ere txerta ditzakegu arazorik gabe.

9.2.2. Kontzeptuzko anaforak

Kontzeptualizazioa nozio baten zentzua argitzen edo zehazten laguntzen duen prozesua da. Prozesu horren bidez, norberaren eperientziatik eta ezagutzatik abiatuta, ideia abstraktuak edo kontzeptuak gara daitezke. Kontzeptualizazioaren bidez kontzeptu ezberdinen arteko loturak zehaztu daitezke, baita haien arteko harreman iherarkikoak ere, adibidez: *behia* → *ugaztuna* → *animalia*. Hori gertatzen da hiponimoak eta hiperonimoak erabiltzen direnean. Nolanahi ere, ezagutza hori ez dagokio bakarrik unibertsoko ente konkretu bati buruz dakigunari, enuntziatu bat edo predikatu bat ere kontzeptu batean bil daiteke:

(136) Jokalariak hamaika trikimailu erabili zuen partida irabazteko. Portaera hori ohikoa da profesionaletan.

(137) Aitonak aspaldiko gertakizun bat kontatu zigun. Ordura arte ez genuen izan istorio harrigarri horren berririk.

Hortaz, hizkuntzaz kanpoko errealitatearen ezagutzaz gain, errealitateari buruz dugun pertzepzioaren eragina ere badago kontzeptualizazioan. Ideia bat, esandako zerbait… kontzeptu batean labur daiteke, baina laburtzeaz gain haren gaineko ebaluazioak eta ikuspegiak isla daitezke eta horretarako estrategia kognitiboek ere hartzen dute parte. Kontzeptualizazioa oso emankorra da prozesu anaforikoen kasuan, alde batetik era askotako sinonimoak eta ordekapen lexikalak baliatzeko aukera eskaintzen duelako, baina batez ere aurrekariari buruzko informazioa zabaltzeko aukera ezin hobea eskaintzen duelako. Are gehiago, mundua ikusteko dugun moduak bere aztarna utziko du testuan.

Descombes-Dénervaud-ek eta Jespersen-ek honela definitzen dute kontzeptuzko anafora:

> La AC est le processus de nominalisation en ce N, le N, un tel N permettant de synthétiser par un syntagme nominal un segment de discours de longueur variable: syntagme verbal, phrase, énoncé, texte. Dans tous les cas, elle est résomtive, c'est-à-dire qu'elle résume (Descombes-Dénervaud eta Jespersen, 1992: 80).

Definizio horren arabera, beraz, kontzeptuzko anaforak zeregin laburbiltzailea du, gaitasuna duelako testu zati labur zein luze bat izen-sintagma baten (determinatzaile mugatua duena) bidez berrartzeko. Anafora mota hauek oso emankorrak dira argumentazioaren kasuan, bereziki enuntziazioaren ikuspegitik, ikusmira horrek esandakoa zein esateko modua kontuan hartzea eskatzen baitu. Horrela, diskurtso erreferitua ardatz hartuta, aipatutako egileek bi azpimultzo bereizten dituzte kontzeptuzko anafora hauen artean: enuntziatuaren gainean egindako anafora eta enuntziazioaren gainean egindakoa.

Enuntziatuaren gainean egindako anafora (Ae) edukiaren gainean egindako anafora bat da. Kasu honetan edukia kontzeptu baten bitartez laburtzen da. «De dicto» ere esaten zaion anafora kontzeptuala dugu hau (Olivares-Pardok ,1996).

(138) Negua igaro ondoren agertuko dela esan digu; agerpen horrek harritu egingo gaitu.

(139) Esan dit bihar hasiko dela gela berria diseinatzen. Aspaldi gaude diseinuaren (/bere diseinuaren/diseinu horren/delako diseinuaren) zain.

Enuntziazioaren gainean egindako anaforak (AE) enuntzaitu osoari eragiten dio. Esateari buruzko anafora da. Hura izendatuz, enuntziazioa azaltzen du. Diskurtsoa birsailkatzea eskatzen duen eragiketa metalinguitikoa da, sarritan, gaiarekiko iritzia edo jarrera agerian uzten duena eta ondoren datorren diskurtsoaren norabidea baldintza dezakeena. Alde horretatik, beraz, berrartze hutsa baino zerbait gehiago ere bada; izan ere, aurreko diskurtsoaren birformulazioa izan daiteke. «De re» ere esaten saio kasu honetan (Olivares-Pardok, 1996).

(140) Negua igaro ondoren itzuliko dela esan digu; adierazpen horrek ez gaitu harritu.

(141) Laster itzuliko dela adierazi dit; hori aspaldi genekien.

(142) Bizitza aurkia bada, ifrentzua da heriotza, halabeharrez. Baieztapen hori oinarri hartuta, heriotzak eta gaixotasunak literaturan izandako oihartzunaren inguruan solasean aritu ziren herenegun Angel Lertxundi eta Kirmen Uribe idazleak […][12] (BERRIA, 2016-5-17).

Hortaz, ezagutzan oinarrituta, anafora kontzeptualak sinonimo, hiponimo edo hiperonimo baten bidez berreskura dezake aurrekaria, baina horretaz gain, testuan egiten den ekarpena eta orientabide argumentatiboa kontzeptualizatzen du. Aurreko segmentu batean (edo atzetik datorren batean, jakina) esan dena laburbilduz eta, nolabait esateko, interpretatuz, agerian jar dezake esatariaren ikuspegia.

Anafora kontzeptualen artean ohikoak dira aditzen nominalizazioak ere. Zenbaitetan, aurreko enuntziatuan agertzen den aditz bat izen-sintagma baten bidez berrartzen da eta horrelakoetan badago nolabaiteko harreman semantikoa aurrekariaren eta berrartzearen artean. Aurrekariak baina, ez dio erreferentziarik egiten unibertsoko entitate konkretu bati, aditza izanik gauzei edo pertsonei eragiten dieten ekintzak, prozesuak edo egoerak adierazen baititu; ikuspegi semantikotik predikazio bat adierazten du.

Kasu hauetan berrartzea eta aurrekaria formalki ezberdinak dira tartean ordezkapen lexikal bat dagoelako, baina era berean nominalizazioak pentsamenduaren gai edo eduki berdina berrartzen du. Alde horretatik, nominalizazioaren kasuan erreferentziakidetasunari buruz hitz egin dezakegu, baina anafora leialen kasuan ez bezala, anaforizatze-prozesua zeharkakoa da eta ez zuzena.

(143) Langabeziak gora egin du azken urteotan. Krisia izan da gorakada horren eragile nagusia.

(144) Politikari ezagunak salatu dituzte ustelkeriaz. Salaketa horiek, ordea, ez dute eragin handirik izan.

12. <http://www.berria.eus/paperekoa/1887/032/001/2016-05-27/bisturia_eta_arkatza_mina_kontatzeko.htm>.

Laburbilduz, kontzeptuzko anafora oso baliabide emankorra da ez bakarrik topikoarekin aurrera egiteko, baizik eta bereziki argumentazioan eragiteko zein ideiak zehaztasunez adierazteko. Anafora hauek, bestalde, modu neutroenetatik konplexuenetaraino aktualiza dezakete topikoa, eta, alde horretatik, lexiko zabalaren jabe izatea eskatzen dute kontzeptualizazioaren aberastasuna ustiatzeko.

9.2.3. «-A» artikulu zehaztuaren bidezko anaforak

Charolles-en (1990) azalpenari jarraituta, erabilera guztietan bigarren posizioan agertzen den izen-sintagma definitu batek (B) aurretik agertu den izen-sintagma mugagabe bat (A) anaforizatzen du bien artean erreferentziakidetasunik izan gabe. Ekar dezagun gogora adibide hau: *Itsas txakur bat (A) agertu da Donostiako portuan. Domatzailea (B) aspaldi ari zen bila. Itsas txakur bat* izen-sintagmak entitate bati egiten dio erreferentzia eta *domatzailea* hitzak ezberdina den beste bati. Artikulua da bien arteko erlazio anaforikoa eragiten duena. Artikulua berez saturatu edo semantikoki betegabea da, esan nahi da, ez dela autonomoa erreferentziari dagokionez, baina aurretik agertu den izen-sintagma mugagabearekin duen harremanaren bitartez bereganatzen du zentzua. Horren arabera, interpretazioa endoforikoa da eta kotestuaren menpe dago; lotura bat ezartzen du sorburuko izen-sintagmarekin. Ezaugarri hori da, hain zuzen, asoziaziozko anaforak beste anaforekin partekatzen duena eta, azken batean, anaforatzat hartzea ahalbidetzen duena. Bi dira, beraz, anafora mota honen ezaugarri nabarmenenak: ez dagoela erreferentziakidetasunik A-ren eta B-ren artean bakoitzak munduko entitate desberdin bati egiten diolako erreferentzia, eta B posizioan agertuko den izen-sintagma beti joango dela artikuluaz mugatuta.

Artikuluaren erabilerak ahalbidetzen du A-ren eta B-ren arteko harremana ezartzea, baina baldintza batzuk ere behar dira bien arteko loturak bideragarriak izan daitezen, horregatik, ager daitezkeen ordezkapen lexikalak meronimia eta sinekdoke erlazioetan oinarritutakoak dira. Besteak beste, *Nueva Gramática de la Lengua Española* (2009: 1046-1049) eta *Euskal Estilo Libururantz* (2001: 284) lanetan adierazten diren era honetako loturak agertuko dira: osotasuna-zatia, entitatea-propietatea, ekintza-ondorioa, kausa-efektua, edukitzaile/edukia zein alboko elementuak dituguneanean.

(145) (Azkonarra. Deskribapena.) 90 cm inguru da luze, horietatik 18 bat buztanari dagozkiola, eta 30 cm garai. 15 kg ere pisatu dezake. Ilea latza eta disdiratsua du, gris kolorekoa, eta burua zuria, bi zerrenda beltzekin. Oso hanka laburrak eta indartsuak ditu, eta horietatik aurrekoak dira garatuenak. Muturra nabarmena du, mugikorra eta gihartsua, eta bereziki egokia lurrean zulatu eta uxar egiteko. Lepoa, berriz, motza eta zabala du[13].

13. Iturria: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Azkonar_arrunt>.

(146) Larrosa sorta bat oparitu zidaten eta egongelan jarri nuen lorontzi baten. Usaina etxe osoan zabaldu zen.

(147) Txurroak saltzeko negozio bat jarri zuen Pekinen. Irabaziak berehala etorri zitzaizkion.

(148) Oraindik argitu ez diren arrazoiengatik, sute bat piztu da gabeko 21:00ak inguruan […]. Eraikinetik irten den kea oso ugaria izan da[14].

(149) Istripu bat gertatu zela esanez deitu zuen gizonak berak larrialdi zerbitzura; adierazi zuen neskatoa eskaileretan behera erori zela eta kordea galduta zegoela. Anbulantzia iristerako hila zen (EPD – Izenbururik gabe, Garikoitz Goikoetxea, 2014-01-15).

(150) herri txiki hartan noski / bazan eskola bat […] neska mutiko guztiyak / pupitrearen azpitikan bakoitzak atera zuen bere arbela / bere arbel txikiya / atera zituzten klarionak (DG).

(151) Senarrak gomendatu didan liburu bat irakurri dut. Egileak primeran harikaltzen ditu liburuan agertzen diren istorio guztiak.

(152) Balkoira atera zen, eta beste tximista batek begiak ixtera behartu zuen. Tanta lodi bat erori zitzaion kopetan, eta barrura sartu zen; euriak ereinotz hostoetan egiten zuen hotsa entzuten hasi zen luze gabe. [*Ispilu hautsia*, Rodoreda, Merce / Antton Olano (Alberdania / Erein / Igela, 2013) 156. or.].

(153) Eszena baten gerlariak ezpata bat dauka altxatuta eskuan. Konturatu orduko, bi bira egin eta altzairuaz zeharkatzen du etsaiaren bihotza.

Asozioazio bidezko anafora hauetan aurrekari batekiko erreferentzia ezar dezakegu harekin harremanen bat duen elementu baten bidez, baldin eta partaideek mundu diskurtsiboaren eagutza partekatzen badute. Horrek ahalbidetzen du A-ren eta B-ren artean dagoen erlazioaz baliatzea B ezaguna balitz bezala ager dadin aurretik aurkeztua izan barik, artikuluaz, alegia, eta hartzaileengan gaizki-ulerturik eragin gabe.

Artikuluaren erabilera, bada, bere-berezkoa dute anafora hauek, hortik B izen-sintagman beste determinatzaile bat erabiltzeko zailtasuna (ezina esango genuke). Ezaugarri hori da, hain zuzen, B posizioan dagoen izen-sintagma artikuludun bat kontzeptuzko edo asoziazio bidezko anafora den argitzeko baliagarria zaiguna, asoziaziozkoetan ezin baita *domatzaile hori, ile hori, mutur hori, usain hori, ke hori, klarion hori, euri hori, altzairu hori*… erabili. Erakusleak testu barneko

14. <http://www.mondraberri.com/mondraberri/contenidos.item.action?id=1771221&menuId=7109426>.

erreferentziaren bidez argitzen digu nola interpretatu behar den bi elementuren arteko anfora-harremana; semantikoki bete edo osatu gabea denez, beste elementu baten bidez eskuratzen du esanahia. Asoziazio bidezko anaforen kasuan ez da hori gertatzen. A elementuak unibertsoko entitate bati egiten diolako erreferentzia eta B elementuak unibertso bereko entitate desberdin bati; ezinezkoa da, beraz, erreferentziazko harreman bat ezartzea A-ren eta B-ren artean, disjuntoak dira erreferentziarekiko. Hortaz, aurrekariaren identifikazioa zeharka egin behar da. Kasu honetan ezinbestekoa da interpretazioa solaskideek elkarrekin eraikitzen duten markoaren barruan egitea, alegia, partekatzen duten enuntziazio-instantzian, horrek baldintzatzen baitu gauzak hautemateko modua. Nabarmentze kognitiboak ahalbidetzen du aurrekaria identifikatzea, oro har, anaforizatzailearen bidez nabarmenduta geratzen den lehendabiziko elementua izaten dena.

Aurrekariari (edo aingura) dagokionez, oro har, izen-sintagma mugagabea izaten da (*eskola bat, ezpata bat, larrosa sorta bat*…), baina kasu berezi batzuetan litekeena da aurrekaria ere izen-sintagma artikuludunarekin agertzea azkonarraren (145) edo uraren (154) adibideetan gertatzen den bezala. Nolanahi ere, lehendabiziko agerpena (A) artikuluaz mugatuta ager daiteke, baldin eta aurreko diskurtsoak horretarako informazioa eskaintzen badu. Adibidez, urari buruzko testu batean honela agertzen bada:

(154) Ura gure altxor garrantzitsuena edo garrantzitsuenetakoa da […]. Ura bi mota ezberdinetan dago banaturik ur geza eta ur gazian […]. Gainera jakina da hidrosferak (urak) berak bakarrik munduaren hiru laurdenak betetzen dituela […].

(145) adibidearen kasuan ere testu-generoak berak baldintzatuko du aurrekariak hartzen duen forma. Izan ere, azalpen entziklopediko bati dagokion testu zati bat da, eta hor, ezinbestean, azkonarra hitzak espezieari egin behar dio erreferentzia, definizioa eta deskribapenak baliagarriak izan daitezen. Litekeena da (155) modukoak ere aurkitzea; izan ere, autoak, eskuarki behintzat, banan-banan erosten baitira.

(155) Auto berria erosi dut. Hagunak aluminiozkoak ditu.

Kasu horietan guztietan, bestalde, badago A-ren eta B-ren artean nolabaiteko ezin besterenduzko edukitza-harremana. Proba eginez gero, erraz ikus daiteke B elementuen lekuan honelako izen-sintagmak ager zitezkeela: *azkonarraren ilea, larrosa sortaren usaina, negozioaren irabaziak, sutearen kea, istripuko zauritua eramateko anbulantzia, eskolan dagoen klariona, liburua idatzi duen egilea, euriak ekartzen dituen tximistak eta tantakak, ezpataren altzairua…*

Orain arte ontzat eman dugu A posizioan agertzen den elementuak izen-sintagma izan behar duela, baina honelakoak ere aurkitzen ditugu:

(156) Miren gose zen eta afaria prestatu gabe zegoen.

(157) Kepak ogia ebaki ondoren gorde egin zuen aiztoa.

Bi adibide horietan *afaria* hitzak ezartzen duen anafora-harremana aditz batekin da (*gose izan*). Gauza bera *aiztoa* izen-sintagmak *ebaki* aditzarekin.

Erabilera metaforikoak ere ohikoak dira hurrengo adibidean ikus dezakegun bezala:

(158) Etorkizuneko urratsen «algoritmoa» finkatu dute Putinek eta Erdoganek […] (BERRIA, 2016-08-10).

Enuntziatu hori albiste baten izenburuari dagokio. Bertan, *algoritmoa* hitza kataforikoki lotzen da testuan ondoren datorren azalpenarekin. Matematikaren arloko termino batekin irudikatzen du testuaren egileak Putinen eta Erdoganen arteko negoziazioa. Matematikan oinarria duen prozesu batekin alderatuta, kazetariak egoeraren birkategorizazio bat egiten du haren konplexutasuna erakusteko; egiten duen interpretazioan oinarrituta, negoziazio horiek kalkulu egokiak egin eta urrats segida jakin baten bidez, problema baten ebazpenera bideratuta daudela adierazten du kazetariak eta, nolabait ere, konponbidea zaila eta konplexua dela, izan ere algoritmo kontzeptuak ebazpen egokira iristeko jarraitu behar den prozesu zehatza adierazten du.

10. Teoriatik praktikara: testu baten azterketa

Garbi dago aukeratzen dugun marko teorikoak baldintzatuko duela neurri batean anaforaren gainean egingo den azterketa. Garbi dago, halaber, anaforaz hitz egiteak testua kontuan hartzera garamatzala; izan ere, gorago ikusi dugun bezala bi elementuren arteko anafora-harremanak esaldiaren esparrua gainditzen du erraz. Eztabaida edo arazo teorikoek, baina, anaforaren azterketa korapilatu besterik ez dute egiten praktikara eraman nahi dugunean. Ikus dezagun jarraian testu baten azterketa.

Mikroipuinak

Harmailetatik begira

Aitor Manterola

Futbolak ere lekua egin du Durangon. Harmailetatik begira jarri, eta Durango azaldu da zelaian. Futbolaren literatura. Literatura futbolaz. Ipuin txikiak futbolaren mundu erraldoian. Asteburukoaz.

Emaitzen diktadura *(Reala 4 – Real Unión 1*)*

Gizonezko bat Azokan dabil. Eguerditik. Familia lagun. Bat gehiago da beste bat eta beste bat eta beste baten artean. Liburuei eta diskoei ez die arreta handirik jartzen, baina. Betaurrekoen atzeko begietan ez dira liburuen eta diskoen azaletako irudiak islatzen. Futbol zelai bat ikusten dute begiek. Eta jokalariak. Eta bezperako partidako irudiak. Eta bere burua ikusten du Anoetako euskal derbian. Bezperan hartutako erabaki okerren bat edo beste darabil buruan. Entrenatzaileen buruhausteak. Bere taldeak 4-1 galdu zuen, eta halakoetan ohi denez, errudun sentitzen da neurri handi batean. Ez dabil eroso Azokan. Atera egin da, familiari jakinarazi ostean. Bakarrik doa alde zaharrerantz. Eliza ondotik dabil. Durangokoak atari handia dauka. Paretan, ate nagusiaren ondo-ondoan, eskelak daude. Bi. Jakinminez gerturatu da hara. Agian, ezagunak izango ditu. Bera ere Durangokoa baita.

Hasi da izenak irakurtzen, eta izutu egin da. Buruak lotu egin dizkio hilberriak eta futbolak irentsi berri dituen azken bi lankideak. Gogoan ditu Javi Lopez eta Pepe Murcia. Denboraldi bete-betean emaitza txarrek hil dituzten azken bi lankideak. Haien eskelak imajinatu ditu, eta izua hezurretaraino hedatu zaio. Agian, hurrengo eskelan haren izena ager daitekeelako: Iñaki Alonso.

(BERRIA, 2009ko abenduaren 8koa)

© berria.info

*Letra etzanez daudenak ez dira agertzen jatorrizko paperezko testuan, baina bai digitalean.

Egunkari bateko kirolaren sailetik ekarri dugun «Mikroipuinak» deritzon atalean lau ipuin txiki gisa ematen du asteburuko futbol-kronika egileak. Ez ditugu lau ipuinak aztertuko, baina doa adibide gisa lehendabizikoaren azterketa.

Ipuinekin hasi aurretik egileak berak kokatu egiten du bere kronika. Balizko ipuinen agertoki fisiko moduko bat eraikitzen du haiek kokatzeko eta gai nagusia, futbola, leku horrek iradokitzen duenaren harira garatzeko. Durango hartzen du leku fisikoaren ardatz, baina aukera hori ez da nolanahikoa; izan ere, Durango da egun horietan ospatzen ari den ekitaldi baten kokagune garrantzizkoa eta ekitaldi horrek (Durangoko Azoka, euskal liburu eta musikaren azoka) jendetza biltzen duelako bere inguruan. Futbola izango du hizpide egileak, baina ekitaldiak marko egokia eskaintzen dio bere kronika ipuin gisa kontatzeko eta, aldi berean, futbolaz eta Durangoko Azokaz hitz egiteko, ekitaldi handia eta ekitaldi txikia lotzeko, alegia. Horretarako, egileak, futbola eta literatura lotzeko, kazetaritzatik baino literaturatik gertuago dagoen estiloa baliatzen du.

Lehendabiziko ipuinaren izenburuan bertan aurkitzen dugu katafora moduan identifika dezakegun elementu bat: *Emaitzen diktadura* esaten denean ondoren azaltzen den futbol-partidaren emaitzarekin lotzen da (*Reala 4 – Real Unión 1**)[15]. Katafora hori, gainera, ez da nolanahikoa, egiten duen balorazioarekin bere ikuspegia adierazten ari delako egilea, emaitzari deritzona, alegia.

Ondoren hasten da ipuina, eta ipuinetan egiten den erara, lehendabizi pertsonaia aurkezten du: *Gizonezko bat*. Pertsonaia horren presentzia konstata daiteke egiten diren elipsietan ere, baina hemen solik izenordain eta izen-sintagma anaforikoen erabilerari erreparatuko diogu. Hari erreferentzia egiten dioten unitate linguistikoen bidez identifika ditzakegu testuari kohesioa ematen dioten anafora pronominal batzuk (*bere burua, bere (taldea), bera*…), baina baita aurrekari batengana zeharka

15. Emaitza hori parentesian agertuko ez balitz, irakurleak ahalegin handiagoa egin beharko luke *emaitzen diktadura* hori zer den edo zertan datzan identifikatzeko —futbolzale amorratua izan ezik, ia testu osoa irakurri beharko luke—, eta identifikazio hori betiere kataforikoa litzateke.

eramaten gaituztenak ere: *Betaurrekoen atzeko begietan* esaten duenean, begi horiek gizonarenak dira, osotasuna/zatia harreman mota dugu hor; gizonak burua du, buruan begiak ditu eta abar, baina lotura hori marko jakin baten barruan egiten dugu eta egoera horretan hartzen du bere balioa, besteak beste gizonak eta *begiek* munduko entitate ezberdinak izendatzen dituztelako eta haien arteko lotura kognitiboki egiten dugulako marko horretatik eskura dezakegun informazioaren arabera. Hala, *Betaurrekoen atzeko begietan* anaforikotzat hartzen dugu identifikatuta dagoen koadroan funtzionatzen duelako. Anafora horrek topikoa aktualizatzen du eta aldi berean gaiari jarraitutasuna emango dion beste anafora baten (*begiek*) sorburu bihurtzen da. *Entrenatzaileen* hitza ere ezaguna balitz bezala aurkezten zaigu testuan, baina testua ulertzeko ezinbestekoa da ordea, sorbururen batekin lotzea. Kasu honetan harremana alderantzizkoa da, hitz multzokari batek bere baitan hartzen du gizona, eta, gainera, kolektibo baten partaide moduan identifikatzen du; topikoa mantentzen da, baina gainera, informazioa zabaltzen da.

Jo dezagun orain *azokan* hitzaren lehendabiziko agerpenera. Agerpen horrek determinatzaile mugatua daraman aldetik zerbait ezaguna dela adierazten digu, baina testuan ez dugu aurkituko harekin erreferentziakidetasuna duen elementurik, zeharka identifikatu behar dugu, beraz, izen-sintagma artikuludun horren agerpena ahalbidetzen duen sorburua. Aukeren artean Durango dugu sorburu aproposena; egileak eraiki duen markoaren barruan identifika dezakegu *azoka* anafora moduan; bestalde, hori ez da herriko azoka arrunta, hori Azoka da, Durangoko Azoka, alegia, eta alde horretatik, izen berezia dugunez entitate bakar eta berezitu moduan izendatuta agertzen da. Ondoren, Azoka era desberdinetan aktualizatzen da testuan zehar: errepikapenaren bidez (*Azokan*); adberbioaren bidez (*hara*) zein zeharkako anafora baten bidez (*liburuei eta diskoei*); azken kasu horretan ere diskurtsiboki eraiki den markoaren barruan funtzionatzen du anaforak, partekatzen dugun ezagutza da Durangoko Azokan liburuak eta diskoak saltzen direla.

Durango… alde zaharrerantz… Eliza… Paretan dugu topikoa garatzeko moduaren beste adibide bat. Hemen ere elementu horien arteko loturak zeharka besterik ezin ditugu egin eta gure ezagutza entziklopedikoak baliatuta; partekatzen dugun gizartean eta kulturan ohikoa da herriek alde zahar bat izatea eta Durangok ere badu, ohikoa da eliza bat (gutxienez) izatea eta Durangok ere badu, eta elizak, jakina, paretak ditu.

Har dezagun orain *Futbol zelai bat* izen-sintagma. Determinatzaile mugagabe batekin testuratzen den topiko berria dugu, testuan zehar era desberdinetan aktualizatuko dena anaforikoki: *Futbol zelai bat… jokalariak… bezperako partida… Anoetako euskal derbia… (bere)taldeak*. Eremu semantikoa partekatzen duten hitzak ditugu. Futbol-kronika hori futbolzaleentzat idatzita dago eta horrek ematen dio baimena egileari asoziazio eta inferentzia horiek guztiak egiteko. Mundu diskurtsiboa partekatzen dute ekoizleak eta hartzaileak. Hala eta guztiz ere, gure gizartean futbola hain nonahikoa izanik, nork ez ditu lotzen nozio horiek?

Aurrerago, *bi eskelak… hilberriak* dugu. Hemen ere zeharka egiten den lotura aurkitzen dugu, anaforak adierazten digu gainera, gertakizuna berria dela. Eskelak izendatzen duen entitatea edo erreferentea eta hilberriak izandatzen duena ezberdinak dira, baina ikuspegi pragmatiko eta kognitibotik sorburu eskuragarriena dugu *bi eskelak*.

Har dezagun orain *bi lankideak* sorburua eta jarraian agertzen zaizkigun *Javi Lopez eta Pepe Murcia* izen-sintagma eta *Haien* izenordaina. Lankideen izen berezien bidez egiten da topikoaren lehendabiziko eguneratzea, eta, kasu honetan, izen bereziek personak zuzenean eta entitate bakar moduan izendatzeko balio badute ere, ezinbestekoak ditugu bi lankideok zeintzuk diren jakiteko.

Bukatzeko, katafora bat dugu, *haren*, jarraian datorren Iñaki Alonsorekin lotzen dena. Baina hori ere ez da lotze hutsa. Testuaren egileak hasieran aipatu duen gizonaren izena argitzeko estrategia bat da, amaieraino ezkutuan izan duen izena agerian jartzeko. Are gehiago, parentesiaren artekoa agertuko ez balitz, azken izen berezi horrek argituko liguke *bere taldea* Real Union dela, entrenatzailearen izena bere futbol-taldearekin lotuko genukeelako partekatutako ezagutzari esker. Ondo pentsatutako estrategia bat, kirol-kronika idazteko aukeratu duen estilo literarioarekin bat datorrena.

Testu hau nahiko berezia da, baina agerian jartzen du egiten diren saretzeak konplexuak direla eta ezin direla beti erreferentziakidetasunaren irizpidearekin identifikatu. Sarritan, izen-sintagma anaforikoetan artikulua determinatzaile mugatu modura agertzeak elementu hori ezagun moduan interpretatzera eramaten gaitu eta interpretazio horretarako egokiena den sorburua antzematera, azken batean, nolabait nabarmenduta geratzen den sorburura. Nolanahi ere, hemen adibide batzuk besterik ez dugu ikusi, baina euskarazko artikuluaren erabilera anaforikoak mereziko luke azterketa sakonagoa bere funtzionamendua hobeto ezagutzeko.

Testuaren ikuspegitik, ikusitakoak, besteak beste, gauza pare bat erakusten digu: alde batetik, izen-kohesioaren zerbitzuan jartzen diren baliabide anaforikoak ez direla soilik topikoa testuan zehar mantentzeko eta haren garapena ziurtatzeko. Mekanismo horiek baliatzeko moduak eragina du testu osoan. Bestetik, kohesio-mekanismoak testua ekoizteko aukeratzen den moduarekin eta estiloarekin lotuta daudela, eta zer esanik ez, ekoizleak enuntziatiboki komunikazioari aurre egiteko moduarekin eta hark hartzaileengan eragin nahi duen efektuarekin.

Arestian esan den bezala testuaren kohesioak testuan garatzen den informazioaren linealtasunarekin lotuta dago eta sare isotopikoak eraikitzen laguntzen du haren barruan. Kohesioa testuaren funtsezko alderdi bat da haren konposizionaltasunarekin lotuta dagoelako eta, besteak beste, propietate horrek egiten duelako testu bat besteen aldean desberdina. Azken batean, testuaren barnean topikoaren garapenerako beharrezkoak diren saretzeak gauzatzea bezain garrantzizkoak dira saretze horiek gauzatzeko erabiltzen diren estrategiak. Eta estrategia horiek dauden eta sor

daitezkeen testuak bezain ugariak eta ekoizleak bezain askotarikoak izan daitezke kontuan hartzen badugu testu enpiriko bat (komunikazio-egoera baten benetan gauatzen dena) mintzaira-egintza indibidual baten emaitza dela, ekoizpen-egoera jakin batean sortua eta ekoizle jakin batek sortua mintzaira-jarduera kolektibo baten barruan.

Erreferentziak

Alberdi, X. eta Sarasola, I. (2001). *Euskal estilo libururantz: gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: UPV/EHU.

Bamberg, M. (1986). A functional approach to the acquisition of anaphoric relationships. *Linguistics*, 24, 227-284.

Beaugrande, R. (1984). Linguistics as discourse. A case study from semantics. *Word,* 35, 15-57.

Benveniste, É. (1966 eta 1974). *Problemas de lingüística general I* y *II.* Mexiko: Siglo XXI, 1971 eta 1977.

Berrendonner, A. (1983). «Connecteurs pragmatiques» et anaphore. *Cahiers de Linguistique Française*, 5, 215-246.

————————, (1986). «Référence et mémoire discursive», communication au colloque «La référence», Neuchâtel, Centre de recherches sémiologiques, 10-86.

Blanche-Benveniste C. (2000). Le français parlé: un regard sur sa syntaxe. *Histoire de la langue française 1945-2000*, CNRS, 195-197.

Blanche-Benveniste, C. eta Chervel, A. (1966). Recherches sur le syntagme substantif. *Cahiers de Lexicologie*, 9, 3-37.

Bronckart, J.-P. (1996). *Activité langagière, textes et discours. Pour un interaccionisme socio-discoursif*. Lausana: Delachaux & Niestlé.

————————, (2001). L'enseignement des discours. De l'appropiation pratique à la maîtrise formelle. In *Proceedings of the 8th Conference of the International Association for the Syudy of Child Language* (1.-16. or.). Somerville: Cascadilla Press.

Carreiras, M. eta Alonso, M. A. (1999). Comprensión de anáforas. In M. Vega eta F. Cuetos (koord.). *Psicolingüística del español* (205.-230. or.). Madril: Trotta.

Ceberio, K.; Aduriz, I.; Diaz De Ilarraza, M.A. eta Garcia Azkoaga, I.M. (2008). Erreferentziakidetasunaren azterketa eta anotazioa euskarazko corpus batean. In X. Artiagoitia, J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan Patxi Goenagaren Omenez* (153.-172. or.). Bilbo: ASJU.

Charaudeau, P. (1992). *Grammaire du sens et de l'expression*. Paris: Hachette.

Charaudeau, P. eta Maingueneau, D. (2002). *Dictionnaire d'analyse du discours*. Paris: Seuil.

Charolles, M. (1988). Les études sur la cohérence, la cohésion et la connexité textuelles depuis la fin des années 1960. *Modèles linguistiques*, 2. bol., 45-66.
————————, (1990). L'anaphore associative. Problèmes de délimitation. *Verbum*, XIII, 3, 119-148.
————————, (1997). L'encadrement du discours. Univers, champs, domaines et espaces. *Cahier de recherche linguistique,* 6, 1-73.
Chastain, C. (1975). Reference and context. In K. Gunderson (arg.), *Language, Mind and knowledge*, Minneapolis: University of Minnesota Press.
Chipman, H. (1974). *The construction of the pronominal system en English children from 3 to 12*. Université de Genève, Geneva (Thèse de Doctorat de Psychologie).
Combettes, B. (1983). *Pour une grammaire textuelle. La progression thématique*. Brusela-Paris: De Boeck-Duculot.
————————, (1988). Fonctionnement des nominalisations et des apositions dans le texte explicatif. *Pratiques,* 58, 107-119.
————————, (1993). Grammaire de phrase, grammaire de texte: le cas des progressions thématiques. *Pratiques,* 77, 43-56.
Corblin, F. (1983). Défini et démostratif dans la reprise inmédiate. *Le Français moderne*, 51, 118-133.
————————,
Corblin, F. (1995). *Les formes de reprise dans le discours. Anaphores et chaînes de référence*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes.
Cornish, F. (1986). *Anaphoric Relations in english and French. A Discourse Prspective*. Londres: Croom Helm.
————————, (2009). Le role des anaphors dans la mise en place des relations de cohérence dans le discours: l'hypothèse de J.R. Hobbs. *French Language Studies*, 19, 159-181.
Cortés, J. (1985). La grande traque des valeurs textuelles. *Le français dans le monde*, 192, 28-35.
De Weck, G. (1987). Le fonctionnement des anaphores dans deux types de récits. *Feuillets*, 9, 127-146.
Descombes-Dénervaud, M. eta Jespersen, J. (1992). L'anaphore conceptuelle dans l'argumentation écrite. *Pratiques*, 73, 79-95.
Diaz de Gereñu, L. (2016). *Jendaurreko konta-saioa: gertakari sozio-diskurtsiboa eta testu-genero berezitua*. UPV/EHU, Bilbo (doktorego-tesia).
Ehlich, K. (1982). Anaphora and deixis: same, similar, or different? In R.J. Jarvella & W. Klein (arg.), *Speech, Place and Action. Studies in deixis and related topics* (315-338 or.). Chichester: John Wiley.
Euskaltzaindia (1998). *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak I* (EGLU I). Bilbo: Euskaltzaindia. Eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf>.
————————, (1999). *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak III* (EGLU III). Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia: *Orotariko Euskal Hizkegia.* Eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu>.

Garcia Azkoaga, I.M. (2012) «Dena dela, dena den, edonola ere» balio askotariko diskurtso-markatzaileak. *EUSKERA*, 57,3, 659-680.

————————, (2004). *Kohesio anaforikoa hiru testu generotan. Adinaren araberako azterketa.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Garcia Azkoaga, I.M. eta Diaz de Gereñu, L. (2009). Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio-mekanismoek esaten digutena. *EUSKERA* bol. 2-1. zatia, 54. zk., 723-770.

Garzia, J. (1997). *Joskera lantegi*. Vitoria-Gasteiz: Instituto Vasco de Administración Pública / Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

Gayral, F.; Kayser, D. eta Lévy, F. (1997). Quelle est la couleur du feu rouge du Boulevard Henri IV? *Verbum*, XIX libk., 1.-2. zk., 177-200.

Grobet, A. (2002). *L'identification des topiques dans les dialogues*. Brusela: Duculot.

Halliday, M.A.K. eta Hasan, R. (1976). *Cohesion in English*. Londres: Longman, 1994.

Hymes, D. H. (1971). Acerca de la competencia comunicativa. In Llobera *et al.* (arg.) (1995), *Competencia comunicativa. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras* (27.-47. or.). Madril: Edelsa.

Idiazabal, I. (1994). Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje. Análisis de la producción verbal de un niño vasco-hispanófono. In J. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües* (35.-68. or.). Madril-Franckfurt: Vervuert-Iberoamericana.

Idiazabal, I. eta Garcia Azkoaga, I.M. (koord.) (2007). *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako lanak*, publicación on line, Bilbao: UPV/EHU. Eskuratua: <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>.

Idiazabal, I. eta Larringan, L.M. (arg.) (1998). *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.

Iraola, M. (2015). *Anaphora resolution in children and adults: An experimental study of mature speakers and learners of Basque*. Tubingen: Gьnther Narr-Verlag.

Kail, M. (1976). Strategies de compréhénsion des pronoms personnels chez le jeune enfant. *Enfance,* 3.-4. zk., 447-466.

Karmiloff-Smith, A. (1979). *A functional approach to child language. A study of determiners and reference*. Cambridge: Cambridge University Press.

Karttunen, L. (1976). Discourse referents. *Syntax and Semantics,* 7, 363-385.

Kempson, R. (1986). Definite Nps and Context-Dependence: a Unified Theory of Anaphora. In T. Hyers *et alii* (arg.), *Reasoning and Discourse Processes* (209-239 or.). Londres: Academic Press.

Kesik, M. (1989). *La cataphore*. Paris: Presses Universitaires de France.

Kleiber, G. (1991). Anaphore-deixis. Où en sommes-nous? *Information grammaticale,* 51, 3-18.

Kleiber, G. (1992), Anaphore associative et inférences, In J.E. Tyvaert (ed.), *Léxique et inférence(s*) (175.-201. or.). Paris: Klincksieck.

————————, (1994). *Anaphores et pronoms*. Louvain-la-Neuve: Duculot.

————————, (1999). Anaphore associative et relation partie-tout. Condition d'aliénation et principe de congruence ontologique. *Langue Française*, 122, 70-100.

Landragin, F. (2004). Saillance physique et saillance cognitive. *Cognition, Représentation, Langage (CORELA)* 2(2). Eskuratua: <http://edel.univ-poitiers.fr/corela>.

Larringan, L.M. (1996). *Testu-antolatzaileak bi testu motatan*. Doktore tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

————————, (1998). Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean. In I. Idiazabal eta L.M. Larringan (arg.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakskuntza* (49.-94. or.). Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.

————————, (2006). «Gauza» hitza: semantika eta pragmatika arazo. In B. Fernandez eta I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza* (613.-631. or.). Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

————————, (2007). Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura? In I. Plazaola eta M.P. Alonso (arg.), *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea* (119.-133. or.). Donostia: Erein.

Lyons, J. (1980). *Sémantique linguistique*. Paris: Larousse. Trad. De Semantics II, Cambridge University Press, 1978.

Maillard, M. (1974). Essai de typologie des substitus diaphoriques. *Langue française,* 21, 55-71.

————————, (1977). *Le langage en procès*. Grenoble: Presses Universitaires de Grenoble.

Maingueneau, D. (1987). *Nouvelles tendences en analyse du discourse*. Paris: Hachette.

————————, (1998). *Analyser les textes de communication*. Paris: Dunod.

————————, (2004). «Situación de enunciación» o «situación de communicación»? *Discurso*, 3, 6. Eskuratua: <http://fr.scribd.com/doc/98809453/Maingueneau-D-2004-Situacion-de-enunciacion-o-situacion-de-comunicacion#scribd>.

————————, (2007). *Précis de grammaire pour les concours*. Paris: Armand Colin [lehenengo argitalpena 1991 Paris: Dunod].

Marmy Cusin, V.M.F. (2012). *Développer et comprendre des pratiques d'enseignement de la grammaire intégrées à la production textuelle: entre les dires et les faires*. FPSE, Université de Genève, Geneva (Thèse de doctorat: no. 481).

Masseron, C. eta Schnedecker, C. (1988). Le mode de désignation des personnages. *Pratiques*, 60, 98-123.

Meurant, L. (2008). *Le regard en langue des signes: anaphore en langue des signes française de Belgique (LSFB), morphologie, syntaxe, énonciation*. Namur: Presses universitaires de Namur.

Milner, J.C. (1982). *Ordres et raisons de la langue*. Paris: Seuil.

Mitkov, R. (2002). *Anaphora resolution*. Londres: Routledge.

Moirand, S. (1975). Le rôle anaphorique de la nominalisation dans la presse écrite. *Langue Française,* 28. zk., 60-78.

Moirand, S. (1990). *Une grammaire des textes et des dialogues*. Paris: Hachette.

Moliner, M. (1966). *Dicionario del uso del español*, 2. libk., Madril: Gredos.

Morales, J. (1995). Hura eta bera. Haren, beraren eta bere, *Senez,* 16. Eskuratua: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19950901/morales/inprimatzeko>.

Mortureux, M.F. (1993). Collection «Annales Littéraires de l'Université de Franche-Comté», Presses Universitaires de Franche-Comté, 117-136.

Olivares-Pardo, M.A. (1996). A propósito del comportamiento de la anáfora en el discurso científico francés. In Ruiz & *alii* (arg.), Actas del XI Congreso de Nacional de A.E.S.L.A. Valladolideko Unibertsitatea, 505-513.

Perdicoyanni-Paléologou, H. (2001). Le concept d'anaphore, de cataphore et de déixis en linguistique française. *Revue Québecoiose de linguistique*, 29. bol., 2. zk., 55-77.

Picabia, G. (1990). Anaphore nominale dans une structure arborescente. In G. Kleiber eta J.E. Tyvaert (arg.), *L'Anaphore et ses domaines* (251.-277. or.). Paris: Klincksieck.

Pino Serrano, L. (1991). L'anaphore et l'article. *Verba, Anuario Galego de Filologia*, 18, 469-486.

Prince, E. F. (1981). Toward a taxonomy of given-new information. In Cole P. (éd.). *Radical Pragmatics* (223.-255. or.). New York: Academic Press.

Real Academia Española (2009-2011). *Nueva Gramática de la Lengua Española*. Madril: Espasa.

Recasens, M. eta Martí M.A. (2010). AnCora-CO: Coreferentially annotated corpora for Spanish and Catalan. *Language Resources and Evaluation*, 44(4), 315-345.

Reichler-Béguelin, M.-J. (1988). Anaphore, cataphore et mémoire discoursive. *Pratiques,* 57, 15-43.

————————, (1989). Anaphores, connecteurs, et processus inférentiels. In Rubattel (arg.), *Modèles du discours. Recherches actuelles en Suisse romande* (303.-337. or.). Berna: P. Lang.

Soraluze, A.; Arregi, O.; Arregi X. eta Díaz de Ilarraza A. (2015). Korreferentzia-ebazpena euskaraz idatzitako testuetan, *I. Ikergazte: Nazioarteko ikerketa euskaraz,* Durango, 676-684.

Thatcher, N. (1999). La coréference lexicale. *Journal of French Langage Studies*, 1, 9. bol., 90-103.

Zabala, I. (1996). Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan. In I. Zabala (koord.), *Testu-loturarako baliabideak. Euskara Teknikoa* (15.-44. or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eskaldunak (1. zatia)
Patxi Altuna, Gurutze Aldabaldetreku eta Amaia Boneta
1994an argitaratua
ISBN: 84-86967-61-9

Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia
Eneko Barruti Etxebarria
1996an argitaratua
ISBN: 84-86967-76-7

Nafarroako hizkerak
Iñaki Camino (Arg.)
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-92-9

Txillardegi lagun-giroan
Txipi Ormaetxea (arg.)
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-007-6

Morfologia konputazionala
Iñaki Alegria, Miriam Urkia
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-034-3

Euskal deiturategia: Patronimia
Patxi Salaberri Zaratiegi
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-039-4

Hizkuntzalaritza konputazionala
Izaskun Aldezabal eta beste
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-065-3

Ikus-entzunezko itzulpena
Josu Barambones Zubiria eta Beatriz Zabalondo Loidi
2006a argitaratua
ISBN: 84-8438-084-X

Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan
Beatriz Fernández, Jon Ortiz de Urbina
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-094-8

Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)
Mitxel Kaltzakorta Mentxaka
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-109-9

Argumentu isilak eta hizkuntz aldakortasuna
Maia Duguine Haristoy
2010ean argitaratua
ISBN: 978-84-8438-329-1

Hizkuntza gutxituen erronkak
Ibon Manterola Garate, Naiara Berasategi Sancho
2011n argitaratua
ISBN: 978-84-8438-376-5

Hizkuntzaren barrurako atea
Dabid Anaut Peña
2012n argitaratua
ISBN: 978-84-8438-427-4

Hitzen artean. Axun Aierbe gogoan
Fernando García Murga eta Nerea Madariaga Pisano (arg.)
2012n argitaratua
ISBN: 978-84-8438-473-3

Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro
Itziar Aduriz Agirre, Ruben Urizar Enbeita (ed.)
2014an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-524-0

Hizkuntzalaritza Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Druidak Zesarren testuetan
Agirre Urteaga, Garbiñe, *Uztaro* **14**, 21-48.

Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra? (Itzulpena)
Aierbe Mendizábal, Axun, *Uztaro* **40**, 63-74.

Terminologia eta itzulpengintza (Itzulpena)
Aierbe Mendizábal, Axun, *Uztaro* **43**, 53-66.

Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta
Allika Azpeitia, Irune, *Uztaro* **56**, 53-84.

Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan
Almgren, Margareta, Eizabarrena, Mari Jose, Petuya, Alazne, Colina, Amaia, Barreña Agirrebeitia, Andoni, Garcia, Iñaki, Arratibel Insausti, Nekane, *Uztaro* **60**, 67-87.

Euskara batuaren geroa
Alvarez Enparantza, Jose Luis, *Uztaro* **11**, 47-54.

Batuaz idatzita ez dauden testu matematikoen azterketa
Angulo Martín, Patxi, *Uztaro* **68**, 33-55.

Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak
Ariztimuño Lopez, Borja, *Uztaro* **72**, 79-96.

Euskarazko oharmen-aditzen osagarrietako perpaus jokatugabeak
Arteatx Uriarte, Iñigo, *Uztaro* **63**, 31-63.

Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan
Artiagoitia Beaskoetxea, Xabier, *Uztaro* **27**, 33-61.

Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa
Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon, *Uztaro* **5**, 59-109.

Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak
Aurrekoetxea Olabarri Gotzon, *Uztaro* **23**, 87-94.

Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)
Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon, *Uztaro* **50**, 45-57.

Euskal perpausen hurrenkeren prozesamendua kasu-sistemaren argitan
Azkoaga, Jone,Erdozia Uriarte, Kepa, *Uztaro* **96**, 23-47

Enuntziatu parentetikoen balio polifonikoa Koldo Mitxelenaren prosan
Azpeitia Eizagirre, Agurtzane, *Uztaro* **84,** 67-87.

Latinetik hizkuntza erromanikoetara: euskararen hurbileko erromantzeak
Barquín Lopez, Amelia, *Uztaro* **35**, 33-70.

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan
Barreña Agirrebeitia, Andoni, *Uztaro* **12**, 67-88.

Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektu eta objektu markak
Barreña Agirrebeitia, Andoni, Almgren, Margareta, *Uztaro* **29**, 61-94.

Haurrak, egitura txertatuen jabekuntza eta mintzaide helduen eragina
Barreña Agirrebeitia, Andoni, *Uztaro* **32**, 17-33.

Zesar Tito Libioren lanean: imitazio eraldatzailearen etsenplu bat diskurtso historikoan
Bartolome Gomez, Jesus, *Uztaro* **16**, 67-77.

Greziar eta erromatar mitologiaren hastapenak, labur-labur
Bartolome Gomez, Jesus, Bilbao Telletxea, Gidor, *Uztaro* **27**, 59-78.

XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: Liber Sancti Iacobi V, 7.
Bilbao Telletxea, Gidor, *Uztaro* **10**, 61-84.

Herkules zutabean: humanismoko arte mintzoduna Euskal Herrian
Bilbao Telletxea, Gidor, Agirre-Mauleon, Juantxo, *Uztaro* **34**, 15-37.

(H)iri eta haren hitz senideen lotura gotorlekuekin
Casaubon, Jakes, *Uztaro* **86**, 73-109.

Fisikan eta teknologian erabili beharreko adierazpen matematikoetarako nazioarteko arauak euskarara egokitzeko gomendioak
Etxebarria Bilbao, Jose Ramon, *Uztaro* **70**, 49-62.

Magnitude fisikoekin eratzen diren motako kolokazioak euskaraz, bost magnituderen kasuan
Etxebarria Bilbao, Jose Ramon, Bilbao Lopez, Xabier, *Uztaro* **82**, 55-81.

Etxebarri eta Bolibarko bariazio linguistikoa
Ezenarro Arrate, Amaia, *Uztaro* **67**, 59-84.

Ezezko nominalizazioak bizkaieraz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **0**, 85-97.

Tonuarekin lotutako ulermen mailako testa
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **3**, 97-108.

Bizkaiko azentu-motei buruz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **7**, 111-140.

Bermeoko azentu-ereduaz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **8**, 105-117.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (I)
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **11**, 55-88.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (II)
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **12**, 89-110

Esteribarko euskararen azentuaz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **16**, 109-123.

Zubereraren azentuaz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **13**, 107-128.

Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu-ereduez
Gaminde Terraza, Iñaki, Salaberria, Jasone, *Uztaro* **20**, 93-103.

Zumaiako azentuaz eta intonazioaz
Gaminde Terraza, Iñaki, Hazas, Almike, *Uztaro* **24**, 59-76.

Etxeko azentua eta eskolako azentua: azentuera biren azterketa
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **28**, 89-98.

Muskildiko galderen intonazioaz
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **35**, 71-87.

Intonazioaren ezaugarriak emozioen pertzepzioan lau hizkuntzatan
Gaminde Terraza, Iñaki, *Uztaro* **61**, 63-84.

Bokatiboa eta gaitasun prosodikoa: lehen urratsak
Gaminde Terraza, Iñaki, Etxebarria, AIntzane, Garai, Urtza, Romero, Asier *Uztaro* **79**, 5-23.

Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia
Garayar Erro, Ainhoa eta Garay, Urtza, *Uztaro* **73**, 39-48.

Biraketa pragmatikoa, biraketa linguistikoa
García Murga, Fernando, *Uztaro* **6**, 13-22.

Gure gaztetxoen gaitasun komunikatiboaren argazkia
Goikoetxea Agirre, Nekane, *Uztaro* **63**, 51-66.

“Galdegai” bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez
Hidalgo Eizagirre, Bittor, *Uztaro* **33**, 43-85.

Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak
Hidalgo Eizagirre, Bittor, *Uztaro* **34**, 39-85.

-(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)
Hidalgo Eizagirre, Bittor, *Uztaro* **42**, 17-83.

Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriz
Hualde, Jose Ignacio, *Uztaro* **18**, 49-60.

Nola eragin lan-munduko langile euskaldunen euskararekiko jarrera eta portaeran? Pertsuasio-estrategien bidea urratuz
Irastortza, Joxpi, Garcia, Iñaki, Arratibel, Nekane, *Uztaro* **83**, 29-43.

Alfabeto latinoz idazten ez diren hizkuntzen transkripzioa eta transliterazioa
Irazabalbeitia Fernandez, Iñaki, *Uztaro* **14**, 61-88.

Elizen arteko biblia eta itzulpengintza
Irizar Arabaolaza, Ramon, *Uztaro* **15**, 67-79.

Mugimenduzko ekintzak ingelesez eta euskaraz, Sarrionandiaren itzulpen baten azterketatik abiatuta
Jaka Irizar, Aiora, *Uztaro* **69**, 53-76.

Munduko hizkuntzen izenak euskaraz
Juaristi Larrinaga,, Patxi, Barreña Agirrebeitia, Andoni, Uranga, Belen, Idiazabal Gorrotxategi, Itziar, Amorrortu Gomez, Estibalitz, *Uztaro* **54**, 29-59.

Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen
Kaltzakorta Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **22**, 59-67.

“Topiko(a) bihurtu” dela-eta
Kaltzakorta Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **25**, 111-124.

Bila-ren erabil-eremua
Kaltzakorta Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **29**, 51-59.

Galdegai-leku testu-hastapenetan (I) (Horrela bizi bagina beti liburuan)
Kaltzakorta Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **45**, 71-89.

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (eta II) (Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira liburuan)
Kaltzakorta Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **46**, 41-59.

Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa
Lakarra Andrinua, Joseba A., *Uztaro* **25**, 47-110.

Ná-De-Ná
Lakarra Andrinua, Joseba A., *Uztaro* **31**, 15-84.

Bidankozeko gerraosteko euskaldunak
Lekaroz Mazizior, Gorka, *Uztaro* **90**, 43-57

Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran
Lujanbio Begiristain, Oihana, *Uztaro* **80**, 77-97.

Gazteek atzerakarga handiagoa nahi dute euskaraz?
Maia Larretxea, Julian, *Uztaro* **95**, 51-71

Inarra txarragaz, baztarrak lohi: internazionalizatu gabeko produktu informatikoak lokalizatzearen arazoak
Morales Carro, Ana Isabel, Payros Agirre, Irune, Bernaola Gojenola, Itziar, *Uztaro* **51**, 45-62.

Polaritate negatiboko osagaiak baiezko perpausetan
Odriozola Pereira, Juan Carlos, Ondarra artieda, Ainara, *Uztaro* **92**, 67-86

Euskararen etorki eta ahaideak: datuen analisia
Ormaetxea Lasaga, Jose Luis, *Uztaro* **26**, 81-108.

Arrasateko toponimia (edo izen-izanaren sintonia)
Ormaetxea Lasaga, Jose Luis, *Uztaro* **8**, 93-103.

Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta
Perales Ugarte, Josu, *Uztaro* **50**, 23-43.

Bokal-elkarketak beratarren hizkeran
Perez Landa, Edurne, *Uztaro* **57**, 49-64.

Batxilergoko euskarazko matematika-testuliburuen ezaugarriak eta bilakaera: 1970 - 2005
Ruiz de Gauna, Josu Gotzon, Sarasua, Joxemari, *Uztaro* **83**, 45-68.

Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak Hiztegi Batuaren zeregina
Urrutia Badiola, Andres, *Uztaro* **55**, 49-60.

Ikus-entzunezkoen itzulpengintza euskaraz: bikoizketa lanbide
Zabalondo Loidi, Beatriz, *Uztaro* **85**, 73-96.

Euskara Araban
Zuazo Zelaieta, Koldo, *Uztaro* **21**, 79-95.